

Setem



II FASEA

INDARKERIA

kontsumitzen dugu?

Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa



Sistematizazioa eta idazte-lana:

Laura Modonato

Landako azterketa:

Adimen Investigación

Argitalpen-kontseilua:

MUGARIK GABE (María Viadero Acha), Empresa Social Altekio, Iniciativas hacia la Sostenibilidad (Conchi Piñeiro), Vanessa Álvarez González, Pikara Magazine (Andrea Momoitio), SETEM Hego Haizea (Iratxe Arteagoitia Recalde eta Laura Castresana Martínez).

Edizioa:

SETEM Hego Haizea – www.setem.org/euskadi

Diseinua eta maketazioa:

Labox Marketing y Comunicación

Ikerketa hau formatu digitalean aurki dezakezu hemen: www.setem.org/euskadi

Lan hau Creative Commons Errekonozimendua-Ez Komertziala-Berdin Partekatu 3.0 Espainia lizentziapean dago.



Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Donostiako Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin egin da. Dokumentu honen edukia SETEMen erantzukizuneko da bakarrik.

Erakunde hauen babesarekin:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kiroletako eta Kampo Ekinrazko Departamentua
Departamento de Deportes y Acción Exterior



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA ETA GIZARTE
GAETAKO SALA
Gizarte Gaitasun Salburuordetza
Gizarte Lanbidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

ESKER-EMATEA

Kontsumoen eta indarkeria matxisten korapiloa askatzeko prozesu honetan, hainbat ikuspegitatik egin da lan, elkar aintzat hartuz eta hausnartzeko eta ikasteko esparru kolektiboak sortuz. Askotariko ahotsak entzuten eta jasotzen saiatu gara, guztiengana iritsi ezin garela jakinda, mugak mahaigainean jarriz eta zailtasunei helduz. Baina, ororen gainetik, ilusio handiz egin dugu lan, prozesu honen bidez gizarte-eredu bidezkoago eta berdintasunezkoago baterantz pausotxo bat ematen dugula jakinda, banakoaren konpromisoak esparru kolektiboan aldaketak eragiten dituen eredu baterantz.

Hala, bada, eskerrak ematen dizkiegu bide honetan lagundu digutenei, eskerrok jaso beharko lituzketen guztiak agian ageri ez direla baina hauei guztiei, bai, eskerrak eman behar dizkiegula jakinda:

Laura Castresana Martínez, Iratxe Arteagoitia Recalde (ONGD SETEM Hego Haizea), Conchi Piñeiro (Empresa Social Altekio, Iniciativas hacia la Sostenibilidad), María Viadero Acha (ONGD Mugarik Gabe), Andrea Momoitio (*Pikara Magazine*), Vanessa Álvarez González, Laura Modonato (dinamizadora), ADIMEN-Investigación, Red ZarenSare-EnRedando, Lucía Mbomío, Aitzole Araneta, Ianire Estébanez, Paca Blanco eta Irene González Pijuan.

AURKIBIDEA

> ESKER-EMATEA	3
> TAULA AURKIBIDEA	6
> GRAFIKOEN AURKIBIDEA	8
> SARRERA	10
1 ESPERIENTZIAREN SISTEMATIZAZIOA	12
1. Sozializazio-lantegiak eta kaleko ekintzak	14
2. <i>Fabricando mujeres</i> dokumentala	15
3. Ikerketaren lotura SETEM Hego Haizearen 2013-2016ko Ekitatearen aldeko Planarekin eta 2017-2022ko Plan Estrategikoarekin	16
4. Prozesuaren faseak eta erabilitako metodologia	17
2 ESPARRU TEORIKOA	22
1. Sarrera	23
2. Funtsezko kontzeptuak	24
3. Aztertutako kontsumo-esparruak eta hautatzeko irizpideak	27
4. Nondik begiratzen diogu errealitateari?	30
5. Indarkeria matxistak: ondorio larriak dituen fenomeno sistemikoa eta konplexua	33
6. Sistema kapitalistaren eta sistema heteropatriarkalaren arteko aliantza: bizitza indarkeriaz bustitzen	36

7.	Indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura	40
>	Ikus-entzunezko aisia: fikziozko telesailak	42
>	Teknologia-esparrua: telefonia mugikorra	49
>	Etxea: etxeetako energia-kontsumoa	55
3	LANDA-LANAREN EMAITZAK	60
1.	Helburuak eta metodologia	61
2.	Azterlanean eragina izan duten faktoreak eta mugak	64
3.	Emaitzen aurkezpena	66
>	Landa-lanaren emaitzak: indarkeria matxistak fikziozko telesailetan	67
>	Landa-lanaren emaitzak: indarkeria matxistak gailu mugikorretan	98
>	Landa-lanaren emaitzak: indarkeria matxistak etxeetako energia-kontsumoan	120
4	ONDORIOAK	138
1.	Indarkeria matxistak fikziozko telesailen kontsumoan	139
2.	Indarkeria matxistak gailu mugikorren kontsumoan	143
3.	Indarkeria matxistak etxeetako energia-kontsumoan	146
5	INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO KONTSUMORAKO PROPOSAMENAK	149
1.	Fikziozko telesailak	151
2.	Gailu mugikorrak	153
3.	Etxeetako energia-kontsumoa	156
>	BIBLIOGRAFIA	160

TAULA AURKIBIDEA

1. TAULA Sozializazio-lantegietan eta SETEM Hego Haizearekin eta ZarenSare-EnRedando sareko zenbait erakunderekin eginiko saioetan proposatu ziren esparruak	18
2. TAULA Aztertutako kontsumo kapitalistaren esparruak, indarkeria matxisten sortzaileak	27
3. TAULA Ekonomia kapitalistaren eta ekonomia solidarioaren arteko desberdintasunak	37
4. TAULA Indarkeria matxista potentzialak fikziozko telesailen kontsumoan	44
5. TAULA Indarkeria matxista potentzialak mugikorren kontsumoan	51
6. TAULA Indarkeria matxista potentzialak etxeetako energia-kontsumoan	57
7. TAULA Laburpen-koadroa: egiturazko indarkeria fikziozko telesailen esparruan	68
8. TAULA Laburpen-koadroa: indarkeria sinbolikoa fikziozko telesailen esparruan	72
9. TAULA Laburpen-koadroa: zuzeneko indarkeria fikziozko telesailen esparruan	79
10. TAULA Laburpen-koadroa: egiturazko indarkeria fikziozko telesailen esparruan	83
11. TAULA Laburpen-koadroa: indarkeria sinbolikoa fikziozko telesailen esparruan	90

12. TAULA Esadazu pertsonaiaren izena, telesaila eta pertsona / Zer du pertsonaia horrek zuk izan nahiko zenukeena?	92
13. TAULA Laburpen-koadroa: egiturazko indarkeriak gailu mugikorren kontsumoaren esparruan	99
14. TAULA Laburpen-koadroa: indarkeria sinbolikoak gailu mugikorren kontsumoaren esparruan	102
15. TAULA Laburpen-koadroa: zuzeneko indarkeriak gailu mugikorren kontsumoaren esparruan	105
16. TAULA Laburpen-koadroa: egiturazko indarkeriak gailu mugikorren kontsumoaren esparruan	108
17. TAULA Zertarako erabiltzen duzu telefono mugikorra?	109
18. TAULA Zertarako erabiltzen duzu telefono mugikorra? Emakumeen iritzia adin-taldearen eta egoera ekonomikoaren arabera	112
19. TAULA Laburpen-koadroa: zuzeneko indarkeriak gailu mugikorren kontsumoaren esparruan	114
20. TAULA Zein neurritan sentitzen duzu...?	116
21. TAULA Zein neurritan sentitzen duzu...? Emakumeen iritzia adin-taldearen eta egoera ekonomikoaren arabera	118
22. TAULA Laburpen-koadroa: egiturazko indarkeriak etxeetako energia-kontsumoaren esparruan	122
23. TAULA Laburpen-koadroa: indarkeria sinbolikoa etxeetako energia-kontsumoaren esparruan	126
24. TAULA Laburpen-koadroa: zuzeneko indarkeriak etxeetako energia-kontsumoaren esparruan	128
25. TAULA Laburpen-koadroa: egiturazko indarkeriak etxeetako energia-kontsumoaren esparruan	129
26. TAULA Laburpen-koadroa: indarkeria sinbolikoa etxeetako energia-kontsumoaren esparruan	133
27. TAULA Laburpen-koadroa: zuzeneko indarkeriak etxeetako energia-kontsumoaren esparruan	135

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. **GRAFIKOA** Indarkeriaren triangelu zoroa 25
2. **GRAFIKOA** Zer maiztasunez ikusten dituzu telesailak? 81
3. **GRAFIKOA** Telesailak ikusten dituzu... 82
4. **GRAFIKOA** Familian bizi direnean, telesailtako emakumeak arduratzen dira etxeko lanez edo familiaren zaintzaz 84
5. **GRAFIKOA** Nire iritziz, telesailek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunezko errealitate bat erakusten dute 85
6. **GRAFIKOA** Oro har, telesailek gizonen nagusitasun edo pribilegiozko egoera bat erakusten dute, emakumeen aldean 86
7. **GRAFIKOA** Telesailtan emakumeen aurkako erasoak gertatzen direnean, modu kritikoan islatzen dira 87
8. **GRAFIKOA** Mindua sentitu zara inoiz telesailen batean genero-indarkeria, gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeria eta antzeko gaiak tratatzeko moduagatik edo homosexualitatearen eta transexualitatearen tratamenduagatik? 89
9. **GRAFIKOA** Bereziki identifikatua sentitzen zara telesailtako pertsonaiaren batekin? 91
10. **GRAFIKOA** Zure ustez, emakumeen aurkako indarkeria-mota bat da... gizonen aldean, emakumeek bigarren mailako rolak izatea (baiezko erantzunen %) 94

- 11. GRAFIKOA** Grafikoa zure ustez, emakumeen aurkako indarkeria-mota bat da... emakumearen gorputza ikusle gehiago izateko erakargarritzat erabiltzea (baiezko erantzunen %) 95
- 12. GRAFIKOA** Zure ustez, emakumeen aurkako indarkeria-mota bat da... edertasun-kanon ia bakartzat emakume gazte, mehe eta apainarena erakustea (baiezko erantzunen %) 96
- 13. GRAFIKOA** Oro har, pertsonaia homosexual edo transexualak ageri direnean, gainerakoak baino komikoagoak edo graziosoagoak izaten dira 97
- 14. GRAFIKOA** Etxean, eroso sentitzeko moduko tenperatura bat izaten duzu, udan zein neguan? 130
- 15. GRAFIKOA** Zein dira arrazoiak? 131
- 16. GRAFIKOA** Diskonfort termikoaren arrazoi nagusitzat faktura ordaindu ezin izatea eman duten pertsonak, adin-taldearen arabera 132
- 17. GRAFIKOA** Irakurriko dizkizudan aukeren artean, zein litzateke, zure ustez, pertsona batek etxean tenperatura atsegirik mantendu ezin izateko arazoa? 134
- 18. GRAFIKOA** Zeure etxean tenperatura eroso mantendu ezin izateak inoiz eragin dizu...? 136
- 19. GRAFIKOA** Zeure etxean tenperatura eroso mantendu ezin izateak inoiz eragin dizu...? 137

SARRERA

Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektibo hau 2015. urtean abiatu zen, indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura agerian jartzeko helburuz, eta alternatibak proposatzeko, errealitatea kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzaitetik (KKAE) eraldatzearen. Horretarako, esparru teoriko bat prestatu genuen¹, kapitalismoa salatzen duena, heteropatriarkatuan oinarritutako zapalkuntza-sistemetakoa bat den aldetik, genero-desberdinkeriak, oro har, eta indarkeria matxistak, bereziki, gauzatzen eta betikotzen dituen sistema bat, hain zuzen. Landa-lan bat ere egin genuen, indarkeria matxistak sortzen dituen kontsumo-kapitalista horren lau esparru identifikatzea ahalbidetu ziguna:



ETXEA (2)

ELIKADURA ETA ETXEKO PRODUKTUAK



ESPARRU PERTSONALA

ESTETIKA



ESPARRU PUBLIKOA

MUGIKORTASUNA

Eginiko lana bi dokumentutan mamitu zen:

- Ikerketaren txostena: **SETEM Hego Haizea (2015): Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa¹.**
- Indarkeria matxistarik gabeko kontsumorako hausnarketa-gida: **SETEM Hego Haizea (2015): Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxistarik gabeko kontsumorako hausnarketa-gida².**

1. SETEM Hego Haizea (2015): "Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa". Esparru teorikoa: 34-66. or. Hemen eskuragarri: http://www.setem.org/setem_ftp/euskadi/consumimosviolencia_estudio_eusk.pdf

2. SETEM Hego Haizea (2015): Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxistarik gabeko kontsumorako hausnarketa-gida. Hemen eskuragarri: http://www.setem.org/setem_ftp/euskadi/consumimosviolencia_guia_eusk.pdf

Bi dokumentu horiek 2016an argitaratu eta gero, SETEM Hego Haizeak lan handia egin zuen lortutako emaitzak sozializatzen, hirugarren sektoreko erakundeei zein herritarrei, oro har, zuzenduta. Lan horren eta jasotako feedbackaren ondorioz, esparru gehiago aztertzen jarraitzeko beharra identifikatu genuen, haien bidez indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko loturan sakontzeko.

Dokumentu hau, beraz, **2016an abiatutako prozesuaren jarraipena da**, eta azterketa-esparru berriak hartzen ditu barnean, haiek ikertuz indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko loturan sakondu nahian. Zehazki, **oraingoa fikziozko telesailen, telefonia mugikorraren eta etxeko energiaren kontsumoan sakondu da, indarkeria matxistak** nola sortzen dituzten jakiteko, begirada, hausnarketa eta jakintza berriak gehiturik.

Horretarako, dokumentu honetako lehen kapituluan, labur-zurrean azaltzen ditugu proiektuaren sistematizazioa, hura osatzen duten faseak, eta erabilitako metodologia; bigarren kapituluan, azterlanaren esparru teoriko eta kontzeptuala ematen dugu aditzera, azterketa-esparru berriei egokiturik; hirugarren kapituluan, eginiko landa-lanaren metodologia nahiz emaitzak xeheki azaltzen ditugu; laugarren kapituluan, kontsumo kapitalistaren esparru aztertuetan atzeman diren indarkeria matxistei buruzko ondorioak ezagutarazten dira; eta azkenik, bosgarren kapituluan, proposamen zehatz batzuk egiten ditugu, indarkeria matxistarik gabeko kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailea (KKAE) bultzatzeko.

Hurren ezagutzera ematen dugun edukia prozesu honetarako eratu dugun Aholkularitza Taldeko kolektiboaren ekarpenen emaitza da (Mugarik Gabe³, Altekio⁴, SETEM Hego Haizea, Vanessa Álvarez González, *Pikara Magazine*⁶ eta Laura Modonato), bai eta ZarenSare-EnRedando⁷ sareko erakundeetako eta aliatuetako teknikari zein boluntarioen banakako hausnarketan emaitza ere, prozesuaren faseetan zehar kontsulta egin baitzaie.

3. *Euskal Herriko Mugarik Gabe aspalditik ari da indarkeria matxisten gaiari buruz hausnarketa eta azterketa egiten, eta gai horretan, hain zuzen, erreferentea da Euskadiko GGKE-en artean.*

4. *Altekio, Iniciativas hacia la Sostenibilidad empresa social bat da, eta haren eskaintzan sartzen dira prestakuntza-jarduerak, ikertzeko eta esku hartzeko proiektuak, proiektuen diseinua, erakunde publiko zein pribatuentzako aholkularitza, eta erakundeentzat proiektuak bideratzea, jasangarritasuna helburu beti, haren alderdi guztietan: ingurumena, garapen komunitarioa eta ekonomia soziala.*


6. *Pikara Magazine-k kalitatezko kazetaritza egiten du, ikuspegi feministakoa, kritikoa, urratzailea eta gozazalea.*

7. *Jatorrian "Udalerrri etikoen" Sarea deitu zitzaiona da, eta 2009az geroztik ari da esperientzia eta jakintzen trukean. 2014ko urtarrilean, orain ZarenSare-EnRedando deritzon sarearen lehen topaketa egin zen, eta bigarren bat egin zen Medellinen (2014ko abuztu-irailletan), eta 2015ean, hirugarrena. Azken topaketa horretan, sarearen helburu politikoak, funtzionamendua eta ekintzak zehaztu ziren. Hauek dira sarearen antolakundeak: Kolonbiako Corporación para la Vida Mujeres que Crean eta Corporación Ecológica y Cultural Penca de Sábila; El Salvadoroko REDES fundazioa eta Mujeres Transformando; Guatemalako AFEDES; Chiapasko Kinal Antsetik; Bizkaiko Margotu, Hemengo eta Hango Emakumeak, eta Sagarrak elkarreak, eta Ermuko Emakumeen Topalekua; Gipuzkoako Beizama kooperatiba eta Elkar Hezi ikastetxea; eta Euskadiko SETEM Hego Haizea GGKEa.*



1

Esperientziaren sistematizazioa



> | SARRERA

Sarreran esan dugunez, 2016an *Indarkeria kontsumitzen dugu?* ikerketa-txostena argitaratu eta gero, SETEM Hego Haizeak lan handia egin zuen lortutako emaitzak sozializatzeko. Atal honetan, labur-zurrean azalduko dugu zer izan den zehazki eginiko lana, azterlan honen jarraipena garatzea ahalbidetu zuen hazia izan zen eta.

Hauek baliatu ziren lanaren emaitzak sozializatzeko:

- Sozializazio-lantegiak, erakunde sozialei eta pertsona fisikoei zuzenduak, **ZarenSare-EnRedando** sareko erakundeen laguntzarekin.
- Arte-sorkuntzako prozesuak, kaleko aldarrikapen-ekintzak egiteko, zerbait erakunde eta kolektibo sozial lagun, hala nola **Plataforma Tirante**, **La Flamencura todo lo Cura**⁸ eta **Pikara Magazine**.
- *Fabricando mujeres* dokumentala, **Al Borde** films ekoiztetxearen eskutik⁹.

8. *Plataforma Tirante* talde multidiziplinarioa da, arte eszenikoetako nahiz garapenerako lankidetzako hainbat profesionalek eratutakoa. *La Flamencura todo lo cura* kolektiboak flamenkoan eta umorean oinarrituz lan egiten du, tresna pedagogiko eta terapeutiko gisa baliatuta.

9. *Al Borde Films* 2015ean Bilbon sortutako ekoiztetxe-kooperatiba bat da. Identitateak sortzen laguntzen duten istorioak kontatzen dituzte, eta horrela errealitate desberdinetara iristen dira, haien bidez partekatuz, ikasi eta eraldatzeko. REAS-Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareko kidea da.

1 | SOZIALIZAZIO- LANTEGIAK ETA KALEKO EKINTZAK

Sozializazio-lantegiak ikerketa-txostena 2016ko martxoan aurkeztu zenetik gaur egun arte egin dira (2019), eta **helburu** hauek izan dituzte:

- **Indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura agerian jartzea**, 2016an aztertutako esparruetan: etxea (etxeako produktuak eta elikadura), estetika, eta mugikortasuna.
- **Azterlanean aditzera emaniko datu kuantitatibo eta kualitatiboak** eguneroko bizitzara eramatea.
- **Proposamenak egitea** indarkeria matxistarik gabeko KKAE baterantz aldatzeko.

SETEM Hego Haizeako lantalde teknikoa buru zuten lantegi horien formatuari dagokionez, ikerketaren emaitzen aurkezpen laburra egin da, batetik; eta bestetik, parte-hartzezko metodologia baten bidez, parte-hartzaileak emaitzez jabe daitezen sustatu da, aztertutako esparruetako kontsumoari loturiko indarkeria berriak identifikatuz, beren esperientzia konkrituaren arabera, eta salaketa- eta aldarrikapen-proposamenak eginez, KKAE baterako.

Aplikaturiko metodologian tresna artistiko batzuk erabili dira eta, horri esker, parte hartzen zuten pertsona eta erakundeek indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko loturan sakondu ahal izan dute, bideoak, film laburrak eta kantak sortuz, besteak beste. Tresna artistikoez baliatzeak bizipen pertsonaletatik abiatuz hausnarketetan sakontzeko balio izan du; izan ere, hori ezinbesteko estrategiatzat hartu da, parte hartzen zuten pertsona eta erakundeek hausnarketak barneratu eta bere egin ahal izateko.

Sozializazio-lantegiak Vitoria-Gasteizen, Bilbon, Donostian, Oñatin, Ermuan, Ondarroan, eta Basaurin egin dira, beste leku batzuen artean, eta ZarenSare-EnRedando sarea eratzen duten erakundeek laguntza jaso da, bai eta beste erakunde batzuen ere, Equipare kooperatibarena kasu.

SETEMeko lantaldeak oso era positiboan balioetsi du parte hartu duten pertsona eta erakundeen artean lantegiok izan duten harrera, aplikaturiko metodologiak bermatu baitu emaitzez jabe daitezen eta, beraz, barnera ditzaten.

Sozializazio-lantegiak egiten ziren bitartean, kaleko ekintzak egin ziren, aldarrikapenezkoak, zenbait erakunde eta kolektibo sozial lagun, hala nola Plataforma Tirante, La Flamencura todo lo Cura eta *Pikara Magazine*.

2 | **FABRICANDO MUJERES** **DOKUMENTALA**

Azterlanaren emaitzen gainean, *Fabricando mujeres* dokumentala egiteko ideia emaitza horiek publiko zabalago bati ezagutarazteko helburuaren ondorio izan zen, sozializazio-lantegiak eta kaleko ekintzak oso talde zehatz batzuei zuzendu baitzitzaizkien.

Dokumentala egiteko, Al Borde Films ekoiztetxearekin ezarri ziren harremanak; ekoiztetxeak ikerketa ezagutzen zuen jada, eta aurretik ere SETEM Hego Haizearekin lan egina zen. Dokumentala egiteko prozesurako, asteroko bilerak egin ziren, eta haietan edukiak zein azken formatua landu ziren. Dokumentala 2018. urtean aurkeztu zen, Euskadiko hainbat herri eta hiritan, eta beste lurralde batzuetan ere izan du eskaria, hala nola Bartzelonan, Gironan, Cuencan, Iruñean, Madrilen eta Valentzian. Horrez gain, garrantzi handiko zenbait zinema-jaialditan aurkeztu da, hala nola **Zinebin** (Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia), 2019an.

Dokumental-formatu tradizionaletik abiatuta, *dokuweb* bat¹⁰ egiteko ideia sortu zen, hau da, espazio interaktibo bat, interesa duten pertsonak, batetik, kontsumo kapitalistan dauden indarkeria matxistak salatu ahal izateko, webgunean iragarkiak edo beste edozein irudi, bideo, eta abar argitaratuz eta, bestetik, alternatibak proposatzeko, indarkeria matxistarik gabeko kontsumo baterako, informazioa hainbat formatu-motatan argitaratuz orobat. *Dokuweba*, beraz, tresna bat bilakatu da, ikerketaren emaitzak elikatze bidea eman duena. 2019ko martxoan eman zitzairen herritarrei tresna interaktibo honen berri.

10. Fabricando Mujeres *dokuweba* hemen dago eskuragarri: <https://fabricandomujeres.org/eu/>

3 | IKERKETAREN LOTURA

SETEM Hego Haizearen 2013-2016ko Ekitatearen aldeko Planarekin eta 2017-2022ko Plan Estrategikoarekin

Lehen ikerketa-txostenean aditzera eman genuenez, SETEM Hego Haizeak 2012an ekitatearen aldeko plana taxutzeko aurrera eraman zuen diagnostikoko eta prestaketako prozesutik sortu zen **Indarkeria kontsumitzen dugu?**. Zehazki, 2013-2016ko Ekitatearen aldeko Planaren 4. helburu estrategikoak hau jasotzen zuen: “Harreman-sarea finkatu eta hedatzea, SETEM Hego Haizeak beharrezkoak diren aliantzak sor ditzan hausnarketa feminista sustatzeko, baita erakundeak desberdinkerien kontra borrokatzearen eta generoaren harira dituen eginkizunak bultzatzeko ere”. Ildo horretan, SETEM Hego Haizeak bere konpromisoa esplizitatu zuen, kontsumoari buruzko edozein ekintzari eta/edo hausnarketari ekiteko, gai horrek emakumeen gain zein gizonen gain eragiten duen inpaktua aztertzen duen ikuspegi batetik. Konpromiso horrekin garatu zen **Indarkeria kontsumitzen dugu?**, indarkeria matxistak kontsumo kapitalistarekin lotzen dituen proiektu bat.

Azterlana egin eta gero, SETEM Hego Haizea 2017-2022ko Ekitatearen aldeko Plan berria prestatzeko prozesuan murgildu zen, eta plan horretan, hain zuzen, indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura erakundearen lanaren ildo estrategiko bat bihurtu da, honako hau adieraztean: “Ikerketa, salaketa, alternatibien egituraketa, prestakuntza, herritarren mobilizazioa eta nazioarteko lankidetzak direla medio, gizartean zein politikan eragiten dugu, honako hauek bultzatzeko: (beste arlo batzuen artean) kontsumoan indarkeria matxistak desagerraraztea”¹¹.

Erakundearen Ekitatearen aldeko Plan berria prestatzen ari zen bitartean, 2016. urtearen hasieran eta 2017. urtearen bukaeran, SETEM Hego Haizea barnehausnarketako prozesu batean murgildu zen aldi berean, Fernando Altamirak zuzendua, sexu- eta genero-aniztasuna eta interseksionaltasuna txertatzeko nola barne-funtzionamenduan hala herritarrei zuzentzen dizkien proiektu eta ekimenetan. Apustu hori 2017-2022ko Ekitatearen aldeko Plan berrian, hain zuzen, jasota geratu da. Ikuspegi horiek, aurrerago ikusiko dugunez, ikerketa honetan txertatu dira, SETEM Hego Haizearen jarrera politikoarekin koherentziaz jokatu.

11. SETEM Hego Haizearen 2017-2022ko Plan Estrategikoa, 2. orr. Dokumentua hemen dago eskuragarri: http://www.setem.org/setem_ftp/euskadi/planestrategico2017-2022_EUS.pdf

4 | PROZESUAREN FASEAK ETA ERABILITAKO METODOLOGIA

SETEM Hego Haizeak –beraren **Plan Estrategikoaren** barruko jarrera politikoa oinarri- prozesu bat abian jarri zuen, 2016an egindako ikerketa zabaltzearen egokitasuna aztertzeko, indarkeria matxisten eta kontsumoaren arteko loturan sakontzen jarraitzeko helburuz, erakundeko teknikari eta boluntarioen nahiz ZarenSare-EnRedando sareko erakundeen bizipen, iritzi eta esperientziak txertatuta.

Hona hemen proiektuaren faseak:

- Prozesuaren egituren definizioa: proiektuko lehen pausoa izan da prozesua garatzeko eta haren jarraipena egiteko egiturak eratzea. Horretarako, 2016ko egiturak eratu dira berriz:
 - ✓ **TALDE SUSTATZAILEA**, SETEM Hego Haizeak eta Laura Modonatok osatua. Prozesua sustatzeko eta bideratzeko eginkizuna izan du.
 - ✓ **AHOLKULARITZA TALDEA**, SETEM Hego Haizea, Altekio, Mugarik Gabe eta Laura Modonato zeuden taldean, eta ECOOO Revolución Solar eta *Pikara Magazine* gehitu dira fase berri honetan, begirada berriak sartzearren eta sexu- eta genero-aniztasuneko ikuspegian sakontzearren. Aholkularitza Taldearen eginkizuna izan da prozesuan zehar aholkularitza teoriko eta metodologikoa ematea.
 - ✓ **JARRAIPEN BATZORDEA**, ZarenSare-EnRedando sareko erakundeek eta erakunde aliatuek osatua. Prozesuan zehar, Jarraipen Batzordeak ekarpenak egin ditu, azterketa-esparruak definitzeari eta esparru teorikoa egokitzeari lotuta batik bat.

- Azterketa-esparruak eta metodologia aurretiaz hautatzea: aztergaia zabala dela jakitun, bai edukien aldetik, bai ikuspegiaren aldetik, lehen zeregina izan zen zer aztertu nahi genuen, nola aztertuko genuen eta zer tresna erabiliko genituen zehaztea. Horretarako, lehenik, dokumentu honetako 1.1 atalean azaldu diren sozializazio-lantegietan bildutako informazioa berrikusi zen; izan ere, lantegion bidez, haietan parte hartu zuten pertsona eta erakundeek garrantzizko beste azterketa-esparru batzuk proposatu zituzten. Horrez gain, 2018. urtean, berariazko lantegiak egin ziren SETEM Hego Haizearekin eta, orobat, ZarenSare-EnRedando sareko erakundeetako batzuekin, azterketa-esparru berriak identifikatzeko xedez. Lansaio haietan proposaturiko esparruak hauek izan ziren:



1. TAULA SOZIALIZAZIO-LANTEGIETAN ETA SETEM HEGO HAIZEAREKIN ETA ZARENSARE-ENREDANDO SAREKO ZENBAIT ERAKUNDEREKIN EGINIKO SAIOETAN PROPOSATU ZIREN ESPARRUAK

ENERGIA-KONTSUMOA → Energia-ereduak emakumeen gain eragiten dituen ondorioak

OSASUNA ETA KONTSUMOA → Sendagaien kontsumoa
Indarkeria obstetrikoa
Produktu "kutsatuen" kontsumoa eta emakumeen eta gizonen gorputzean eragiten dituen ondorioak

OSASUNA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK → Informaziorako irispidea eta informazioaren kontrola (adibidez, arrakala digitala)

KONTSUMOA ETA HEZKUNTZA → Haurren artean eredu sexistak berrekoiztea

INDARKERIA EKONOMIKOAK → Emakumeak logika kapitalistatik baztertzea (erosahaldien txikiagoa)

AISIA ETA KULTURAREN KONTSUMOA → Aldizkari, kirol, literatura, prentsa, pornografia eta abarren ekoizpena eta kontsumoa aztertzea

Gai horiek Aholkularitza Taldearekin egin zen lehen lansaioan eztabaidatu ziren, hautatzeko irizpide batzuk zehaztu ziren¹², eta, haietan oinarrituta, hiru azterketa-esparru handi hautatu ziren aurretiaz: energia-kontsumoa, teknologia-kontsumoa eta ikus-entzunezko kontsumoa.

a. AZTERKETA-ESPARRUAK BEHIN BETIKO HAUTATZEA:

aurretiazko hautaketan oinarrituta, Talde Sustatzaileak bibliografia nagusia berrikusi zuen, eta hura Aholkularitza Taldeko entitateekin partekatu zuen; azken horiek lehen hurbilketa hori aberastu zuten, geroago edukien eta iturri bibliografikoen erreferentziak emanez. Hurren, azterketa-esparrua definitu eta zedarritzeko zenbait langune egituratu ziren. Horretarako, lehenik eta behin, 2016an ondutako esparru teorikoa berrikusi genuen, jakiteko nola egokitzen ziren azterketa-esparru berriak esparru kontzeptualarekin eta ikerketaren ikuspegiarekin. Bigarrenik, eta SETEMek bultzatutako hautaketa-prozesuaren ildotik, aztertu zen nola barne har zezaketen hautaturiko esparruek sexu- eta genero-aniztasuneko eta interseksionaltasuneko ikuspegia, azken hori erakundearen eginkizunetan adostutako apustu politikotzat hartuta. Gai horiek guztiak aztertu eta gero, eta Aholkularitza Taldeak sustatutako eztabaida batzuen bidez, azterketa-esparru berriak adostu ziren azkenik.

b. ESPARRU TEORIKOA EGOKITZEA: esparru teorikoa berrikusteko eta egokitzeko lan bat eraman zen aurrera eta, lan horretan, analisirako begirada eta ikuspegi berriak txertatu genituen, eta azterketa-esparru berrien analisi kontzeptual bat gehitu genuen. Halaber, hurbilketa teoriko bat egin genuen indarkeria matxistek eta kontsumoak hautaturiko esparru horietan duten loturari buruz: fikziozko telesailen, telefonia mugikorraren eta etxeetako energia-kontsumoan, hain zuzen.

c. AZTERKETA-ESPARRU BERRIEI BURUZKO SOZIALIZAZIO-LAN-TEGIAK ZARENSARE-ENREDANDO SAREKO ERAKUNDEEKIN: prozesuan aurrera jarraitu genuen sarean parte hartzen duten zenbait erakunderekin hautatutako esparru zehatzak sozializatuz, azterketarako ikuspegiaren eta erabiliko zen metodologiaren inguruan ekarpenak jasotzeko xedez.

d. LANDA-LANA: 2016an egindako ikerketan bezala, kasu honetan ere prozesuaren funtsezko atala izan da Euskadin indarkeria matxistei eta kontsumo kapitalistari buruz egin den esplorazio-azterketa, bi helburu hartuta: (i) Euskadiko herritarrek indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko loturaz zer pertzepzio duten jakitea; eta (ii) indarkeria matxisten eta kontsumo konbentzional kapitalistaren arteko lotura/harremanaren ezaugarriak zehaztea. Horretarako, ADIMEN enpresaren zerbitzu profesionalak kontratatu dira; merkatu-azterketetan aditua da, eta berak eraman du aurrera landa-lana, honako hauek eginda:

12. Azterketa-esparru berriak aurretiaz hautatzeko irizpideak hauek izan dira: 1) indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura; 2) ikuspegi interseksionalaren zeharkakotasuna; 3) sexu- eta genero-aniztasuneko ikuspegiaren zeharkakotasuna; eta azkenik, 4) bikoiztasunik ez egotea. Irizpide horiek xehekiago deskribatzen dira dokumentu honetako 2. kapituluaren (esparru teorikoa).

- ✓ **Sakoneko elkarrizketak adituei:** garrantzitsua da zehaztea aditutzat jo dugula aztergai genituen esparruen ikuspuntu sakonago bat eman ahal zigun pertsona oro, haren ibilbideagatik edo esperientziagatik, hertsiki arlo akademikokoak izan ez zitezen saiatuta. Hartara, bilatu ditugun profilak izan dira – errealitate sozialari aplikatu dituzten ikerketengatik edo haien aktibismoagatik– informazio jakingarria eman ahal ziguten pertsonenak, prestatutako esparru teorikoa elikatzeke eta landa-lanaren hurrengo faseak doitzeko.
 - ✓ **Sakoneko elkarrizketa kontsumitzaileei:** adituei eginiko elkarrizketak eta esparru teorikoaren egokitzapena oinarri hartuta, elkarrizketak egin zaizkie hainbat kontsumitzailei, haien iritzi eta bizipen pertsonaletan sakontzeko, eta hautaturiko kontsumo-esparruetan indarkeria matxistek duten inpaktua zehazteko. Horrez gain, sexu- eta genero-aniztasuneko ikuspegian sakontze aldera, oso profil zehatzak zituzten pertsona batzuk hautatu dira: emakume zisak eta pertsona transak, askotariko sexu-orientazioetakoak: lesbianak, heterosexualak eta bisexualak. Horrez gain, profilak hautatzeko, beste aldagai batzuk sartu dira, hala nola adina, jatorri geografikoa, gai sozialekiko kontzientziazio-maila, eta egoera ekonomikoa.
 - ✓ **Telefono bidezko inkesta, CATI erakoa (Computer Assisted Telephone Interview):** herritarrei, oro har, egitekoa. Inkestaren helburua izan da datu kuantitatiboak biltzea Euskadiko herritarrek indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko loturaz duten pertzepzioari buruz.
- a. PROPOSAMENAK PRESTATZEA:** behin landa-lanaren emaitzak azterturik, eta prestatutako esparru teorikoarekin gurutzatu eta gero, Aholkularitza Taldeak proposamenak eta gomendioak landu zituen, indarkeria matxistei benetan aurre egiten dien kontsumo-eredu bat eraikitzeke, SETEM Hego Haizearen lana nahiz ZarenSare-EnRedando sareko erakunde eta beste erakunde aliatu batzuen lana berrorientatzeko erabiltzea helburu. Prozesu horrek balio izan du oso jakintza zehatzak ikasteko, indarkeria matxisten eta kontsumoaren inguruan egiten ari den lanari praktikan aplikatzeko modukoak.
- b. PROZESUA SISTEMATIZATZEA ETA JENDAURREAN AURKEZTEA:** prozesuaren azkeneko faserako, azken dokumentu bat prestatzea aurreikusi da, bertan esparru teorikoa, landa-lanaren emaitzak, eta aldaketarako proposamenak jasota, prozesuan zehar gertatu diren uneak sistematizatzearekin batera. Azkenik, prozesuaren jendaurreko aurkezpenak egiteko asmoa dago, lortutako emaitzak gai

honekin lotura estuagoa duten sektoreen artean ezagutarazteko, eta, zehazki, indarkeria matxisten eta kontsumoen arloan esku hartzen duten erakundeen artean.


Erabilitako metodologiari dagokionez, nabarmendu behar da oraingoan ere hainbat erakunderen lan kolektiboa eta parte-hartzea sustatzen saiatu garela eta, era berean, aztertzen zen fenomenoaren gain neurriak hartzeko eta ekiteko helburua genuela.

Horri dagokionez, berriz zehaztuko dugu prozesu honek oso lotura estua duela ekintzarekin, hau da, haren emaitzek balio behar dutela **proposamen eta gomendio zehatzak prestatzeko, indarkeria matxistei benetan aurre egiten dien kontsumo-eredu bat eraikitzeko**, bai SETEM Hego Haizearen lana, bai ZarenSare-EnRedando sareko erakundeen eta aliatuen lana berrorientatzeko erabiltzea helburu hartuta.



2

Esparru teorikoa



1 | SARRERA

Lehen aipatu dugunez, **indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektibo honen helburua da indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura agerian jartzea eta alternatibak proposatzea, errealitatea kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailetik (KKAÉ) eraldatzearren.** Horretarako, esparru teoriko bat prestatu genuen¹³, kapitalismoa salatzen zuena, heteropatriarkatuan oinarritutako zapalkuntza-sistemetakoa bat den aldetik, genero-desberdinkeriak, oro har, eta indarkeria matxistak, bereziki, gauzatzen eta betikotzen dituen sistema bat, hain zuzen.

Horri dagokionez, esparru teoriko hau 2015ean egindakoa zabalduz osatu da; izan ere, oraingoan aztertu nahi izan dugu fikziozko telesailen, telefonia mugikorraren eta etxeko energia-kontsumoak indarkeria matxistak nola sortzen dituen, begirada, hausnarketa eta jakintza berriak gehiturik.

Hori prestatzeko, prozesu honetarako eratu dugun Aholkularitza Taldeko kolektiboetako kideak izan ditugu (Altekio Iniciativas hacia la Sostenibilidad, Vanessa Álvarez González, Mugarik Gabe, *Pikara Magazine*, SETEM Hego Haizea eta Laura Modonato, prozesuaren dinamizatzaile-lanetan), bai eta ZarenSare-EnRedando sareko erakundeetako eta aliatuetako teknikari zein boluntarioen banakako hausnarketak ere, prozesuaren faseetan zehar kontsulta egin baitzaie.

Azterlan honek oinarritzat dituen funtsezko kontzeptuak azaldu aurretik, ikerketaren aurreneko atalean ere aditzera eman genituen zenbait gai gogorarazi nahi ditugu:

- Esparru teorikoa kontsumo kapitalistan dauden indarkeria matxisten azterketan zentratzen da. Egungo desberdinkeriazko testuingurua dela eta, begirada kritiko hau esparru eta erakunde guztien gain ezarri behar dugu, baita beren burua eraldatzailetzat definitzen dutenen gain ere.
- Esparru teorikoa Euskadiko errealitatean zentratzen da. Batetik, lurralde honetan kokaturiko hainbat erakunde barne hartzen dituen hausnarketa kolektiboko prozesu batean oinarrituz prestatu baita; erakunde horietako batzuk ZarenSare-EnRedando sarekoak dira, hain zuzen. Bestetik, esparru teoriko hau Euskadin egindako landa-lan kuantitatibo eta kualitatibo batetik elikatzen baita; lan horrek indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko loturan jartzen du arreta, eta dokumentu hau baliozkotzeko egin da, beste arrazoi batzuen artean.

13. SETEM Hego Haizea (2015): "Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa". Esparru teorikoa: 34-66. or. Hemen eskuragarri: http://www.setem.org/setem_ftp/euskadi/consumimosviolencia_estudio_eusk.pdf

2 | FUNTSEZKO KONTZEPTUAK

ZER JOTZEN DUGU INDARKERIA MATXISTATZAT?

Indarkeria matxistatzat jotzen ditugu emakumeak edo heteroarauaren erduetatik kanpoko edozein pertsona edo harreman diskriminatzen eta mendean jartzen dituzten eta, azken batean, haien askatasunari, duintasunari, segurtasunari, eta osotasun moral edo/eta fisikoari kalte egiten dioten ekintza guztiak (Almirón Prujel, 2009).


Gure hausnarketa kolektiboko prozesuan, eta esparru teoriko honetan, zehazki, arrazoi hauek zirela-eta hartu genuen “indarkeria matxistak” terminoa: (i) Euskadin errotuta dagoen kontzeptu bat da; (ii) indarkeria patriarkala, genero-indarkeria, emakumeen aurkako indarkeria eta indarkeria sexista barne hartzen ditu; (iii) sexua-generoa-sexualitatea eskemari¹⁴ buru egiten dioten pertsonen aurkako indarkeria matxista aztertzea ahalbidetzen du; (iv) haien kausa egiturazkoenetan ardaztutako begirada zabal bat planteatzen du indarkerien beren gain. Hartara, indarkeria matxistez pluralean hitz egiten dugu, indarkeriak hartzen dituen askotariko formak ikusgai bihurtzeko, indarkeria fisikoaz edo bikote barruan edo bikotekide ohiaren eskutik gauzatzen denaz gain.

Ildo horretan, Johan Galtung-en indarkeriaren triangelu zoroaren teoriak bide eman digu indarkeria matxistek zein mailatan/dimentsiotan funtzionatzen duten bistaratu eta aztertzeko. Ikuspegi horrek aditzera ematen du heteropatriarkatuak zuzeneko indarkeria, egiturazko indarkeria eta indarkeria kultural edo sinbolikoa bateratzen dituela triangelu zoro batean, eta horrela sendotzen dela eta “egitura oso iraunkorra izan dadin” eragiten dutela (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2012).

Triangeluaren erpinean zuzeneko edo ageriko indarkeria dago, hau da, pertsona baten gain berariaz eta agerian beste batek egiten duen eta kalte fisiko eta psikologikoak eragiten dituen ekintza oro (indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa eta ekonomikoa).

¹⁴. Halakoak hauek lirateke: “Intersex gorputzak, gorputz transgeneroak, homosexualak, lesbikoak, tradizioz esleitutako genero-eskemak apurtzen dituzten emakumeak eta gizonak (...) normaltasunaren parametro bihurtu den sexu/genero/sexualitate eskema patriarkalaren aldekarreko harreman aldaezinari beti buru egin diotenak” (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2014).

1. GRAFIKOA INDARKERIAREN TRIANGELU ZOROA



Triangeluaren oinarrian, bi indarkeria-mota daude, zeharkakoak edo ikusezinak. Batetik, egiturazko indarkeria dago, emakumeen mendekotasunari eusten dioten egitura politiko, sozial, ekonomiko eta politikoen multzoa, alegia¹⁵. Hor dugu, adibidez, pobrezia-aren feminizazioa. Bestetik, indarkeria kultural edo sinbolikoa dago; zuzeneko eta egiturazko indarkeriak legitimatzen eta naturalizatzen dituen da, halakoak bidezko, beharrezko edo ezin saihestuzkotzat interpretarazten baitituzte. Irudikapen kulturalak eta hizkuntzaz baliatuta, emakumeen edo hetero-arauz kanpoko beste edozein subjektuen mendekotasunari eusten dioten sinboloen multzoari dagokio, beraz.

Indarkeria matxisten dimentsio bakoitzak besteak indartzen ditu. Zuzeneko indarkeriak kalte egiten, beldurtzen eta zapaltzen du; egiturazko indarkeriak instituzionalizatu egiten du; eta indarkeria kultural edo sinbolikoa lotura hori barneratzen du, egitura oso iraunkor bihurturik. Beharrezkoa da, beraz, indarkeria matxistak beren dimentsio guztietan aintzat hartzea, haien artean sortzen den gurgil zorua hautsi ahal izateko, horrela.

¹⁵. Emakume guztiei buruz ari gara, emakume transgeneroak eta arauz kanpoko beste gorputz batzuk barne, analisi politiko zabalago batetik, baina emakumeak bereziki ikusaraztearen aldeko apustua ere eginez.

ZER JOTZEN DUGU KONTSUMOTZAT?

Hausnarketa kolektiboko prozesuan, kontsumoaK (pluralean) izan ditugu hizpide, honako hauek aipatzeko: (1) kontsumo kapitalista; eta (2) kontsumo kritikoa, arduratsu eta eraldatzailea (KKAE). Kontsumo kapitalistaz ari garenean, kontsumo gogorra, harrapakaria, ekozida eta desberdinkeria-sortzailea ari gara aipatzen. Gure egunerokotasunean dagoen kontsumo akritiko bat da, mozkinak metatzeko eta maximizatzeko kapitalismoaren logikari jarraitzen diona, eta ezagutzea eta KKAE batez ordezkatzeko proposatzen duguna. SETEMen kontsumo kritikoa, arduratsu eta eraldatzaile batez (KKAE) ari garenean, guk pentsatzen dugu halakoa dela erosteko edo ez erosteko ekintzak eraldaketa sozial bat sustatzen duenean eta produktuak edo zerbitzuak, kalitatearen eta prezioaren arabera ez ezik, irizpide etiko, kultural, sozial eta ingurumeneko batzuen arabera aukeratzen dituen, bidezkoenak eta jasangarritasun handienekoak eskura daitezkeen bultzatuta. Prozesu kolektiboak bi kontsumo-motei begiratu die, analisi hori abiapuntu, KKAEaren arabera lan egiten duten erakundeek hausnarketa eta ekintza orientatzeko.

Hala, Euskadin egindako esparru teorikoa zein diagnostikoa indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko loturan zentratu dira, sakon esploratu ahal izan gabe zer-nolako lotura duten KKAEarekin, zeinek pertsonen beharrianak estaltzeko beste eredu sozioekonomiko baten alde egiten baitu.

3 | AZTERTUTAKO KONTSUMO ESPARRU- AK ETA HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Sistema kapitalistaren kritika zentral horretatik eta eredu sozioekonomiko demokratiko eta ekitatibo bat garatzeko alternatiba gisa bizitzaren jasangarritasuna hartzen duen ikuspegi feministatik, kontsumo kapitalistaren 7 esparru aztertu ditugu (lau 2015ean eta hiru orain), indarkeria matxistak sortzen dituztenak:



2. TAULA AZTERTUTAKO KONTSUMO KAPITALISTAREN ESPARRUAK, INDARKERIA MATXISTEN SORTZAILEAK

NOIZ	AZTERKETA-ESPARRUAK
2015	<ul style="list-style-type: none">✓ Etxea (2): elikadura eta etxeko produktuak✓ Esparru pertsonala: estetika✓ Esparru publikoa: mugikortasuna
2018	<ul style="list-style-type: none">✓ Ikus-entzunezko aisia: fikziozko telesailak✓ Teknologiaren esparrua: telefonia mugikorra✓ Etxea: etxeetako energia-kontsumoa

Kontsumo kapitalistaren esparru horiek badituzte zenbait alderdi amankomunean, agerian jarri nahi ditugunak, prozesu guztiari koherentzia emate aldera:

- a. Prozesuaren hasieratik, kontsumotzat zer jotzen dugun nabarmendu izan dugu, erosteko erabakiak ez baitaude banakako erabakien mende soilik; aitzitik, kontsumitzean pertsonok ditugun ahalmen eta aukeretan eragiten dituzten egiturazko faktore batzuen arabera izaten dira erabaki horiek. Ildo horretan, zer kontsumitzen dugun bakarrik ez, hausnarketarako gai nagusizat orobat hartu dugu nola kontsumitzen dugun, erosteko erabakietan zein faktore eta mekanismok izaten duten eragina, kontsumitzen ditugun produktuak nondik datozen eta nola ekoizten eta banatzen diren, eta kontsumoaren bidez sistema kapitalistak zer mozkin lortzen dituen.

Aurretiako analisi horien ondorioz, egiaztatu dugu kontsumoan badi-rela aztertu eta mahaigainean jarri beharreko egiturazko gai batzuk, sistema kapitalistak dituen interesen eta lortzen dituen mozkinen sarea ulertuko badugu, askotariko indarkeria matxistak sortzen dituen sare bat, dokumentu honetan aditzera ematen dugunez.

Ikuspegi horretatik, KKAeko eredu baterantz aurrera egiteko, **uste dugu garrantzitsua dela ahalean oinarrituz hiru mailatan ekitea**¹⁶:

- ✓ **Aldaketa pertsonalaren ahala:** arlo pertsonaletik zer erabaki eta ekintza eraman ditzakegun aurrera, era kritikoago, arduratsuago, jasangarriago eta eraldaketarako tresnatzat balio duen batean kontsumitzeko.
- ✓ **Indar kolektiboaren ahala:** kolektiboki nola antolatzen garen, pertsonen bizitzarekin eta planetarekin errespetuz jokatzeko duen beste kontsumo-eredu bat sortzeko.
- ✓ **Joko-arauak aldatzeko ahala:** zein diren erantzukizun politiko eta ekonomikoak, kontsumo kapitalistak oinarri eta euskarritzat dituen egiturak aldatzeko garaian.

Prozesu honetan hautaturiko azterketa-esparruak konprezio-maila desberdinetan dauden arren, haiek guztiek badute inpaktu argia pertsonen bizitzan eta ondasun-metaketaren logika kapitalista indartzen dute.

¹⁶. Hiru ahalak kontsumoan txertatzeko era hori kontsumo kontziente eta eraldatzailean espezializaturiko Opcions, aldizkaritik aterea da.

b. Bestalde, prozesu fase berri honetarako azterketa-esparruak **oso zehaztuta dauden lau irizpideren arabera hautatu dira:**

- ✓ **Indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura:** hipotesiak aurreratzea ahalbidetuko ziguten azterketa-esparruak hautatu ditugu, esparru horietan kontsumoaren bidez eredu kapitalistak betikotzen dituen indarkeria matxistei buruzko hipotesiak, alegia. Gero egin den landa-lanean baliozkotu nahi izan ditugu hipotesi horiek.
- ✓ **Ikuspegi intersektionalaren zeharkakotasuna:** sexuaren, adinaren, jatorriaren eta egoera ekonomikoaren arabera kontsumo-ohitura desberdinak identifikatzea ahalbidetuko ziguten esparruak aukeratu ditugu, zapalkuntza-mekanismo eta indarkeria matxista zehatzak atzemateko xedez.
- ✓ **Sexu- eta genero-aniztasuneko ikuspegiaren zeharkakotasuna:** LGTBI+ kolektiboen zapalkuntzazko eta indarkeriazko egoera berezian sakontzea ahalbidetuko ziguten azterketa-esparruak aztertu ditugu, esparru horietako kontsumoari dagokionez, zehazki.
- ✓ **Bikoiztasuna saihestea:** hautaturiko azterketa-esparruak, genero-ikuspegitik aztertu diren arren, indarkeria matxistei lotutako azterketarik egin gabekoak dira kontsumo kapitalistaren gaineko begiradatik, prozesu honen barruan guk indarkeriok ikusten ditugun eran.

4 | NONDIK BEGIRATZEN DIOGU ERREALITATEARI?

- Feminismotik, bai, baina feminismoaren barruan –edo feminismoen barruan, pluralean– dauden joera batzuen zein besteen ikuspegiak eta kontzeptuak hartuz. Halakoak kontraesanean ere egon litezkeen arren, prozesu honetan parte hartutako erakundeon artean erabiltzen ditugun ikuspegi eta kontzeptuen aniztasuna nabarmendu nahiago izan dugu, eta joera batzuek eta besteek dakarzkiguten ñabarduren aldeko apustua egin dugu eta malguak izan gara, joera baten eta bestearen arteko muga saltatuta, askotan. Ikuspegi horretatik, feminismo deskolonialeatik egindako ekarpenak berreskuratu nahi ditugu, pentsamendu-joera eta mugimendu plural eta askotarikoen bidez, isilarazitako ahots feminista batzuen ondarea berreskuratzen baitute, eta feminismo hegemonikoaren barruan duten ikusezintasunari aurre egiten. Ildo horretan, prozesu honek bi aldetatik du lotura feminismo deskolonialekin: batetik, arlo akademikokoak ez diren beste jakintza batzuetatik abiatuz ezagutzak kolektiboki eraikitzeko prozesu bat planteatzen dugulako, askotariko begiradak jasotzen saiatuta bere planteamendu eta esparru teorikotik bertatik, parte-hartzezko prozesu bat ere zehaztuta, bai eta askotariko ikuspegiak txertatzen ikasten ari den analisi bat ere; bestetik, analisi feministari begirada interseksional bat aplikatu nahi dion prozesu bat delako.
- Sexu- eta genero-aniztasuneko ikuspegitik, baliozko tresna baita sexu/generoko binarismoa gainditzeko, hau da, generoa bi kategoria bakar eta kontrajarrira mugatzen dituen binarismoa: emakumeak eta gizonak. Nahia Taldeak¹⁷ azaldukoarekin bat etorrita, ikuspegi hori nagusi den ereduaren ordezkio alternatibatzat atzematen dugu; izan ere, heteronormatibitatea salatzen du, sexualitatea eta identitatea bizitzeko era bakar gisa, eta aukeraren planoan kokatzen da. Ikuspegi horrek, hartara, LGTBI+ pertsona eta kolektiboen eskubideak aldarrikatzeaz gain, aurrera egitea planteatzen du sexuaren, generoaren, genero-identitatearen nahiz sexu-orientazioaren inguruan ere eskubideak eta betebeharrak esplizitatzen dituen herritartasun-kontzeptu baterantz. Bestalde, interesgarria gertatu zaigu esparru teoriko honetan “bazterketaren triada”, kontzeptua sartzea, prozesu honetan parte hartu duten bi erakundek egindako ikerketa-prozesu

17. Nahia (2013): Los deseos olvidados. Genero eta sexu aniztasun ikuspegia Garapenerako Kooperazioan, Hiritartasun Globalerako Hezkuntzan eta etorkinek eta errefuxiatuek dituzten GGEEn sustapenean eta babesean. Bizkaiko Foru Aldundia.

batean Fernando Altamirak sortua¹⁸: SETEM Hego Haizea eta Mugarik Gabe¹⁹. Egilearen arabera, nagusi den eredu neoliberala, heteroarauzkoa eta etnozentrkoa da. Nagusitutako ereduaren hiru ezaugarri horiek elkarretaratu egiten dira, eta “bazterketaren triada” deritzona eratzen dute; kontzeptu horrek aditzera ematen du nola “nagusitutakoarekin” bat ez datorren subjektu, praktika, eredu, pentsamolde edo alternatiba oro “hegemonikoa” den horretatik baztertuta geratzen den, eta zapalkuntza- eta indarkeria-mota askoren azpian. Gure prozesuan, agerian utzi nahi dugu nola zaizkion berezkoak hiru ezaugarri horiek kontsumo kapitalistaren ereduari eta nola sortzen dituen horrek guztiak askotariko zapalkuntzak, emakumeentzat ez ezik, arauan sartzen ez diren pertsona guztientzat ere ondorioak dituztenak, hala nola transexual edo lesbianentzat.

- Interesekzionaltasunetik, honela definiturik: “askotariko eta aldibereko zapalkuntza-egiturak dituen sistema konplexu bat”, non sexuan, arrazan/etnien, adinean, sexu-orientazioan nahiz beste faktore batzuetan –pobrezia tartean dela– oinarrituriko diskriminazioak interakzioan baitaude eta indarkeria-agerpen ugari barne hartzen dituen continuum bat sortzen baitute (Muñoz, 2011). Intersekzionaltasunaren abiapuntua fenomeno sozialak kolektiboki eraikitzen direlako egiaztapen eta ziurtasuna dira (Mugarik Gabe, 2017). Horri dagokionez, ikuspegi honek ez ditu diskriminazioak batzen, baizik eta ahalbidetzen du “bazterketak non gurutzatzen diren eta subjektu zehatzei nola eragiten dien identifikatzea” (Platero, 2015), eta aldi berean aukera ematen du “nagusi diren taldeek boterea nola antolatzen duten aztertzeke” (Foucault, 1998).
- Bizitzaren jasangarritasunetik, alegia, pertsonen eta beste izaki bizidun batzuen beharrianak planetaren muga biofisikoen barruan estaltzea ardaztat duen gizarte-eredu berri baten ikuspegitik. Pentsabide hori osatzen duten ikuspegi ugarien artean –eta berritasun gisa, azterlanaren lehen fasearen aldean (2015)– Ekonomia Politiko Feministaren ekarpenak nabarmendu nahi ditugu²⁰; izan ere, haren helburu nagusia da identifikatzea merkatuaren/ekoizpenaren logika nola sostengatzen den “ekonomikotzat” jotzen denarekiko loturarik gabeko prozesu batzuetan. Horretarako, diziplina horren proposamena hau da: i) ikuspegi etikoa txertatzea²¹ azterketa ekonomikoan, eta bizitzaren zaintzan zentratua; eta ii) diziplinartekotasuna beste jakintza/pentsamendu-adar batzuekin. Horri dagokionez, Ekonomia Politiko Feminista prozesu honekin lotuta dago, kontsumo kapitalista giza bizitzaren eta planetaren jasangarritasunaren aldetik aztertzen dugulako, eta arloak/diziplinak elkarri lotuz aztertzen dugu, gainera, hala nola ekonomia sozial eta solidarioa eta analisi feminista, kontsumoetan indarkeria matxistarik ez berrekoizteko.

18. Iturria: Altamira Basterretxea F. (2017): Bailando con el deseo. Algunas claves para incorporar la diversidad sexual y de género en las ONGD. Cuadernos de investigación en procesos de desarrollo, 19.

19. Ikerketak helburu hauek zituen: i) Sexu- eta genero-aniztasunaren errealtatea identifikatzea SETEM Hego Haizean eta Mugarik Gaben; ii) sexu- eta genero-aniztasunak lankidetzak kritikoko proposamenekin dituen loturak aurkitzea; iii) eta GGKE-en arloan sexu- eta genero-aniztasuna aintzat hartzeko ildoak proposatzea. Lorturiko emaitzak argitalpen honetan jaso dira: Altamira Basterretxea F. (2017): Bailando con el deseo. Algunas claves para incorporar la diversidad sexual y de género en las ONGD. Cuadernos de investigación en procesos de desarrollo, 19.

20. Agenjo Calderón A. (2016): Repensando la economía feminista desde las propuestas de(s)coloniales. Revista de economía crítica, 22.

21. Azterketa sozioekonomikoan dimentsio etikoa aplikatzea printzipio hauetan oinarritzen da, besteak beste: desunibertsalismoa; gizartearen heterogeneotasuna; giza aniztasuna; genero, klase, arraza, etnia eta abarren arteko desberdintasunak. (Agenjo, 2016).

- Giza eskubideetatik, indarkeria matxistak –dituzten agerpen guztietan– eskubide horien urraketa baitira. Nazioarteko esparruan emakumeen eta LGBTBI+ kolektiboen eskubideak pixkanaka txertatu izana posible izan da mundu guztiko kolektibo feministen aldarrikapenei esker, eta funtsezkoa izan da indarkerien izaera kolektibo eta politikoa ikusarazteko eta Estatuaren erantzukizuna eskatzeko, fenomeno hori desagerrarazteko (Mugarik Gabe, 2017). Ildo horretan, giza eskubideei dagokienez prozesu honek hartzen duen ikuspegiak nazioarteko esparru bat ematen digu, azterketa-esparruei nahiz aukeraturiko ikuspegiei legitimotasuna ematea ahalbidetzen diguna: sexu- eta genero-aniztasunari lotutako sexu- eta ugalketa-eskubideak; etxeetako energia-kontsumoari lotutako bigarren belaunaldiko eskubideak, eta abar.

5 | INDARKERIA MATXISTAK:

Ondorio larriak dituen fenomeno sistemikoa eta konplexua

Atal honetan, 2015ean jada azaldu genituen²² indarkeria matxisten fenomenoaren historia eta konplexutasuna, horren inguruko datuak ere emanda. Oraingoan, eta lehen aipatu bezala, ikuspegiak zabaldu eta gero, hausnarketa bat eta datu berriak eman nahi ditugu indarkeria matxisten agerpenen errealitateari buruz, sexu- eta genero-aniztasunaren arloan.

SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA ETA INDARKERIA MATXISTAK

Prozesu honetan indarkeria matxisten inguruan erabiltzen dugun kontzeptua dela eta, gizona/emakumea binomioan eta arauzko heterosexualitatean egokitzen ez diren gorputz eta identitateen gain gauzatzen diren indarkeria horiek guztiak jarri behar ditugu mahaigainean. Ildo horretan, lesbofobia eta transfobia indarkeria matxisten agerpentzat jotzen ditugu, beste agerpen batzuen artean.

Amnistia Internazionalaren giza eskubideen munduko egoerari buruzko 2017/18ko txostenaren arabera²³, Ekialdeko Europako eta Erdialdeko Asiako gobernu guztiak “balio tradizionalen” diskurtsoa baliatu zuten jarrera xenofobo, homofobo eta misoginoak bultzatzeko herritarren artean. Tajikistanen, diskurtso bera erabili zen LGTBI+ kolektiboen jokabideak amoraltzat jotzeko.

Espainiako estatuan, gorroto-delituei lotutako gertakariak Espainian izandako bilakaerari buruz Barne Ministerioak egin zuen txostenaren arabera²⁴, 2016. urtean gorroto-delitu mota guztiak gutxitu ziren, salbu eta arauz kanpoko funtzionaltasunari, sexu-orientazio edo -identitateari eta sexuan/generoan oinarritutako diskriminazioari lotutakoak, halakoak % 15,9, % 36,1 eta % 70,8

22. SETEM Hego Haizea (2015): “Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa”. Esparru teorikoaren atala: Hemen eskuragarri: http://www.setem.org/setem ftp/euskadi/consumimosviolencia_estudio_eusk.pdf

23. Amnistia Internazionala (2018): Giza eskubideen munduko egoerari buruzko txostena. Hemen eskuragarri: <https://www.ehu.es/documents/1734204/9225412/Informe-2017-2018-Amnistia-Internacional.pdf/9f408650-4141-1cfc-f218-b1818d0a040b>

24. Barne Ministerioa (2016): Evolución de los Incidentes relacionados con los delitos de odio. Hemen eskuragarri: <http://www.interior.gob.es/documents/10180/5791067/ESTU-DIO+INCIDENTES+DELITOS+DE+ODIO+2016.pdf/c5ef4121-ae02-4368-ac1b-ce5cc7e731c2>

gehitu ziren-eta, hurrenez hurren. Hain zuzen ere, 2016an sexu-orientazio edo -identitateari lotutako 260 delitu zenbatu ziren, eta 2015ean, ordea, 169 izan ziren. Gorroto-delitu gehien izan zituzten autonomia-erkidegoak Katalunia, Madrilgo Erkidegoa eta EAE izan ziren.

Bestalde, gorroto-gertakariak Espainian, 2017an, izaniko hedabide-estaldurari buruz LGBTfobiaren aurkako Espainiako Behatokiak egin duen txostenaren arabera²⁵, Espainiako estatuan 54 gorroto-gertakari erregistratu ziren, eta haien artean gehienak (% 46) eraso fisikoak izan ziren, eta % 25, hitzezko erasoak. Homofobiak gertakari horien % 57 eragin zuen, transfobiak, % 20, eta diskriminazio anizkoitzak, % 19.

Horrez gain, Euskadiko nerabeek aniztasun afektibo-sexualaren inguruan duten sentsibilizazio-maila jakitearren, Eusko Jaurlaritzak 2016an egin zuen *Lesbofobia, homofobia eta transfobia hezkuntza-sisteman*²⁶ ikerketaren emaitzek aditzera ematen dute, nerabeek ageriko jokabide fobikorik erakutsi ez arren, kolektibo horretan badiraute fobia sotilago batzuek, halakoen artean, esate baterako, sexu bereko pertsonen arteko afektu-adierazpenen aurrean deseroso sentitzea dagoela. **Fobia horiek honela sailkatu dira:**

- **FOBIA KOGNITIBOAK**, LGTBI+ kolektiboen inguruko aurreiritziei loturik; esaterako, homosexualitatea eta lesbianismoa moda-kontua direlako ideia. Lesbianen kasuan, gainera, feminitaterik ezarekin lotzen dira. Bisexualitatea promiskuitate edo bizioarekin lotu ohi da. Transexualitateak nahasmendua sortzen du, eta intersexualitatea ia ez da ezagutzen.
- **FOBIA AFEKTIBOAK**, kolektibo horienganako sentimendu negatiboei lotuta. Dena dela, neskek onarpen handiagoa erakusten dute sexu- eta genero-aniztasunaren inguruan; mutilek, aitzitik, errezelo gehiago dituzte.
- **JOKABIDEZKO FOBIAK**, inkesta egin zitzaizen nerabeek kolektibo horien aurkako arbuio-jarrerarik agertzen ez duten arren, ikerlanean parte hartu duten LGTBI+ nerabe gutxiak baieztatu dute adinkideek irain eta mehatxu egin izan dietela hainbatetan.

25. *LGBTfobiaren aurkako Espainiako Behatokia (2017): Informe de Incidentes de Odio en la Cobertura Mediática en España en 2017. Hemen eskuragarri: <http://www.stoplgbtfobia.org/wp-content/uploads/2018/05/INFORME-INCIDENTES-DE-ODIO-ESPA%C3%91A-2017.pdf>*

26. *Eusko Jaurlaritzak (2016). Lesbofobia, homofobia eta transfobia hezkuntza-sisteman. Hurbilketa kualitatiboa. Hemen eskuragarri: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/28junio_diainternacional/es_documento_adjuntos/InformeLGTBfobia.pdf*

ARAZOARI IZENA JARTZEN

Urteetan zehar, indarkeria matxistei buruzko hainbat termino eta definizio existitu dira aldi berean, eta existitzen dira. Garrantzizkoa da argi izatea **termino eta definizio bakoitzaren azalpen-esparrua desberdina dela eta, beraz, prebenitzeko, desagerrarazteko eta laguntza emateko proposatzen dituen estrategiak ere desberdinak direla.**

Lehenago esan dugunez, indarkeria matxisten gaineko begirada zabal batetik lan egiten duen ikuspegi batekin gatoz bat, desberdinkeria indarkeria- eta diskriminazio-eratzat ikusita, indarkeria sistema heteropatriarkalaren tresnatzat jotzen duen ikuspegi batekin, hain zuzen, genero-desberdinkeriak eta emakumeen nahiz arautik eta ezarritakotik ihes egiten duen edozein subjektoren zapalkuntza ezarri, sendotu edo betikotzeko.

Indarkeria matxistak, gainera, fenomeno sistemiko eta konplexutzat ikusten ditugu, eta kausa anitzeko fenomenotzat jorratu behar dela uste dugu. Johan Galtungek²⁷ sortu zuen indarkeriaren triangelu zoroa zenbait feministak esploratu eta erabili dute lehen ere, eta hark bide emango digu indarkeria matxistek zein mailatan/dimentsiotan funtzionatzen duten (halakoak ez dira nahastu behar indarkeria-motekin edo haren agerpenekin) eta mailen artean zer-nolako lotura konplexua dagoen bistaratu eta aztertzeko. Ikuspegi horrek aditzera ematen du heteropatriarkatuak zuzeneko indarkeria, egiturazko indarkeria eta indarkeria kultural edo sinbolikoa nahasten dituela triangelu zoro batean, eta horrela sendotzen dela eta “egitura oso iraunkorra izan dadin” eragiten dutela (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2012).

Azkenik, berretsi behar dugu, gure ikuspegitik, indarkeria matxisten jatorria menderakuntza-egitura patriarkal eta androzentrikoetan dagoela, eta egitura horiek desberdinkeria legitimatzen dutela, bai eta emakumeen aurkako nahiz eredu heteropatriarkalaren mugetatik kanpo mugitzen den subjektu ororen aurkako indarkeria ere. Horrela, botere-desberdinkeriak betikotzea ahalbidetzen duen sistema heteropatriarkalaren muturreko agerpentzat ikusten ditugu.

²⁷. Norvegiar matematikari eta soziologoa, Oslon 1930. urtean jaioa, aitzindaria bakeari eta gatazka sozialei buruzko azterketan.

6 | SISTEMA KAPITALISTAREN ETA SISTEMA HETEROPATRIAR- KALAREN ARTEKO ALIANNTZA

Bizitza indarkeriaz bustitzen

Indarkeria matxistak ez dira fenomeno soltea; aitzitik, haiek justifikatzen, legitimatzen eta betikotzen dituzten egitura kultural, sozial eta familiar batzuen esparruan gertatzen dira. Sistema kapitalista da egitura horietako bat, generodesberdinkeriak gauzatzen eta betikotzen dituelako (haietatik elikatzen da eta funtsezkoak dira sistemari eusteko), binomio heteropatriarkalari eusten diolako, eta indarkeriak ahalbidetzen dituelako. Eta hori guztia kapitala-bizitza gatazkaren bidez egiten du, eta hainbat tresnaren bidez, hala nola kontsumoaren bidez.

Ekonomia sozial eta solidarioak, kapital-bizitza gatazka ikusarazteko, proposamen hori eta ekonomia kapitalista desberdintzen dituzten hurrengo dimentsioak baliatzen ditu:



3. TAULA EKONOMIA KAPITALISTAREN ETA EKONOMIA SOLIDARIOAREN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

Ekonomia solidarioa	Ekonomia kapitalista
✓ Ekonomia pertsonen zerbitzura	✓ Pertsonak ekonomiaren zerbitzura
✓ Berdintasuna eta horizontaltasuna	✓ Desberdinkeria eta bertikaltasuna
✓ Lankidetzeta eta inklusioa	✓ Lehia eta bazterkeria
✓ Aurrerapenaren kontzeptu zabal eta plurala	✓ Aurrerapenaren kontzeptu bakarra
✓ Onura soziala	✓ Onura finantzarioa
✓ Kolektibismoa	✓ Indibidualismoa
✓ Ingurune sozialarekiko konpromisoa	✓ Ingurune sozialarekiko loturarik ez
✓ Ingurumenarekiko konpromisoa	✓ Ingurumenarekiko loturarik ez
✓ Ekimen eta parte-hartze soziala	✓ Erantzukizun eta parte-hartze sozialik ez
✓ Erakunde txiki eta ertainak	✓ Enpresa transnazional handiak

KAPITAL-BIZITZA GATAZKA

Pentsabide eta ekinbide askok sistema kapitalista bizitza –pertsonea zein pertsonena ez dena (natura)– esplotatzen eta suntsitzen duen sistematzat identifikatu dute, eta mozkin potentziala dagoela susmatzen duen edozein bizi-esparrutan bere tresna guztiekin indarrez sartzen den sistematzat. Ekonomia feministak eta ekofeminismo kritikoak kapitalismoaren berezko mozkin-metaketa-aren –batetik– eta giza bizitzaren eta naturaren zaintzaren –bestetik– artean dagoen kontraesana salatu dute. Zehazki, salatu dute nola sostengatzen den sistema kapitalista gizakiaren ustezko nagusigo batean, eta bereziki gizonarenean (antropozentrismoa eta androzentrismoa), ez bizitzaren kalteberatasuna, ez gure interdependentzia eta ekodependentzia aintzat hartzen ez dituen garapen-eredu bat abian jartzeko.

Sistema hori izugarri bidegabea da maila askotan, eta bereziki gutxiengo baten garapena planetako biztanleen gehiengo baten bazterketan eta prekaritatean oinarritzen denez gero. Horri dagokionez, feminismoek egiten dituzten funtsezko kritiketako bat kontsumismoan²⁸ oinarrituriko Mendebaldeko bizimoduaren ingurukoa da, ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa etengabe handitzeko beharra bultzatzen duelako, jasagarria ez den maila bateraino, planetako biztanleriaren zati handien ongizatearen kaltean.

Eta sistema heteropatriarkalarekiko aliantza maltzurak egiten du posible hori guztia, ikusezintasunera eta feminizaziora gehien lerrarazitako ekonomia-esparruen gain uzten baitu bizitzaren zaintza. Merkatua da garrantzitsuena, eta eremu horretatik nahiz diru-transakzioetatik kanpo geratzen den oro baztertu egiten da. Logika horretan da, hain zuzen, etxeko eta zaintzako lana guztiz beharrezkoa bizitza mantentzeko, baina lan hori ezkutatua geratzen da, nahiz eta, badakigunez, sistema bera existitzea zuzenean emakumeen doako eta aitortu gabeko lanaren mende egon.

Ildo horretan, sistema kapitalista eraikitzen da hainbat esparruren (publikoa / pribatua, etxekoa), lanen (ekoizpena / berrekoizpena, zaintza) eta pertsonaren (gizonak / emakumeak, heteroarauz kanpoko beste subjektu batzuk) arteko botere-desberdinkeria-aren gainean. Horrela, sistema kapitalista eta sistema heteropatriarkala estu uztaertuta daude eta biak ala biak sostengatzen dira indarkeriari eta naturaren zein pertsonen –konkretuki, emakumeen– esplotazioari esker.

²⁸ Esparru honetan kontsumo kapitalista hizpide hartzea aukeratu dugu, kontsumismoaren ideiarekin loturikoa, biek eusten baitiote kapitalismoari. Fernández Mirandaren arabera (2015), kontsumoa berezko xedetzat hartzen duen eredu bat da kontsumismoa; hautemandako beharra, erosten den objektuarekin baino gehiago, erosteko ekintzari berarekin dago loturik. Egile horren aburuz, praktika horren atzean kontsumo-gizartearen ideia- eta balio-sistema bat dago, zentzua ematen diona: dena bihur daiteke salgai eta dena erabil daiteke halakotzat.

KONTSUMO KAPITALISTA: DESBERDINKERIAK BETIKOTZEN ETA BIZITZA JASANGARRIA GALARAZTEN

ZarenSare-EnRedando sareak aditzera ematen duenez, sistema kapitalista, bere oraingo etapan, kontsumo-gizartean sostengatzen da eta, hala, egile batzuek kontsumoaren kapitalismoa esaten diote. Kontsumo-gizartea oinarritzen da, batetik, pertsonen beharrianak ondasun eta zerbitzuen kontsumoaren bidez estaltzea posible delako idealean, eta, bestetik, negozio-nitxo bihur daitezkeen dimentsio guztiak merkantilizatzeko joeran, bizitzaren zaintzari lotutakoak kasu. Horrela, merkantilizatuz, sexuaren araberako lan-banaketa ez apurtzeaz gain eta zaintzak bizitza mantentzeko duen zentraltasunaren ikusezintasuna eta aitormenik eza ez aienatzeaz gain, zaintza kapitalismoaren logikari egokitzea lortzen ari da. Alde batetik, mozkin-metaketari ematen zaio nagusigoa, pertsonen beharrianak ekitatez eta kalitatez estaltzea bilatu ordez; eta, beste aldetik, arlo pribatuko desberdinkeriak merkatuan berrekoizten dira: balio gutxiago, ikusezintasuna eta abar.

Halako dinamikak balio batzuk direla medio sostengatzen eta betikotzen dira, hala nola: mugarik gabeko ekoizpena eta metaketa; independentzia, ekodependentziaren eta interdependentziaren ordez; indibidualismo hedonista; etnozentrismoa, beste mundu-ikuskerara eta balio batzuk ikusezin bihurtu eta zapalduta; eta homogeneizazioa, globalizazioak saltzen duen desberdintasunen ustezko balioespenaren ordez. Azken batean, ondasun eta zerbitzuek berek garrantzia galtzen dute, haien helburua ez baita xedetzat ustez dituzten pertsonen beharrianei erantzutea; horren ordez, kontsumoa bera lehenesten da, “banakoen zein guztien ongizate eta zorion handiagoa lortzeko” bide gisa (Orellana, 2007); oso balio eztabaidagarritz kargaturiko kontsumo bat da hori.

7 | INDARKERIA MATXISTEN ETA KONTSUMO KAPITALISTAREN ARTEKO LOTURA

Argitu behar dugu, ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektibo honetan, kontsumoaren kate-mailan zentratu garela, nahiz eta badakigun kontsumoa zati bat dela ekoizpen, merkaturatze, banaketa, kontsumo eta hondakin-bazterketako kate luzeago batean eta kate horrek kontsumoa barne hartzen, azaltzen eta konplexu bihurtzen duela. Kate horretan desberdinkeriak gertatu eta berrekoitzi egiten dira, eta etapa guztietan dauzka indarkeria matxistak ezkutaturik, gure ikuspuntutik. Hortaz, pentsatzen dugu kontsumoaren eta indarkeria matxisten arteko lotura hori osatu ahal eta behar dela gure prozesuan aztertu ez ditugun beste kate-maila horien analisiaren bidez ere.

Hausnarketa egiteko eta ikasteko gure prozesu kolektiboan indarkeria matxistez darabilgun ikuspegi zabaletik, indarkeria matxistak ahalbidetzen eta/edo betikotzen dituzten kontsumo kapitalistaren esparru edo tresna batzuk identifika daitezke.

Esparru teorikoaren atal honetan, halakoak izendatu eta agerian jarri nahi ditugu, Euskadin abian jarri dugun diagnostiko-lanean zehar haiek agerraraztea eta aztertzea errazagoa izan dadin. **Hona hemen genero-desberdinkeriak eta indarkeria matxistak aztertzeko orain aurkeztu ditugun kontsumo-esparruak:**



IKUS-ENTZUNEZKO AISIA
FIKZIOZKO TELESAILAK



TEKNOLOGIA-ESPARRUA
TELEFONIA MUGIKORRA



ETXEA
ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOA

Esparru bakoitzari buruz sarrera laburra eman ondoren, koadro batean kritika feministaren aldetik duten interesa eta prozesuan atzeman diren indarkeria matxista potentzialak azaltzen ditugu. Gero, xehekiago azaltzen ditugu koadroan aipaturiko indarkeriak, hobeki uler daitezten.



IKUS-ENTZUNEZKO AISIA

FIKZIOZKO TELESAILAK

Fikziozko telesailen esparruan, zer kontsumitzen dugun gehien, eta nola, hartu dugu ardaztat, populazio-profilaren arabera. Halaber, zer-nolako diskurtsoak/edukiak sustatzen dituzten aztertu dugu, eta halakoek zer inpaktu duten identitate indibidual eta kolektiboaren eraikuntzan, generoko eta sexu-aniztasuneko ikuspegi batetik. Abiapuntu dugun hipotesia da gehien ikusitako eta arauzko telesailek genero-estereotipoak berrekoizten dituztela eta azken horiek, halaber, badutela inpaktua identitate indibidual eta kolektiboaren eraikuntzan, eta indarkeria matxistak berrekoizten dituztela.

Izan ere, produktu horien indarraren funtsa da –proposatzen dituzten kontakizunen bidez– gertaerak errealtate ikusgai eta kontrastatu bihurtzen dituztela eta bizimodu-eredu zehatzak sustatzen dituztela. Ikus-entzunezko produktuak, oro har, eta telesailak, bereziki, balio-sustatzaileak dira, beraz. Nabarmendu behar da Chesebrok (2003) egin zuen ikerketa; hala, 1974tik 1999ra bitartean 1.365 telesail aztertu eta gero, aditzera ematen du telesail horiek berariaz osatutako mezu batzuk banatzen dituztela, pertsonaien eta kontakizunen bidez bizimodu-eredu jakin batzuk sustatzeko xedez.



4. TAULA INDARKERIA MATXISTA POTENTZIALAK FIKZIOZKO TELESAILEN KONTSUMOAN

Analisi kritiko feministatik duen interesa	Indarkeria matxista potentzialak fikziozko telesailen kontsumoan
<p>Fikziozko telesailak “gizarte-ereduen eraikitzailetzat” jo ditzakegu, beren narrazioen bidez gizartean balio, jokabide eta arau batzuk eta estetika bat zabaltzen baitituzte. Homogeneizazio kulturalerako joera dute, hegemonikoak ez diren errealitate, mundu-ikuskerak eta kulturak ikusezin atxikitzen baitituzte. Soziki onartutako genero-rol eta -estereotipoak zabaltzen dituzte, eta indarkeria normalizatzen dute, eta erabiltzera bultzatzen dute. Sexu- eta genero-aniztasuna ikusezin atxikitzen dute, eta “normalizat” hartzen ez denaren irudi estereotipatu bat zabaltzen dute.</p> <p>Telesailak, beraz, sistema kapitalistaren tresnatzat jo daitezke, eta tresna horrek gizarte heteropatriarkalaren ereduak berrekoizten du, balio sexistaz, xenofoboz, misoginoz eta indibidualistaz josia.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zuzeneko indarkeria: frustrazioa, konplexuak, bakartzea, depresioa, segurtasunik eza, etab., identitate eta gorputz “ez-idealak” baztertzearen ondorioz (lodifobia, kapazitismoa²⁹, etab.). Edertasun-ereduak berrekoizteari lotutako gaixotasunak: anorexia, bulimia, etab. ✓ Indarkeria sinbolikoa: gorputz eta identitate idealak irudikatzea; aniztasunaren eta borroka sozialen instrumentalizazioa; publizitate zuzendua, sexista eta baztertzaila; kontakizun bakar baten eraikuntza; jakintzaren kolonizazioa; desberdinkeriaren instrumentalizazioa eta erabilpena. Emakumeen eta LGTBI+ kolektiboen aurkako indarkeriaren naturalizazioa eta normalizazioa. ✓ Egiturazko indarkeria: pinkwashinga³⁰; eredu sexista, patriarkal eta heteroarauzkoak berrekoiztea.

29. Kapazitismoa araz kanpoko funtzionaltasuna duten pertsonen aurkako diskriminazio soziala da.

30. Pinkwashing “terminoaren bidez nabarmentzen da marka jakin batzuek, LGTBI mugimenduekiko sinpatizazioaren bidez, kontsumitzaileak irabazteko erabiltzen duten marketin-estrategia, kritikoki kapitalismo arrosa deitutakoaren barruan”. Definizioa *Pikara Magazine* aldizkari feminista digitaletik hartu da. Kontzeptuari buruz gehiago jakiteko, jo web-orrialde honetara: <https://www.pikaramagazine.com/2017/03/pink-washing/>

ZUZENKO INDARKERIA



- > Sustatzen dituzten edertasun-, identitate- eta arrakasta-ereduak oso homogeen eta estereotipatuak izaten dira. Gizonezko zein emakumezko protagonisten bereizgarria izaten da erakargarritasun fisiko eta/edo psikologiko handikoak izatea, eta arrakasta handikoak, nola lanean hala bizitza sozialean. Nahiz eta pertsonaien artean aniztasun handiagoa ikusten hasia den, aniztasun hori, berriz ere, errealitate alegiazko eta estereotipatu bati dagokio, gorputzen, identitateen, bizimodu-ereduen, eta abarren aldetik.

Horrek guztiak inpaktu argia du emakumeen nahiz heteroarauz kanpoko beste edozein subjektuen osasunean, ideal horiek lortzeko dauden zailtasunak direla medio; zailtasun horiek, azkenean, frustrazioa, konplexuak, bakartzea, depresioa, eta segurtasunik eza sortzen dituzte, bai eta beste gaixotasun batzuk ere, hala nola anorexia, bulimia, eta abar.

INDARKERIA SINBOLIKOA



- > Proposatzen duten narrazioak errealitate definitu bat eraikitzen du, familia-mota jakin bat, gizona izateko, emakumea izateko, sexualitatea eta harremanak bizitzeko era jakin bat. Narrazio-mota hori genero-estereotipoetan oinarritzen da, eta areagotu egiten ditu. Ikuspegi horretatik, publizitateak jokatzen duen rola eta fikziozko telesailak jokatzen duten rola arteko antzekotasunak identifikatu ditugu, feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntza kultural eta sozialari dagokienez nahiz indarkeria matxistak erabiltzeari dagokienez: sexu-objektutzat hartutako emakumeen estereotipoa; ezin lortuzko eta desitxuratutako edertasun-ereduak; androzentrismoa, eta abar.

Horrez gain, narrazio hori “bakartzat” definitu dugu, beste testuinguru kultural eta geografiko batzuetako errealitateak ikusezin atxikitzean, eta, errealitateok sartzen direnean ere, era bakar batean aurkezten dira: sistema kapitalistari interesatzen zaizkion elementuak hartuz eta, atzera ere, halakoak estereotipatu. Aniztasuna aurkezteko modu horrek desberdinkeriak mantendu eta areagotu egiten ditu. Horri dagokionez, Chimamanda Ngozi Adichek *El peligro de una historia única (Historia bakar baten arriskua)* bere liburuan adierazten duen hausnarketa:

“Horrelaxe sortzen da historia bakar bat, herria gauza bakar gisa erakusten da, gauza bakar bat, behin eta berriz, eta azkenean horixe bilakatzen da. Ezinezkoa da kontakizun bakarrak hitz egitea, botereaz hitz egin gabe. (...) Kontakizun bakarrak estereotipoak sortzen ditu, eta estereotipoen arazoa ez da faltsuak izatea, osatugabeak izatea baizik. Kontakizun bat kontakizun bakar bihurtzen dute. (...) Kontakizun bakarraren ondorioa hau da: pertsonak beren duintasunaz gabetzen ditu. Geure gizatasun komuna ezagutzea zailtzen digu. Zertan garen desberdin nabarmentzen du, zertan garen antzeko nabarmendu ordez”.

Chimamanda Ngozi Adiche

Aurrekoari loturik, arazo sozial handiak ezkututzen dira: **desberdinkeriak, pobrezia, bazterketa soziala, herrialdeen arteko hierarkia, eta bizitza-esparru guztien zein pertsonen arteko harremanen prekarizazioa eta pobretzea**. Halakoek pertsona guztiei eragiten dieten arren, eragin handiagoa izaten dute emakumeengan eta sisteman egokitzen ez diren pertsona edo kolektiboengan: LGTBI+, araz kanpoko funtzionaltasuna duten pertsonak, etab.

LGTBI+ kolektiboak ikusezin atxikitzea eta/edo instrumentalizatzea: gure hipotesia da telesailik arauzkoenak LGTBI+ kolektiboak ikusezin atxikitzen dituztela, sexualitatea bizitzeko era bakarra sustatzen dute-eta, non emakumeen eta gizonen arteko harreman asimetrikoak baino ez baitira sartzen. Beste kasu batzuetan, kolektibo horiek instrumentalizatu egiten dira, era estereotipatu batean aurkeztuta eta kontsumo-objektu bihurtuta, gainerako kontsumo-objektuen artean. Aipatu berri dugunaren adibide bat da *Modern Family* telesaila. Pertsonaien artean, gizon gayen bikote bat dago, baina bikote heterosexual -hori ere estereotipatu- baten rol “tipikoak” betetzen aurkezten dira bikotekideak. Horretan, sexu-aniztasuna karikaturizaturik dago.

EGITURAZKO INDARKERIA



- > Telesailek androzentrismo kulturala eta nahitaezko heteronormatibitatea berrekoizten dituzte; izan ere, esan dugunez, feminitatearen eta maskulinitatearen irudikapen estereotipatua zabaltzen dute, non garrantzia hartzen baitute gorputzaren, edertasunaren, gaztetasunaren, indarkeriaren, boterearen eta lehiaren gurtzak eta adimenaren mespretxuak (Menéndez eta Zurian, 2014).

AUKERAK

Fikziozko telesailen kontsumoan dauden indarkeria matxisten analisia bukatzeko, atal honetan agerian jarriko ditugu ikuspegi feministatik ikus-entzunezko ekoizpenean gertatzen ari diren aldaketak, merkatuan ezaugarri hauek dituzten telesailak sartzean:

- Ekoizpenaren arloan, gero eta emakume ekoizle gehiago dago, eta aktoreen artean emakumeen presentzia handiagoa atzematen da, bai eta aniztasun handiagoa ere, adinaren zein jatorriaren aldetik. Gorputzen eta orientazioen aldetik ere bai, baina hori puntualagoa da, beharbada.
- Nabarmendu behar dira, halaber, Me Too mugimenduaren bidez hainbat emakumezko aktorek egindako aldarrikapenak, agerian jarri baitituzte ikus-entzunezko ekoizpenaren arloko jazarpena eta sexu-indarkeria.
- Bestalde, gero eta gehiago ari dira ekoizten izaera feministako telesailak, hala nola *Transparent* edo *Girls*; alabaina, halako telesailak ordainpeko entretenimendu-plataformetan egoten dira, Netflix, Amazon edo HBOn, esaterako.
- Era berean, telesail-mota edozein dela (feministak edo arauzkoak), gero eta aniztasun handiagoarekin irudikatzen dira emakumeak, ikertzaile edo profesional gisa (aurreko hamarkadetan, aldiz, emakumeak etxeoandre gisa antzezten zirenean).
- Azkenik, edukiei dagokienez, fikziozko telesailen kontsumitzaileok gero eta gehiagotan topatzen ditugu fenomeno jakin batzuk aintzat hartzen dituzten proposamenak, hala nola desberdinkeriak, indarkeriak, amatasuna, gorputza, eta sexu- eta genero-aniztasuna.

Aldaketa horiek gorabehera –positiboak, ezbaierik gabe–, interesgarria da proposamen horien inguruan egiten den kritika feminista azaltzea, badagoelako zalantza bat ea telesail horiek –ekoizteko eretan nahiz proposatzen diren edukietan– gertatzen ari den aldaketa baten hasiera diren ala merkatu-kuota txiki bat diren, gero eta zabalagoa den merkatu batean, ikus-entzunezko industrian, igartzekoa denez, eragin eskasa izango duena.



TEKNOLOGIA-ESPARRUA

TELEFONIA MUGIKORRA

Telefonia mugikorraren kontsumoari buruzko azterketa beraren erabileran zentratzea erabaki dugu, mugikorra nola erabiltzen dugun, zertarako, eta gure bizitzan zer inpaktu dituen galdeturik.

Espainiako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak emandako datuen arabera³¹, azken bi hamarkadetan informazio eta komunikazioko sistemek izan duten garapenak munduko biztanleriaren zati handi baten bizi-ohiturak aldatu ditu. Teknologiaren eta komunikazioen industriak gero eta malgutasun handiagoa du, eta irekia da merkatuaren beharrezanezi begira; hori dela eta, pertsonak gero eta konektatuago gaude gailu teknologikoen bidez³². **Gailuok bide ematen digute gure kontsumo-ohiturak eta bizimoduak mundu modernoak eskaintzen dizkigun aukerei egokitzeko: ordaintzeko metodo berriak; erakundeekin izapideak egitea; denbora errealeko bestelako komunikazio bat ahalbidetzen duten aplikazioak erabiltzea; eta abar.**

Hala ere, gailu teknologikoak eta mundu digitala eskura izateko aukerak **desparekotasun sakona gertatzen da**. Eurostaten 2015eko datuen arabera, Espainiako estatuan bizi den populazioaren % 21ek ez du Interneten sartzeko aukerarik. Genero-ikuspegitik, zenbait azterlan bat datoz arrakala digitala gutxitzen ari dela sartzeko aukerari, erabilerari eta trebetasun informatikoei dagokienez; dena dela, azterlan horien arabera, orobat, teknologien eta Interneten erabilera zenbat eta intentsiboagoa izan, hainbat eta handiagoa izaten da sexuen eta belaunaldien arteko arrakala (Arenas, 2011).

³¹. *Espainiako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua (2017): Nuevos hábitos de consumo, cambios sociales tecnológicos. Hemen eskuragarri: <http://www.ces.es/documents/10180/3557409/Inf0416.pdf>*

³². 2015. urtean, Espainiako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren arabera, etxean ia % 80tan (16 eta 74 urte arteko kide bat, gutxienez) badago Interneterako konexioa, % 96tan baino gehiagotan badago telefono mugikorra, eta % 76tan badago ordenagailu-motaren bat. 2015eko hirugarren hiruhilekoan, 15 urteko edo gehiagokoen % 61ek bazeukan telefono adimenduna.



5. TAULA INDARKERIA MATXISTA POTENTZIALAK MUGIKORREN KONTSUMOAN

Analisi kritiko feministatik duen interesa	Indarkeria matxista potentzialak mugikorren kontsumoan
<p>Ikuspegi kritiko feministatik, gailu mugikorren kontsumoak galdera asko sortzen eta erantzun gutxi ematen ditu: Pertsonen bizitzan inpaktu handia dute, bizitza errazten digun inklusio, irisgarritasun eta komunikazioaren ideia saltzen digulako kapitalismoak. Hala ere, berrekoizpeneko eta ekoizpeneko lanean erabiltzen diren denborak malgutzeari oinarritutako gizarte-eredu bat eraikitzen dute; mugikorraren erabilerari lotutako funtzioek eta aplikazioek bizitza pribatua neurri handi batean ateratzen dute jendaurrera, eta indarkeria-maila handiagoa sustatzen da horrela, besteak beste, bikotearen barruko kontrola edo "normaltzat" hartzen ez dena barregarritzea, LGTB+ kolektiboengan inpaktu argia eraginda.</p> <p>Ikus-entzunezko produktuen biralizazioak (argazkiak, bideoak, GIF irudiak, etab.) emakumeen gorputza jendaurrera ateratzen du, eta areago bihurtzen dute kontsumo-gai. Mezu bidezko komunikazioa oldarkorrago, zuzenago eta azkarrago bihurtzen da, eta ez du bide ematen testuinguru baten barruko trakerako.</p> <p>Zaintzaren ikuspegitik, pertsonak txikitu eta ikusezin bihurtzen dituzte.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zuzeneko indarkeria: osasunaren gaineko ondorioak bikotearen barruko kontrola dela medio, edo beste fenomeno batzuk, hala nola ziberjazarpena edo cyberbullyinga, direla medio; lanaldi hirukoitzak sorturiko estresa, etengabeko konexio digitalaren ondorioz, lan ordaindurako, berrekoizpeneko lanerako eta aisialdirako erabiltzen diren denboren artean banaketarik ez egotea eragiten baitu; gaixotasun batzuk, hipersentikortasun elektromagnetikoa kasu; azkenik, osasunean eragindako inpaktuak, baliabide teknologikoak erabiltzeko aukerarik ez duten eta/edo nola funtzionatzen duten ez dakiten kolektiboen gain –zeinek, ondorioz, ezin baitute izapiderik eta abar egin– sorturiko indarkeria instituzionala dela medio. ✓ Indarkeria sinbolikoa: genero-estereotipoak berrekoiztea aplikazioen eta aparatuen diseinuaren bidez; emakumeen lana gutxiestea eta ikusezin bihurtzea; desberdinkeria sustatzen duten bizimodu-ereduak eraikitzea; publizitate zuzendua; heteroarautik irteten diren kolektiboak ikusezin atxikitzea eta/edo instrumentalizatzea. ✓ Egiturazko indarkeria: bazterketaren bidezko zigorra; indarkeria instituzionala, izapideak teknologiaren bidez egiten ez jakiteagatik edo baliabideak erabiltzeko aukerarik ez izateagatik; lanaldi hirukoitza (ordutegi malguak, denboraren erabilera, etab.); arrakala digitala eta desberdinkeria teknologiak erabiltzeko aukeran.

ZUZENKO INDARKERIA

Gailu mugikorren bidezko kontrola. Hausnarketa-prozesuan zehar, mugikorraren bidez egiten diren **bi kontrol-mota identifikatu ditugu**:

- **Enpresaren kontrola**, alegia, nola lausotzen dituzten mugikorrek eta aplikazioek pertsonok lanerako erabiltzen ditugun denborak eta gure aisia eta astirako erabiltzen ditugunak. Ildo horretan, nabarmendu behar da Frantziako gobernuaren esperientzia; izan ere, 2016ko abuztuaren 8ko 2016-1088 Legea jarri zuen abian 2017. urtean, soldatuko langileen *deskonexio digitalerako eskubidea*³³ arautzeko, behin lanaldia bukaturik, atsedenerako eta oporretarako denbora nahiz haien arlo pertsonaleko eta familiako bizitza errespetatzea bermatzearren. Horrek guztiak badu genero-inpaktu bat, oraindik emakumeak arduratzen baitira gehienbat etxeke eta zaintzako lanez, aldi berean lan-munduan gero eta gehiago txertatzen ari diren bitartean; horrek zailtasunak areagotzen dizkie atsedenerako, parte-hartze sozial eta politikorako, eta abar.
- **Bikotearen barruko kontrola**, aztarnarik utzi gabe jarraipena egiteko eta datuak biltzeko merkatuan dauden aplikazioek sustatua, kontrolatu nahi den pertsonaren kokapena, e-mailak eta mezuak atzitzea ahalbidetzen baitute; edo, modu sinpleago batean, azken konexioaren eguna eta ordua, mezuak irakurri diren ala ez, eta abar ikusteko aukera ematen duten tresnak erabiliz. Bikotearen barruko kontrol horrek emakumeen aurkako indarkeriaren intzidentzia handiagoa ekar dezake bikotekideen edo bikotekide ohien aldetik, aldi berean beste fenomeno batzuk ere sustatzen direla, hala nola ziberjazarpena edo cyberbullynga, haien osasunaren gain ondorioak izateaz gain: antsietatea, depresioa, eta abar.

33. Iturria: <http://noticias.juridicas.com/actualidad/noticias/11540-en-francia-entra-en-vigor-el-derecho-a-la-039%3Bdesconexion-digital039%3B-del-trabajador-con-la-empresa/>. 2018ko uztailearen 10ean kontsultatua.

34. Gaixotasun hori badago onartuta zenbait herrialdetan (eta Europako Kontseiluaren 1815 Ebazpenean erreferentziatuta), bai eta estatuko zenbait ospitaletan ere, hala nola Bartzelonako Hospital Clínic delakoan edo Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Bioelektromagnetismo Laborategian, baina OMEk ez du onartu. Badira ekimenak eta proposamenak uhinek gabeko tokiak ezartzeko, "iheslari teknologikoak" deitutako pertsonentzat, hala nola Green Bank, AEBn. Iturriak. Bigorra: (2016) *Hipersensibilidad electromagnética, un trastorno desconocido que va al alza*. Ara.cat. 2016/11/13an argitaratua. González Moreno (2017): *Sensibilidad electromagnética: tan desconocida como incapacitante*. Ejesalud.com. 2017/10/16an argitaratua.

35. Arnasaren nahasmendu bat da, jasotzen den e-mail kopuruak eraginikoa. Standfordeko Unibertsitateak Calming Technology Lab deritzona du, lasaitzeko teknologia –eta ez soilik arreta desbideratzekoa– sortzen diharduen laborategi bat. Eztabaidaren erdigunean jartzen du ea zein neurritan konpon dezakeen teknologiak berak, eta gure planteamendua da behar dena ez dela konponbide teknologiko bat soilik.



ZUZENKO INDARKERIA

- > Emakumeei lanaldi hirukoitzak sorturiko **estresa**, etengabeko konexio digitalaren ondorioz, lan ordaindurako, berrekoizpeneko lanerako eta aisialdirako erabiltzen diren denboren artean banaketarik ez egotea eragiten baitu horrek.
- > Zenbait **gaixotasun**, hala nola elektrosentikortasun edo hipersentikortasun elektromagnetikoa, telefono mugikorretatik, wifitik, bluetoothetik, telefoniako antenetatik eta abarretatik datozen eremu elektromagnetikoen eraginpean egotearen ondoriozko gaixotasun bat, gizonen artean baino zortzi aldiz intzidentzia handiagoa duena emakumeen artean³⁴, bai eta osasunaren gaineko beste inpaktu batzuk ere, arnasari eta estresari lotutakoak, "e-mailaren bidezko apnea" deitutakoa kasu³⁵.

INDARKERIA SINBOLIKOA

- **Mugikorren eta osagarrien diseinuan genero-estereotipoak berrekoiztea:** merkatuko proposamenak asko eta askotarikoak direla egia bada ere, emakumeei zuzenduriko produktuak desberdinak izaten dira tamainaren, koloreen eta jartzen zaizkien apaingarrien aldetik (gauzatxo distiratsuak eta purpurinak, esaterako), eta horrek eragin dezake azkenean produktuok garestiago izatea.
- **Publizitate zuzendua erabiltzea,** sozialki onarturiko rol femenino eta maskulinoez baliaturik, genero-estereotipoak berrekoizten dituen publizitate-mota bat, alegia, heteroarauz kanpoko beste subjektu oro baztertu eta ikusezin atxikitzeaz gain.
- **Halaber, mugikorraren erabilera aplikazio orokorrenen aldetik aztertzeak** (adibidez, bat-bateko mezularitza eskaintzen dutenak, WhatsApp edo Telegram kasu) **bide ematen digu begiratzeko ea genero-estereotipoek baduten eraginik aplikazio horiek erabiltzen dugun moduan.** Horri dagokionez, nerabeen artean gai horri buruzko datuak lortzeko egin den azterlan baten arabera³⁶, genero-estereotipoek mugikorraren erabilera baldintzatzen dute. Neskentzat, mugikorraren erabilera harremanen arlokoa da, besteekin komunikatzeko eta harremanetan egoteko aplikazioak gehiago erabiltzen dituzte-eta; mutilek, ordea, mugikorra neurri handiago batean tresnatzat erabiltzen dute, erabilera zehatz bat duten programak edo aplikazioak deskargatzeko gehienbat: ikasteko, kirola egiteko, eta abar.



INDARKERIA SINBOLIKOA

- > Hori dela eta, ez da zentzugabea hipotesizat aurreratzea genero-estereotipoek mugikorraren erabileran duten eraginak **sexuaren arabera lan-banaketa areagotzea** ere susta lezakeela (esaterako, erosketak eguneko zein gaueko edozein ordutan egitea ahalbidetzen duten aplikazioen bidez) eta, ondorioz, **etxeko eta zaintzako lanei oraindik balio gehiago kendu.**

36. Fernández, C. eta Alcalde, J. B. (2015): No, sin mi móvil. Diferencias de género y uso de las nuevas tecnologías. Revista ICONO14 Revista Científica De Comunicación Y Tecnologías Emergentes. Hemen eskuragarri: <https://doi.org/10.7195/ri14.v13i1.722>

EGITURAZKO INDARKERIA

- “Makro” izendatu dugun kontrol bat, BIG DATAren bidezkoa, alegia, enpresa handiek aplikazioen bidez datu pertsonalak erostea, datu horiek salmenta-estrategiak taxutzeko erabiltzearen, kontsumitzaileen beharrezanean egokitutako kontsumo bat bultzatzeko eta kontsumoa areagotuko duten beste beharrezan batzuk sortzeko xedez. Horretarako guztirako, genero-estereotipoen baliatzen dira eta sistematikoki berrekoizten dituzte.
- Gailu mugikorren funtzionamendua gehienentzat ezezaguna izatea (sistema eragilearen instalazioa, konponketa, etab.), gailuak ekoizten eta diseinatzen dituzten enpresen monopolioa eta ahalduz teknologikorik eza direla medio; azken horrek, bereziki, adin handieneko eta maila ekonomiko apalenerako emakumeei eragiten die.
- Gailu teknologikoak eta/edo Internet erabiltzeko aukerarik ez duten kolektiboen bazterketa (% 21 Espainiako populazioan, 2015. urtean, Eurostaten datuen arabera).



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Esan dugunez, erabiltzeko aukeran dagoen desberdinkeria horrek bazterketa sozialean geratzeko arriskua duten populazio-taldeak sortzen ditu; halakoen artean, adin handieneko pertsonak, gaixorik daudenak, beste jatorri geografiko bat dutenak, baliabide ekonomiko gutxiak, eta abar sartzen dira. Prekaritate eta ahultasun sozialetik begiratu gero, egitura sozialen bazterrean daudenen ikuspuntutik, sistema kapitalistak egiturazko indarkeria edo indarkeria instituzionala jasanarazten dien populazio-sektore konkretuak ikusten dira, halako produktuak erabiltzeko aukera ez dutelako; hala, teknologia berriek dakartzaten bizimodu eta kontsumo-era berrietatik bazterturik geratzen dira: erakundeekin izapideak egitea, ordaintzeko metodo berriak, eta abar. Horren inguruan, gure galdera da: generoko eta sexu- eta genero-aniztasuneko ikuspegitik, **zer inpaktu du mugikor bat edukitzeak egungo gizartean?**³⁷

37. Sabater C. eta Binger J. (2015): No, sin mi móvil. Diferencias de género y uso de las nuevas tecnologías. *Icono* 14, 13: 208-246.



ETXEA

ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOA

Kontsumo kapitalistaren eta indarkeria matxisten lotura aztertzeke hautatu dugun hirugarren esparrua etxeetako energia-kontsumoa da. Zehazki, energia erabiltzeko aukera eta energiaren erabilera aztertu asmo dugu, energia-kontsumoaren egungo eredia desparekotasun sakonekoa dela eta indarkeriak eragiten dituela salatuta.

Horretarako, pobrezia energetikoan sakondu nahi dugu, eta, arlo hori genero-ikuspegitik luze eta zabal aztertu dela jakitun, indarkeria matxistatzat sailkatu asmo dugu.

Generoko azterlanetan³⁸, energia-sektoreak hainbat mailatan izaten dituen inpaktuak izendatu eta ikusarazi dira. Bidezko eredu sozial bat garatzeko funtsezko sektore estrategikoa izaki, justizia sozial, ekitate, inklusio eta parte-hartzean oinarrituriko irizpide batzuen arabera araututa egon behar du, eta ez mugatu merkatu oligopoliko baten legeetara, azken horrek –bizitza duin bat izateko eskubidea babestu gabe– mozkina ateratzeari ematen baitio lehentasuna. Izaera estrategiko horrek, hain zuzen, energia-ereduaren diseinua, helburua eta lehentasunak herritarren benetako parte-hartzearen bidez zehaztera behartzen du. Gaur egungo energia-eredua desparekotasun handikoa da oso (oligopolioa), eta logika neoliberalaren arabera dihardu ongizate sozialean, energia-sektorean emakumeei ematen zaien aitormenean, negoziazio eta botere-erabileretan, ingurumenean, eta abarretan.

Pobrezia energetikoa aipatzen dugunean, honetaz ari gara, hain zuzen: “etxe batek bere beharrianak estaltzeko adinako energia-kantitate bat ordaindu ezin duenean eta/edo, etxebizitzarako energiaren faktura ordaintzeko, bere diru-sarreraren gehiegizko zati bat erabili behar duenean gertatzen den egoera”³⁹.

Eurostaten 2016ko datuen arabera, **etxeen % 10,1ek pobrezia energetikoa pairatzen du Espainiako estatuan; kopuru absolututan, 4.700.000 pertsona dira**. Pobrezia energetikoa baditu ondorioak osasun fisikoaren gain (estatuan, urtean 7.200 pertsonaren heriotza eragiten du), osasun psikologikoaren gain (ahultasun-egoeragatik eta pobrezia-estigmatik), eta etxeen ekonomiaren gain (etxebizitza duinik eta elikadura egokirik ez izatea). Gainera, hornidura mozteak edo fakturak ez ordaintzeak gehienbat emakumeei eragiten die, etxeko arlo pribatuari estuen lotutakoak direnez gero.

Energía Sin Fronteras (ESF) fundazioaren arabera, emakumeek etxe eta familiarentzat ordu-kopuru bikoitza erabiltzen dute (ia bi ordu egunean, zehazki). Hori dela eta, hornidura mozteak, oinarritzko zerbitzuak behar bezala erabiltzeko aukerarik ez izateak eta ordaindu gabeko eta ordaindu ezineko fakturek zorrak sortzeak, bada, espazio pribatuari –txeari– lotuago bizi direnei eragiten die neurri handiagoan, eta horiek, oraindik, emakumeak dira gehienbat. Bestalde, esparru honi emandako begirada intersektionalak aditzera ematen digu pobrezia energetikoa gehien pairatzen dutenak familia gurasobakar amadunen etxeetan bizi diren pertsonak, emakume erretiratuak eta beste jatorri geografiko bat dutenak izaten direla, besteak beste (González Pijuan, 2016).

³⁸. *Xarxa per la sobirania energètica*: Energía y género: miradas ecofeministas sobre la energía. *Le Fede*, 24 de abril de 2017

³⁹. *Asociación de Ciencias Ambientales delakoak pobrezia energetikoari ematen dion definizioa*: <https://www.cienciasambientales.org.es/index.php/ique-es-la-pobrezia-energetica>. 2018ko uztailearen 3an kontsultatua.



6. TAULA INDARKERIA MATXISTA POTENTZIALAK ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOAN

Analisi kritiko feministatik duen interesa	Indarkeria matxista potentzialak etxeetako energia-kontsumoan
<p>Etxeetako energia-kontsumoa edozein pertsonaren egunerokotasunetik hurbilen dagoen esparruetako bat da, argindarra eta tenperatura egokia izateko oinarritzko beharrianak estaltzen ditu-eta. Energia-enpresa gutxi batzuen interesetan zentralizaturiko sektore bat da, eta desparekotasun sakoneko eredu batean oinarritzen da, zeinen ondorio argienak pobrezia energetikoan gertatzen baitira, gehienbat emakumeei eraginda, adin handiagokoei eta familia gurasobakarrekoei bereziki.</p> <p>Ezinbestekoa da ikuspegi feministak trantsizio energetikoaren diseinu guztia zeharkatzea. Horrela gertatzen ez bada, badugu arriskua emakumeek eta ahultasun-egoeran dauden kolektiboek beren energia-erabilerekin duten harremana aintzat ez hartzeko. Baina ez hori bakarrik: energia-sektorearen gaineko ikuspegi feminista batek gaur egun kontuan hartzen ez diren beharrian, lehentasun eta lan-ildo batzuk agerian jartzea ahalbidetuko luke. Halaber, emakumeek erabakiak hartzen diren espazioetan berdintasunez parte hartzeko ahalmena izatea ahalbidetuko luke, bai eta gobernantza ulertzeko eran aldaketak sortzea. Era berean, ikusgaiago egongo lirateke emakumeak zientzian eta teknologiak egiten ari diren lana, energia-eraginkortasunaren arloan bereziki.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zuzeneko indarkeria: pobrezia energetikoak osasunaren gain dituen ondorioak, egungo energia-eredua dela medio: heriotza goiztiarra, emakumeena eta gizartearen bazterretan bizi direnena batik bat; arnas gaixotasunak, gaixotasun kardiobaskularrak, etab. ✓ Indarkeria sinbolikoa: pobrezia energetikoa etxeen baliabide ekonomikoei loturiko arazo indibidualtzat jotzea, eta ez egungo energia-ereduaren ondorioztat; publizitate zuzendua; estereotipoak berrekoiztea; greenwashinga⁴⁰. ✓ Egiturazko indarkeria: pobrezia energetikoa.

40. Greenwashing delakoa “marketin berdearen bidez enpresek –egiazko kudeaketa jasangarririk egin gabe, baina– beren mozkinak/salmentak handitzeko xede bakarrekin aurrera eramaten dituzten jardunbideei dagokie. Hau da, beren burua jasangarritzat saldu arren, benetan, ingurumenarekiko konpromisoa abian jarri baino lehen bezain kutsatzaileak diren enprekin erabiltzen da”. Definizioa [www.eco-huella.com web-ataritik hartua da](https://www.eco-huella.com/web-ataritik hartua da). Kontzeptuari buruz gehiago jakiteko, jo [web-orrialde honetara: https://www.eco-huella.com/2015/07/greenwashing.html](https://www.eco-huella.com/2015/07/greenwashing.html)

ZUZENKO INDARKERIA

Lehen esan dugunez, pobrezia energetikoak gehienbat emakumeei eragiten die, adin handiagoko eta maila ekonomiko apaleko emakumeei, familia gurasobakar amadunen etxeei eta erosahalmen gutxiko kolektiboetara bereziki.



➤ Pobrezia energetikoak osasunaren gain dituen ondorioak ezin kaltegarriagoak dira: heriotza goiztiarra, arnas gaixotasunak, gaixotasun kardiobaskularrak, bakartzea, eta abar.

INDARKERIA SINBOLIKOA

- ➔ Pobrezia energetikoa etheen baliabide ekonomikoetara loturiko arazo indibidualtzat jotzea, eta ez egungo energia-ereduaren ondorioztat. Gure hausnarketa-prozesuan hauteman dugu sistema kapitalistak helarazten duen ideia dela –ekoizpenean eta banaketan diharduten enpresen bidez– nahi adina energia kontsumi dezakegula prezioak ustez (eta era engainagarrian) merkatzen dituzten tarifa batzuen bidez, nahiz eta, egiaz, kontsumitzaileek aukeratzeko duten aukera oso urria den. Energiak zeinek hornituko gaituen eta zer potentzia kontratatuko dugun baino ezin dugu erabaki. Hori dela eta, pobrezia energetikoa arazo indibidualtzat jotzen da, alegia, hura pairatzen dutenen ezintasunari lotuta dagoela, hots, energia-hornidura egoki baterako behar diren baliabide ekonomikoak eskuratzeko ezintasunari, eta ez egiturazko arazotzat, oligopolioa sustatzen duen energia-ereduari lotuta.
- ➔ Sexu- eta genero-aniztasuneko ikuspegiari dagokionez, bereziki LGTBI+ kolektiboren zahartzaroko egoeraz egin dugu hausnarketa. Haiek aniztasunaren barruan aitortzeak dakartzan zailtasun sozialak direla eta, populazio bereziki kaltebera dira pobrezia energetikoaren aurrean. Gizartean duten estigmaren ondorioz, baliteke energia erabiltzeko duten aukera behar adinakoa ez izatea, pertsona bakarrak, diru-sarrerarik gabekoak eta abar izaten baitira. Horren inguruan, gure hipotesia da pobrezia energetikoaren eta sexu- eta genero-aniztasunaren arteko gurutzaketak gizartean ezkutaturik dauden bestelako indarkeria eta desberdinkeria batzuk ikusteko bide ematen digula.



INDAKERIA SINBOLIKOA

- > Estereotipoak berrekoiztea: LGTBI+ kolektiboen borrokari dagokionez, energia-enpresaren baten joera identifikatu dugu, halako borrokak instrumentalizatzeko eta kontsumitzaile gehiago irabazi nahian erabiltzeko. Horri pinkwashinga litzateke, honelakoetan erabilitako termino bat: **“pinkwashing terminoaren bidez nabarmentzen da marka jakin batzuek, LGTBI+ mugimenduekiko sinpatizazioaren bidez, kontsumitzaileak irabazteko erabiltzen duten marketin-estrategia, kritikoki kapitalismo arrosa deitutakoaren barruan⁴¹”**.

EGITURAZKO INDARKERIA




- > Pobrezia energetikoa, energia-kontsumoaren egungo ereduak sustatzen duen egiturazko indarkeriaren agerpen krudelenentzat hartua.

⁴¹. Pikara Magazine: <http://www.pikaramagazine.com/2017/03/pink-washing/>. 2018ko uztailaren 15ean kontsultatua.



3

Landa-lanaren emaitzak



1 | HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Landa-lanean **bi helburu** hartu dira:

1. Euskadiko herritarrek indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko loturaz zer pertzepzio duten jakitea.
2. Indarkeria matxisten eta kontsumo konbentzional kapitalistaren arteko loturaren ezaugarriak zehaztea, Euskadin, **hiru esparru zehatzetan**:



IKUS-ENTZUNEZKO AISIA
FIKZIOZKO TELESAILAK



TEKNOLOGIA-ESPARRUA
TELEFONIA MUGIKORRA



ETXEA
ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOA

Horretarako, Adimen enpresaren zerbitzu profesionalak kontratatu dira; merkatu-azterketetan aditua da, eta berak eraman du aurrera landa-lana, honako hauek eginda:

- a. **SAKONEKO ELKARRIZKETAK ADITUEI**: errealitate sozialari aplikatu dizkioten ikerketengatik edo haien aktibismoagatik, prestatutako esparru teorikoa elikatzeko eta landa-lanaren hurrengo faseak doitzeko informazio jakingarria eman ahal ziguten pertsonak hautatu dira. Honako aditu hauek elkarrizketatu dira, bada: fikziozko telesailetan, Lucía Mbomío eta Aitzole Araneta; gailu mugikorretan, Ianire Estébanez; etxeetako energia-kontsumoan, Paca Blanco eta Irene González Pijuan.

Elkarrizketa horiek 2018ko azarotik abendura bitartean egin dira. Adimenek ondu du gidoia, eta Aholkularitza Taldeak berrikusi du; azken horrek integratu edo zehaztu egin ditu egoki iritzitako galderak, esparru teorikoarekin lotzearren. Aditu bakoitzari elkarrizketa egin zaio bera hautatzeko arrazoia izan den esparruari buruz; alabaina, gainerako esparruei buruz ere iritzia emateko aukera eman zaio.

- b. ELKARRIZKETAK KONTSUMITZAILEEI:** adituei eginiko elkarrizketak eta esparru teorikoaren egokitzapena oinarri hartuta, elkarrizketak egin zaizkie hainbat kontsumitzailei, haien iritzi eta bizipen pertsonaletan sakontzeko, eta hautaturiko kontsumo-esparruetan indarkeria maxitek duten inpaktua zehazteko.

Horrez gain, sexu- eta genero-aniztasuneko ikuspegian sakontze aldera, oso profil zehatzak zituzten pertsona batzuk hautatu dira: emakume zis lesbianak eta heterosexualak eta pertsona transexual heterosexualak eta homosexualak. Horrez gain, profilak hautatzeko, beste aldagai batzuk sartu dira, hala nola adina, jatorri geografikoa, gai sozialekiko kontzientziazio-maila (esaterako, kontsumoaren, LGTBI+ kolektiboaren eskubideen eta abarren inguruan), eta egoera ekonomikoa.

Hautaturiko kontsumitzaileen profilak hauek izan dira: emakume zis heterosexual gaztea gutxi kontzientziatua; emakume zis heterosexual gaztea oso kontzientziatua; emakume zis heterosexual nagusia gutxi kontzientziatua; emakume zis heterosexual nagusia oso kontzientziatua; emakume zis heterosexual arrazializatua; emakume zis heterosexual adin ertainekoa arrisku ekonomikoko egoeran; emakume zis lesbiana gaztea oso kontzientziatua; emakume zis lesbiana nagusia gutxi kontzientziatua; emakume zis bisexual nagusia oso kontzientziatua; gizon transexual heterosexual gaztea oso kontzientziatua; emakume transexual heterosexual nagusia gutxi kontzientziatua; emakume transexual lesbiana gaztea oso kontzientziatua; emakume transexual lesbiana nagusia gutxi kontzientziatua; emakume transexual ez-binarioa; emakume transexual nagusia kontzientziatua.

Elkarrizketa horiek 2019ko urtarriletik martxora bitartean egin dira. Adituekin bezala, ikerketan planteatu diren hiru azterketa-esparruei buruz galdetu zaie kontsumitzaileei.

- C. TELEFONO BIDEZKO INKESTAK, CATI ERAKOAK⁴², EUSKADIN BIZI DIREN ADIN NAGUSIKOEI ZUZENDUAK.** Inkesten helburua izan da datu kuantitatiboak biltzea Euskadiko herritarrek indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko loturaz duten pertzepzioari buruz. Hona hemen fitxa metodologikoa:



CATI ERAKO METODOLOGIA

- > **Unibertsoa:** Euskadin bizi diren adin nagusiko pertsonak.
- > **Lagina:** 751 inkesta (451 emakumezko eta 280 gizonzko).
- > **Errore marjina:** % 3,6koa, % 95eko konfiantza-maila baterako eta pq 0,5 dela onartuta.
- > **Kuotak:** sexuaren eta adin-taldearen arabera.
- > **Landa-lana:** 2018ko azarotik abendura bitartean.
- > Datuak elkarrizketatuen sexua eta adina kontuan hartuz haztatu dira.
- > **Galdetegia:** Adimen enpresak prestatu, eta proiektuko Aholkularitza Taldearen esku jarri zen, aldez aurretik oniritzia adierazteko eta behin betiko ontzat emateko. Batez besteko iraupena 14 minutu izan da.
- > **Anonimatua eta konfidentzialtasuna:** inkestatuen erantzunen anonimatua oso-osea bermatzen da; haien erantzunak azterlana ontzeko soil-soilik erabiliko dira, eta haien iritzi-datuak erabat disoziatu dira haien identifikazio-datuetatik.
- > **Kalitate-kontrola:** ISO 20252 arauaren eta CCI/ESOMAR ereduzko kodearen arabera.
- > **Estatistika-tratamendua:** maiztasunen tabulazio bakun eta gurutzatua eta aldagai anitzeko analisiak.

⁴². Computer Assisted Telephone Interview.

2 | AZTERLANEAN ERAGINA IZAN DUTEN FAKTOREAK ETA MUGAK

Datuak irakurtzeari ekin baino lehen, komeni da zenbait hausnarketa aintzat hartzea, datuok hobeki ulertzeko funtsezkoak direnak.

Aztertzen diren gaien berritasuna nabarmendu behar da atzera ere. Analisisian zehar, nola esparru teorikoaren egokitzapenean hala landa-lan kualitatibo eta kuantitatiboko fasean, honako hau geratu da agerian:

- Oso gutxi dira aurretik eginiko azterlanak edo hausnarketak, azterketa taxutzen lagunduko luketenak eta erreferentziatza eta konparazio-oinarritzat balia litezkeenak; izan ere, zenbait azterketa egin diren arren, teknologiaren, ikus-entzunezko aisiaren edo energia-kontsumoaren esparruek genero-ikuspegitik dituzten inpaktuei buruz, ez dugu topatu lanik, indarkeria matxisten eta haien agerpenen ikuspegitik (egiturazkoak, sinbolikoak, eta zuzenekoak) jorratu dituenik.
- Ildo horretan, ikerketaren aurreneko atalean gertatu bezala, aditu batzuen lehen erreakzioa harridurazkoa izan zen, indarkeria matxista gisako kontzeptualizazioaren berritasunagatik, eta elkarrizketan zehar azterketa kuantitatiboa diseinatzeko oinarritzat balio izan duen eraikuntza teorikoa garatuz joan da. Horrez gain, Aholkularitza Taldeak zailtasunak izan zituen ikuspegi feministadun adituak aurkitzeko teknologia mugikorraren arloan eta, hori dela-eta, ezin izan gara oso fin eta zehatz ibili geroko landa-lanean eginiko galderak prestatzean.
- Agerian geratzen da fenomeno naturalizatuta dagoela eta ikusezin atxikitzen dela. Hori argi islatu da, hain zuzen, zuzeneko indarkeriaren agerpenei buruzko emaitza kuantitatiboan, inkestatuek ez baitituzte beti halakotzat jo. Bestalde, ez dugu esan gabe utzi behar, telefono bidezko inkesta, ezbairik gabe, tresna erabilgarria bada ere kontsumoan indarkeriak atzemateko, muga handiagoak ikusten dizkiogula gai delikatuagoez aritzeko garaian, hots, aitortzeko garaian lotsa eman dezaketen gaiez –indarkeria zuzenekoenez kasu– edo nahasmendu, gaixotasun eta abarrekin lotu ohi diren gaiez.

- Aholkularitza Taldean, aztertutako hiru esparruetarako esparru teorikoa definitzean, eztabaidak izan dira ea kasu batzuk sistema kapitalistak gauzaturiko indarkeriatzat ala indarkeria matxistatzat sailkatzen genituen. Indarkeria matxistatzat sailkatu dira sistema kapitalistak gauzaturiko indarkeriak bereziki eta gehienbat emakumeei eta heteroarauz kanpoko beste subjektu batzuei eragiten dienean halakoak izate hutsagatik.
- Hasieratik zaila izan da kontsumoko itemak konkretua den zerbait gisa definitzea; esaterako, telefonia mugikorraren arloan, gailu mugikorraren beraren kontsumoan zentratu bagara ere, ez da beti erraza izan Interneten kontsumotik bereiztea. Gauza bera gertatu da fikziozko telesailen, haiekin ere ez baita erraza izan ikus-entzunezko beste produktu batzuetatik bereiztea.
- Lehen azaldu dugunez, sexu-eta genero-aniztasuneko ikuspegian sakontzeko helburuz, kontsumitzaileei eginiko sakoneko elkarrizketetarako oso profil zehatza hautatzea erabaki genuen: emakume zis eta transexual lesbianak eta heterosexuak, beste aldagai batzuk ere gehituta, hala nola adina, jatorri geografikoa, gai sozialekiko kontzientziazio-maila, eta egoera ekonomikoa. Alabaina, bi zailtasun topatu ditugu: halako profilak aurkitzea, nahiz eta LGTBI+ pertsonen eskubideen aldeko zenbait kolektiborekin harremanetan jarri ginen; eta harremanetan jarritako emakume batzuek parte hartu nahi ez izatea, anonimotua bermatuta edukiagatik. Hori dela eta, hasieran diseinatu genituen profilak aldatu behar izan ditugu, pertsona bisexual bat eta gizon trans bat gehituta.
- Baina pobrezia energetikoa indarkeria matxistatzat sailkatzea izan da, beharbada, erronkarik handiena. Horren arrazoa da, batetik, arazoaren ikusezintasuna eta naturalizazioa; eta, bestetik, esparru hori telefonia mugikorraren edo fikziozko telesailen esparruena ez den beste konkrezio-maila batean kokatutako esparru bat izatea. Horri dagokionez, etxeetako energia-kontsumoa ezin daiteke berez kontsumo-gaitzat jo, giza eskubidetzat baizik, hau da, pertsona orok baldintza duin batzuetan bizitzeko duen oinarritzko beharrezanari lotutakotzat. Hori hala dela egiaztatzearen ondorioz, zenbait zalantza sortu dira, azterketarako ikuspegiari dagokionez (esparru teorikoa), bai metodologia eraikitzeari dagokionez: zer galdetu eta nola galdetu.

3 | EMAITZEN AURKEZPENA

Hurren, indarkeria matxisten eta aztertutako esparruen arteko lotura esploratzeko xedez egin den landa-lanaren emaitza kualitatiboak eta kuantitatiboak aurkeztuko dira. Emaitzak aurkeztean, atzeman diren indarkeria-motak nabarmenduko dira (egiturazkoa, sinbolikoa eta zuzenekoa), aztertutako hiru esparruetarako: fikziozko telesailak, telefonia mugikorra eta etxeetako energia-kontsumoa.

Lehenik eta behin, emaitza kualitatiboak ezagutaraziko dira esparru bakoitzari dagokionez; hala, elkarrizketatutako adituek zein kontsumitzaileek antzemandako indarkeria-motak zehaztuko dira (egiturazkoa, sinbolikoa eta zuzenekoa). Bigarrenik, emaitza kuantitatiboen berri emango da, berriz ere indarkeria-moten arabera aurkezturik.

Esparruen araberako emaitzak ordena honetan aurkeztuko dira:



IKUS-ENTZUNEZKO AISIA
FIKZIOZKO TELESAILAK



TEKNOLOGIA-ESPARRUA
TELEFONIA MUGIKORRA



ETXEA
ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOA



IKUS-ENTZUNEZKO AISIA

FIKZIOZKO TELESAILAK

EMAITZA KUALITATIBOAK

EGITURAZKO INDAKERIA



7. TAULA LABURPEN-KOADROA: EGITURAZKO INDARKERIA FIKZIOZKO TELESAILEN ESPARRUAN

EGITURAZKO INDARKERIA FIKZIOZKO TELESAILATAN

- ✓ Genero-rolak berrekoiztea.
- ✓ Fenomeno sozialak ezkutatzea, hala nola pobrezia, gehienbat emakumeei eragiten dien fenomeno bat.
- ✓ Itsumustuko kontsumoa, genero-estereotipoetan oinarritua eta desberdinkerien berrekoizlea.
- ✓ Pinkwashinga.

Esparru teorikoan aditzera eman dugunez, fikziozko telesailak “gizarte-ereduen eraikitzailetzat” jotzen ditugu, beren narrazioen bidez balio, jokabide eta arau batzuk, indibidualak zein kolektiboak, zabaltzen baitituzte, ongi definituta daudenak eta sozialki onartutako genero-rol eta -estereotipoekin koherenteak direnak. Horrez gain, indarkeria naturalizatzen dute, indarkeria matxistak, bereziki, eta “normaltzat” hartzen ez dena ikusezin atxikitzen dute. Fikziozko telesailak tresnatzat ikusten ditugu, beste batzuen artean, sistema kapitalista, kolonialista eta heteropatriarkala berrekoizteko. Eta sistema horrek, esparru teorikoan planteatu dugunez, desberdinkeria eta bazterketa sortzen ditu, batzuek besteen gain dituzten pribilegioak areagotuta, haiek justifikatzeko pertsonen baliabideak, sexua, generoa eta/edo jatorria baliatuz, desberdinkeriarako beste gako batzuen artean.

Elkarrizketatutako adituak neurri handi batean datoz bat azaldu berri dugunarekin, eta zehazten dute, telesailen kontsumoa dela medio, ikus daitekeela nola elkar elikatzen duten bi sistema horiek –sistema kapitalistak eta heteropatriarkalak, alegia– pertsonok bete beharreko ideario bat eraikita horrela:

"Azkenean, ikusten dugu nola patriarkatua eta sistema kapitalista elkar elikatzen duten bi sistema diren, gauza bera izan gabe. Ohikoena da maila jakin bateko emakumeak ikustea –ikasketa jakin batzuk dituztenak eta goi-erdiko klasekoak– lanbide liberal batean aritzen direla, eta zuriak gehienetan. Amodioari eta bikoteari ematen zaie garrantzia lehentasunez. Ideario bat sortzen da bete behar dugun ereduaz"

Aditu bati egindako elkarrizketa

Ildo horretan, **gizona/emakumea binomioaren nonahikotasunari lotutakoa** da adituek aurrenik aipatutako egiturazko indarkerietako bat; horrek gizonezko langilearen eta emakumezko zaintzailerearen rola indartzen ditu, eredu jakin eta bakar bat zabaldua, horrela, bizitza-proiektuak ezarri eta aurrera eramateko: lanbide-karrera bat aukeratzea, ikasketak, bikote-harremanak, familia ereduak, eta abar. Eta horrek, dakigunez, badu inpaktu argi bat genero-desberdinkerien aldetik nahiz indarkeria matxistaren agerpen guztiak berrekoiztearen aldetik. Gainera, fikziozko telesailetan inpaktu bat ikusten dugu **emakumeen zein heteroarauz kanpoko pertsonen ikusezintasunaren** aldetik, rol gutxi eta estereotipatuak izaten baitituzte:

"Eragina izugarria da; esaten digute nola jantzi, nola jokatu, zer jan eta, are okerrago, nola bideratu geure harreman pertsonalak, gidoitik ez irteteko"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Telebista gizarte patriarkalaren eredu berrekoizten duen tresna bat da, arrakastaren, porrotaren eredu; eredu patriarkal baten ezaugarri orokorrak, sexua oparo, banakako arrakasta, arrakasta ekonomikoa. Etxetik kanpoko balioesten eta irudikatzen da, etengabe errepikatzen diren balio batzuk"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Emakumeak telesailetan gutxi agertzen dira, edo ez dira protagonistak; gizonei laguntzen diete haien helburuak betetzen; beti bigarren planoan egoten dira, otzan edo gizona baten helburua lotzeko"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Diskriminazio-kontua da emakume gehien dagoela uste duten ordu-tarteetan, hain zuzen, batere mami intelektualik gabeko edukiak jartzea"

Aditu bati egindako elkarrizketa

Adituen diskurtsoaren haritik atzematen den egiturazko beste indarkeria bat da **arazo sozialak ikusezin atxikitzea, hala nola pobrezia**; hain zuzen ere, fenomeno horiek ezkutuan geratzen dira oparotasun ekonomikoan eta materialismoan oinarrituriko "bizitza-ideario" baten transmisioaren atzean. Pobrezia ezkutatzeko –hots, emakumeak gogorrago jotzen dituen fenomeno bat, sexuaren arabera lan-banaketa nahiz dauden desberdinkeria ekonomikoak direla medio– zuzeneko ondorioak ditu baliabide gutxi dituzten emakumeen artean lotsa eragitean, ikusezin atxikitzen baitira eta haien ahotsa isildurik geratzen baita, hainbesteko perfekzioaren artean irudikatuak ez egotean:

"Herrialdeko miseria ezkutatzeko, zoritxarrak, lan-falta, miseriazko soldadak, berokuntzarik eta argindarrak ez izatea. Telesail idillikoak egiten dira, lortu egin daitekeela ikus dezazun. Gutxi hitz egiten da genero-indarkeriaz, ez dira aipatzen soldadak, nola bizi garen (...) pobrezia ezkutatzeko. Pobre izateaz lotsarazten gaituzte. Jantoki sozialera doazen emakume gehienak lotsatuta doaz, errua balute bezala. Iritzia kendu diete. Hori ez da irudikatzen hainbesteko perfekzioaren artean"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Irudikatzen denaren eta erreala denaren arteko justizia falta da, inklusioaren beharra"

Aditu bati egindako elkarrizketa

Aurrekoari loturik, irizten zaio telesailak **sistema kapitalistak bultzatutako itsumustuko kontsumoa** sustatzen dutela, materiala den oro gure bizitzan funtsezkoa balitz bezala aurkezten baitute (etxe handiak, lorategidunak, aisialdia pasatzeko moduak), ingurumenarentzat zein pertsonentzat kontsumo-mota horrek izan dezakeen inpaktuaz axolatu gabe. Kontsumoaren eta indarkeria matxisten aldetik duen inpaktua da, kontsumitzen ditugun beste produktu batzuek bezala, fikziozko telesailak ere kontsumo desberdina proposatzen dutela emakumeen eta gizonen artean, estereotipo femeninoak eta maskulinoak berrekoizten dituzten balio batzuek josita. Eta horrela, bada, gero eta aukera ugariagoa dago berariaz “emakumeentzat” diren telesailen eskaintzan, non nagusi baitira maitasun erromantikoari eta edertasunaren nahiz gaztetasunaren gurtzari loturiko balioak, besteak beste; berariaz gizonentzat diren telesailak egoteaz gain, non maskulinitate independentearen eta gizon salbatzailearen idealak indartzen baitira.

Azterketa horretan jarraituta, Aholkularitza Taldeak ikusi du nola ikus-entzunezko industriak gero eta aukera zabalago bat eskaintzen duen, gehienbat emakumeak protagonistak diren eta/edo rol hausleak dituzten telesailena, batez ere emakumeei zuzenduta, eta era berean, gero eta aukera zabalagoa dagoela sexu- eta genero-aniztasunaz aritzen diren telesailen artean, haiek ere batez ere LGTBI+ kolektiboari zuzenduta. Izan ere, ez da kasualitatea telesail-mota horiek “zinema-genero berrien” barruan sartzea, “emakumeentzako zinema” edo “LGTBI+ zinema” gisa. Ildo horretan, esparru honetan atzeman den egiturazko beste indarkeria batek **pinkwashing** delakoarekin du zerikusia. Esparru teorikoan aditzera eman dugunez, fenomeno horren bidez sistema kapitalista eta heteropatriarkala borroka eta aldarrikapen sozialez jabetzen da, merkatu-nitxo berriak sortzearen edo kanalari modernotasun-ukitua ematearren, beste batzuen zaharkitu-kutsua justifikatuta horrela. Hain zuzen ere, ez da harritzekoa halako telesailen eskaintza gehienetan ordainpeko kanaletan egotea, HBO edo Filmin deritzenetan, besteak beste.

“Egia da saiatu dela emakumezko pertsonaiak gehiago izan daitezen, baina pertsonaia horiek oso loturik egoten dira gizonetik amodio- edo erromantizismo-kontuekin. Diskurtso bikoitza da, pertsonaia ekonomikoki independentea erakusten bada ere, gero maitasunaren eta bikotearen inguruko helburuei ematen diote garrantzia”

Aditu bati egindako elkarrizketa

INDARKERIA SINBOLIKOA



8. TAULA LABURPEN-KOADROA: INDARKERIA SINBOLIKOA FIKZIOZKO TELESAILEN ESPARRUAN

INDARKERIA SINBOLIKOA FIKZIOZKO TELESAILTAN

- ✓ Genero-estereotipoak berrekoiztea: maitasun erromantiko, heteroarauzko eta monogamoa; emakume heroia, emakume ahaltzu maskulinizatu eta asexuatuak.
- ✓ Giza aniztasunaren ikuspegi androzentrikoa eta heteroarauaren arabera: pertsonaia migrante karikaturizatuak, estigma bikoitzetik irudikaturiko emakumeak; sexu- eta genero-aniztasuna ere karikaturizatzea; sozialki onartzen denaren eta onartzen ez denaren arteko irudikapen hierarkikoa; sexuari eta generoari lotutako aniztasunik eza, eta heteroarauz kanpoko unibertso existentzialak irudikatzeko erabiltzen den gogorkeria; estereotipatuta dauden eta errealak ez diren pertsonaia irudikatzea.
- ✓ Indarkeria gauzatzea emakumeen gorputzaren kosifikazioan oinarrituz; umoreaz baliatzea indarkeria sotilki gauzatzeko.

Fikziozko telesailtan indarkeria sinbolikoak nola berrekoizten diren aztertzeari ekin aurretik, gogorarazten dugu indarkeria-mota hori indarkeria matxistak naturalizatzen eta berrekoizten dituzten sinbolo eta balioen multzoa dela gure ikuspuntutik. Horretarako, elkarrizketatutako adituei eta kontsumitzaileei galdetu diegu ea zer balio- eta sinbolo-motak berrekoizten dituzten fikziozko telesailek.

Lehen aipatu ditugun ideal androzentriko, kapitalista eta heteropatriarkaletan oinarritutako bizimoduaren transmisioaren aldetik, elkarrizketatuek aditzera eman dute fikziozko telesailek honako ezaugarri hauek dituztela:

- **Estereotipoak mantentzen dituzte.** Erabilitako ikuspegiak gizona emakumearen salbatzailetzat jartzen du, eta emakumeak ezin lortuzko edertasun-ideal batzuen arabera irudikatzen dira, zaintzaile-rolan nagusiki (ama eta emaztea), eta haiengandik espero bezala portatuz: kontsumistak izatea, emakume arteko lehian aritzea, “salbatuak”

izateko prest egotea, eta abar. Kontsultatutako adituen iritziz, dena ahal duen eta lortzen duen emakume **super heroiaren** irudiak kalte egiten dio emakumeen errealitateari, den-denaz arduratzeko beren ahala eginik ere, halako “estandarrak” ez dituztela betetzen ikusten dutenean, alegia, langile, ama, bikotekide, emakume eder eta presta, “guztien onurarako” bere buruari uko egiten diona, izatea:

“Emakume batek izan beharko lukeenaren rol klasikoak berrekoizten dira, eta, hortaz, hartu behar duzun bidea seinalatzen dute”

Aditu bati egindako elkarrizketa

“Kontsumoa partziala eta sektarioa da edertasun- eta gorputz-mota jakin baten aldera; ezta gainpisua izanda ere ez dira itsusiak; beren itxura fisikoa zaindu ohi dute. Telesail askotan bizimoduez aritzean, edertasunari, elikadurari edo markako arropa, produktu jakin batzuk, kontsumitzeari lotutako gauzak hartzen dira aintzat”

Aditu bati egindako elkarrizketa

Maitasun erromantiko, heteroarauzko eta monogamoari buruzko irudikapenak ere badira adituek aipatzen duten beste indarkeria sinbolikomota bat. Lehen ereesandakoaren haritik, berriz nabarmentzen da harremanak irudikatzeko modu horrek gizartearen aldetik zer espero den “ezartzen” duela eta emakumeek bereziki helburutzat izan beharko luketen arrakasta-ereduari lotzen zaiola. Jakina denez, izan ere, maitasun erromantikoan oinarrituriko gizonen eta emakumeen arteko harreman-eredu nagusi bat zabaltzen da, eta horren bidez balio jakin batzuk legitimatzen dira, sufrimendua eramateari, besteari erabat eman eta harentzat beti prest egoteari, kontrolari nahiz jelsiari lotutakoak, eta horiek guztiak, argi eta garbi, indarkeria matxista mota bat dira:

“Telesailetan transmititzen den indarkeria maitasun monogamoaren eta erromantikoaren bidezkoa da, arrakasta-eredu horretara behartzen du-eta. Indarkeriaz hitz egin daiteke absentiagatik edo protagonistek hartzen dituzten rolengatik”

Adituari egindako elkarrizketa

Arrakasta heteropatriarkalaren ereduari jarraituz, **emakume ahaltuak maskulinizatu eta asexuatuak ageri dira**. Profil maskulino argia duen emakume profesional eta independentearen ikuspegiak gizonen eta emakumeen rolen arteko desberdintasunak azpimarratzeko balio du. Elkarrizketatuek nabarmendu dute, esaterako, telesailetan emakume profesional arrakastatsu bat ageri denean, nortasun handikoa eta independentea, izaki guztiz asexuatu bat bihurtu ohi dela. Gainera, halako pertsonaiari balio maskulinoak eransten dizkiote, hala nola indarra eta botere ekonomikoa, pertsonaiaren hoztasuneraino iritsita; familia-loturarik gabeko emakumeak izaten dira, eta amak badira, amatasun absente bat aurkezten da:

"Emakume indartsu bat, arrasta profesionala duena, irudikatzeko, pertsonaia maskulinizatzen dute; gizon baten rola da, gonadun trajea jantzita"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Emakumeen gaineko indarkeria sinboliko bat erabiltzen da, adibidez, amatasuna irudikatzeko moduan; ez dute erakusten arrakasta-eredu gisa, ama absente gisa baizik; eredu oso patriarkala da hori"

Aditu bati egindako elkarrizketa

Aurrekoari loturik, emakume ahaltuak arraza zurikoak izaten dira, erdiko klasekoak, eta ikasketa eta baliabide ekonomikoak izaten dituzte. Irudikapen bakar eta zehatz horretan aniztasuna ezkutuan geratzen da, eta iruditeria kolektiboan arrakastaren ideala **ikuspegi androzentriko, kapitalista, arrazista eta heteroarauzko** batean harrapatu geratzen da.

"Emakume indartsuak direnean, gizon-ezaugarriak ematen dizkiete; adibidez, Cómo defender a un asesino telesailean (How to Get Away with Murder), emakume indartsu bat da, nahi duena egiten duena; seme-alabarik izan ez, eta errudun sentitzen da horregatik; ez da fidela harremanetan; indar-eredua da"

Aditu bati egindako elkarrizketa

- Ildo horretan, adituei **giza aniztasuna nola irudikatzen** den galdetu genienean, adierazi zuten kasu horietan ere joera nabarmena dagoela, gure gizartean nagusitutako balioak berrekoizteko. Beste jatorri geografiko bat duten kolektiboak irudikatzean, joera nagusia da gizartean

immigrazioaren inguruan egoten diren estereotipoak erakustea. Eta, hala, pertsona migratuak bigarren plano batean ageri dira, garrantzi gutxiko rolak jokatzen, eta haiek pairatutako diskriminazio-baldintzak indartzen dituzten egoera batzuetan. Horren inguruan, aditu batek aditzera eman du, emakume beltzen kasuan, haiek izaten dituzten rolek emakumeak eta baztertuak izateagatik pairatzen duten egoera bikoitza indartzen dutela zenbaitetan: ez dute ez izenik, ez elkarrizketarik. Haien agerpena irudi grafiko hutsa da, edukirik gabekoa:

"Garbitzen, zaintzen... duten emakumeen kasua da. Kontua da Espainian pertsona beltzak egotea ez dela duela gutxiko fenomeno bat, migranteek badaramatzate hemen urteak. Kasu honetan, kolektibo kaltetuena eta desberdinkeriarik handiena pairatzen duena generoaren eta arrazaren estigma bikoitza duten emakumeak dira. Arraza guztiak dute bereizketaren bat; emakume ijitoak, esaterako, bortitzagotzat kalifikatzen dira (...). Ez dago emakume beltzik, lanbide gutxi-asko errespetagarri bat duenik. Kontua ez da guztiak medikuak izatea, justizia egitea baizik, emakume beltz guztiak ez direlako horrelakoak, denetarik dago"

Aditu bati egindako elkarrizketa

- Hortaz, ikusten dugu errealitate bakar bat aurkezten dela, errealitate objektiboarekin zerikusit gutxi duena. **Immigrazioaren irudikapenean, pertsonaiak karikatuz egiten dira**, eta migratuek, emakumeek bereziki, telesailetan hartzen duten rolak ez du islatzen harrerako gizar-teari egiten dioten ekarpena, arlo guztietan (lana, kultura, harremanak...). Zaintza-arloan, zehazki, interesgarria da aditu batetik batek eginiko hausnarketa, zaintza-kate globalak aipatzean, gai hori errealitatearekiko loturarik ez duen modu batean tratatzen dela azpimarratzen baitu. Migrazio-fenomenoaz, haren kausez eta beste fenomeno global batzuekin duen loturaz horrek guztiak ematen duen azalpena testuinguruz kanpokoa da, baina, gainera, emakume horien egoera okerragotzen du aurreiritzien eta diskriminazioaren aldetik, balioa kentzen baitie subjektu aktibo gisa duten rolari nahiz giza bizitzaren zaintzara egiten duten ekarpenari, arlo horretan beharrezkoak dituen lurralde batean (Espainiako estatua):

"Elementu batzuk absente daude; ez, noski, ez du Espainia erreala islatzen, karikatuz diren estereotipo eta pertsonaia batzuk irudikatzen direnez gero. Beste baten familia zaintzea eta zeure ez ikustea zer den. Edo, zaintzen zenuen adinekoko hil delako, alde egin behar duzula esan eta kale gorrira bidaltzen zaituztenean"

Aditu bati egindako elkarrizketa

“Ez daude behar adina irudikatuta zuriak ez diren emakumeak, lesbianen kolektiboa, transexualak, edertasun fisikoaren ideala ez duten emakumeak. Aniztasun handiagoa behar da, gizarte-klase gehiago, badaude kasu batzuk, baina ez dira gehienak”

Aditu bati egindako elkarrizketa

- Giza aniztasuna irudikatzeari loturik, **sexu- eta genero-aniztasunaren inguruan telesailetan transmititzen diren sinboloek** buruz galdetu diegu adituei. Horren gainean, aditzera eman dute sexu-aniztasuna agertzen hasia dela, baina oso gutxi normalizaturik eta oso estereotipaturik edo barregarriturik. Kasu hauetan ere joera da sozialki onartutakoari eustea, eta LGTBI+ pertsonen artean nolabaiteko hierarkia bat atzematen da, moralki onargarriak diren harremanak eta halakotazat hartzen ez direnak bereizten dituena. Hala, telesailetan gayak izaten dira nagusi (zuriak eta baliabide ekonomikoak dituztenak, gehienbat) lesbiana, bisexual, transexual edo intersexualen presentzia eskasaren aldean, adibidez:

Iritzi horrekin bat etorri dira, oro har, elkarrizketatutako kontsumitzaile transexualak. Gainera, zehazten da telesailetan gehienbat emakume transak irudikatzen direla, eta haien bizipenak bizitzako une jakin bati loturik erakusten dira: trantsizio-garaiari. Horren inguruan, kontsumitzaile batzuek kritikatu dute **pertsonaia horien sexuaren eta generoaren aldetik dagoen aniztasunik eza, bai eta haien unibertso existentziala irudikatzeko baliatzen den gogorkeria ere:**

“Sexu-aniztasunarekiko ikuspegia aldatzen ari da, normalizatzen ari delako, eta gero eta gehiago daude. Ez dira neurri berean irudikatzen gizonak eta emakumeak; arlo honetan ere gizonetako gehiago izaten dira. Beharrezkoa da zeharkakotasuna egon dadin, normaltasunez sar daitezten, aurretiazko estereotipoak erabil ez ditzagun, pertsonaia modu maneratsua izatea zein ez izatea posible izan dadin, pertsonaia homosexualak izanik ere, ezaugarri hori erdigunea izan ez dadin, eratzten duen poliedroaren aurpegi bat gehiago baizik. Irudikatzen denaren eta erreala denaren arteko justizia falta da, inklusioaren beharra”

Aditu bati egindako elkarrizketa

“Ez naiz inondik inora identifikatuta sentitzen, pertsona transak, emakumeak gehienak, oso modu gogorrean irudikatzen dituztelako. Gehiegitan arrisku-egoeran jartzen dituzte, eta beti haien gaineko gogorkeria irudikatzen dute; kalean lan egiten dutenak dira, prostitutak, indarkeria jasaten dute (jipoiak, bortxaketak...)”

Gizon trans heterosexual nagusi eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

"Emakume transexualak irudikatu ohi dira, horrela klixe errazera eta esperpentoari eta mozorroari lotutako irudira jo daitekeelako"

Emakume trans heterosexual gazte eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

Horrez gain, LGTBI+ kolektiboetako pertsonen bikote-harremanak sozialki onartuta dagoen familia-eredu patriarkalean txertatzeko asmo garbia salatzen da, hau da, ezkontzan eta seme-alaben hazieran oinarritutako ereduari.

Azkenik, aditzera ematen da askotan gutxiengoaren irudikapenak (sexu- zein arraza-gutxiengoak) gutxiengo horietakoak ez diren pertsonaia batzuen bidez eraikitzen direla; horrek halako pertsonen inguruko irudi irreal bat sortzen laguntzen du, haien errealitatearekin zerikusirik ez duten patroia batzuen araberakoa:

"Transexualen kasuan, ikusezina dira, errealitate bat ezkututzen delako. Harrigarria da pertsonaia transexual bat ateratzen denean; oso estereotipatuta egoten da eta ironiaz eta umorez tratatzen da. Halakoak antzeztzen dituzten pertsonak aizunak dira; ez dut ulertzen zergatik ez duten pertsona transexual bat aukeratzen rol horiek egiteko. Gauza bera gertatzen da beste rol batzuekin eta arrazismoarekin; esaterako, emakume zuri eta estatubatuar bat aukeratzea Kleopatrararena egiteko"

Emakume zis heterosexual gazte eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketaren oharrak

"Adibidez, ijito lesbianeia buruzko filma: istorioa emakume payo batek idatzi du. Hori irudikatzen ez dakien pertsona batek idatzi du, eta ez daude pozik, ez delako haien errealitatea agertu; haien iritzia kontuan izan balitz grabazioan eta gidoian. Kontua ez da beste gutxiengo batzuk ikusgai bihurtzea soilik, hori ongi ere egitea baizik, eta rol berak estereotipatzen ez jarraitzea"

Emakume zis lesbiana eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketaren oharrak

INDARKERIAREN IRUDIKAPEN SINBOLIKOAK

Elkarrizketatuei galdetu genienean nola irudikatzen den indarkeria, adierazi zuten **indarkeriaren erabilera** erakusten duen ikus-entzunezko edukiaren zati handi bat **emakumearen kosifikazioan zentratzen** dela; sexu-objektu hustzat aurkezten du emakumea, haren ezaugarri eta trebetasun intelektualak edo itxuraz kanpoko ezaugarriak alde batera utzirik. Horrez gain, emakumeen kasuan, haien gorputzaren kosifikazioak badu inpaktu bat zuzeneko indarkeriaren aldetik, “gorputz perfektua” izateko presio sozialak azkenean elikadurari lotutako gaixotasunak, depresioa, bakartzea, eta abar sor baititzake.

Emakumeen gorputzaren kontzepzio bakarra sexu-objektuarena izateak giza aniztasuna osoki ez irudikatzea dakar berekin, honako hauek aintzat hartuta, hain zuzen: i) gorputz-aniztasun handia; ii) edertasunaren kontzepzio ez-estereotipatua; iii) harremanak ezarri eta bizitzeko garaian dagoen pluraltasuna. Gizon ehiztariaren eta emakume ehizatuaren nagusitasun sinbolikoaren aurrean, bigarren planoan geratzen dira aniztasunezkoak, berdintasunezkoak, ez-monogamoak eta heteroarauz kanpokoak diren harremanak.

Irudikapen horietaz harago, garrantzitsua iruditzen zaigu aditu batek egindako oharpena, **indarkeria era sotilean gauzatzeko umoreaz baliatzeari buruz**. Umorearen bidezko indarkeria “txistez” mozarrotzen da, eta harengandik defendatzea oso zail suertatzen da. Gainera, azterlan honetarako kontsultatu diren beste ahots batzuek zehazten dute umoreak, sozialki normalizatuak ez dauden egoera edo fenomenoei buruzkoa denean, inpaktu negatiboa izan dezakeela, “denak balio duela” legitimatzen duen neurrian:

“(Umorearen) funtzioa saltzea da, eta grazia jartzen du identifikatuta sentitzen ez direnentzat, baina errespetatuak izateko hainbeste borrokatu garenok ez digu graziarik egiten. Niri ez dit batere graziarik egiten umiliatzen gaituztenean, umorez hartu arren, gero gizartean gertatzen dena gertatzen delako, eta gero kalera irteten zarenean denak balio duelako”

Emakume trans heterosexual eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

ZUZENEKO INDARKERIA



9. TAULA LABURPEN-KOADROA: ZUZENEKO INDARKERIA FIKZIOZKO TELESAILEN ESPARRUAN

ZUZENEKO INDARKERIA FIKZIOZKO TELESAILETAN

- ✓ Antsietatea idealak ez lortzeagatik.
- ✓ Frustrazioa eta haserrea, ezin lortuzko bizi-maila edo edertasun-ideal batzuegatik.

Elkarrizketatutako pertsonen arabera, orain arte aipatu ditugun egiturazko indarkeriek eta indarkeria sinbolikoek badute inpaktu bat ikusleen osasun psikologikoan, fikziozko telesailetan transmititzen diren idealak lortzen zailak direla ohartzean. Halako edukiak ikusten ari den pertsona bat kontzientzia hartzen duenean zenbat urruntzen den haren bizitza pertsonaia ideal horien bizitzatik, **antsietatea** agertzen da, **haiek bezalakoa izateko nahiagatik**.

Eta, hala, antsietatetik, **konparazioak eta frustrazioa** sortuz joaten dira, **lortzen zaila den bizi-maila bat nahi izateagatik**. Horrez gain, kontuan izaten badugu zer desberdinkeria dauden eta nola genero-mandatuek batez ere emakumeei eragiten dieten, esleitu zaien rola dela medio, ez da zentzugabea esatea ideal horien inpakturik handiena emakumeen gain, hain zuzen, gertatzen dela; emakumeek lanaldi bikoitza edo hirukoitza daramaten testuinguru batean, non gorputz perfektua, betiko gaztetasuna eta “guztiaz arduratzeke gai izatea” lortzeko presioa haiei berariaz zuzentzen baitzaie.

Irudikapen horiek badute eragina banakako nortasunaren eraikuntzan, eta geure buruaz, geure gorputzez eta beste pertsonen gugandik espero dutenaz ditugun nahi eta espektatibak moldekatzen dituzte. Elkarrizketaturiko kontsumitzaile batek horrek guztiak dituen ondorioez ohartarazten digu, nerabezeroan batik bat:

“Haserre nago, batetik, kontziente naizelako ez nauela ni irudikatzen baina baduela eragina gure nortasunaren eta gure nahien eraikuntzan. Eta, gainera, nerabezeroan eragin handikoa izan daiteke. Askotariko helburuak dituzten emakume batzuk, halakoaren andregaiaren rola... edo amaorde gaiztoaren rola bete gabe. Moldeak hautsi egin behar dira”

Emakume trans heterosexual gazte eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

EMAITZA KUANTITATIBOAK

Populazioari oro har eginiko inkestaren bidez, fikziozko telesailetan aurkitzen diren indarkeria matxisten inguruko pertzepzioaz lortutako datuak azaldu aurretik, produktu horien kontsumoari buruzko lehen atal bat aurkeztuko dugu, inkestatuen sexuaren, adinaren eta baliabide ekonomikoen arabera.

Eskuratu diren datuen arabera, **inkestatuen % 80 ere fikziozko telesailen ikusle da**. Unibertso honetan, **emakumeek maizago kontsumitzen dituzte telesailak**: inoiz telesailek ikusten ez dutela adierazi duten pertsonen artean, gizonen ehunekoa % 23 inguru da, eta emakumeena, % 18,3ra jaisten da zifra hori. Sakonago aztertuta, telesailak “egunero” edo “astean zenbait aldiz” ikusten dituztela adierazitako emakumeen ehunekoa % 46,5 da, eta gauza bera adierazitako gizonena, aldiz, % 36,1.



Adinaren araberako azterketak erakusten du 35 urtetik beherako 10 pertsonatik 9k horrelako telesailak ikusten dituztela, eta, oro har, maizago ikusten dituztela galdetutako gainerako populazioak baino. Deigarria da 51 urtetik gorakoen ia % 30ek telesailik batere inoiz ikusten ez dutela esan izana.

Datu horiek aditzera ematen digute, populazio inkestatuaren artean telesailen kontsumoa orokor samarra izan arren, **produktu-mota hori gehienbat emakumeek eta 35 urtetik beherako pertsonak kontsumitzen dituztela**.

2. GRAFIKOA ZER MAIZTASUNEZ IKUSTEN DITUZU TELESAILAK?

SEXUA Emakumea Gizona Guztira


ADINA 18 - 35 urte 36 - 50 urte 51 edo gehiago Guztira



Pertsona gehienek telesailak **doako telebistan** ikusten dituzte oraindik, nahiz eta belaunaldi arteko aldaketa nabaria den:

- Adin handienekoen artean, % 75,3k doako telebistetako telesailak ikusten dituzte, eta % 7,8k baino ez ditu ikusten deskarga-atarietan.
- Gazteen artean, telesailak ikusteko erarik ohikoena ordainpeko plataformena da (% 61,7), doako telebista % 47,2ra jaisten da, eta Interneteko atariak % 32,2raino igo.
- Egoera sozioekonomiko okerreneko pertsonen artean ere badira handiagoak doako eta ordainpeko kanalen bidezko kontsumoen arteko aldeak.

3. GRAFIKOA TELESAILAK IKUSTEN DITUZU... (ERANTZUN ASKOKOA)



EGITURAZKO INDARKERIA



10. TAULA LABURPEN-KOADROA: EGITURAZKO INDARKERIA FIKZIOZKO TELESAILEN ESPARRUAN

EGITURAZKO INDARKERIA FIKZIOZKO TELESAILATAN

- ✓ Inkestatuen % 70,3k uste du telesailak gutxitan edo inoiz ez dutela erakusten gizonen eta emakumeen arteko berdintasunezko errealitate bat, eta ehuneko hori % 74ra iristen da emakumeen kasuan; gizonetan % 64 dela, bestalde.
- ✓ % 55en aburuz, eraso sexistak gertatzen direnean, modu kritikoan islatzen dira, eta ehuneko hori % 59ra iristen da emakumeen kasuan, eta % 48ra jaisten da gizonen artean.
- ✓ % 72k uste du telesailak gizonen nagusitasun edo pribilegiozko egoera bat erakusten dutela, emakumeen aldean.
- ✓ Inkestatuen % 33,7k dio (emakumeen artean, % 35,8) mindua sentitu dela telesailen batean genero-indarkeria, gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeria edo LGTBI+ kolektiboaren errealitatea tratatzeko moduagatik.


Fikziozko telesailen esparruan dauden egiturazko indarkeriak identifikatzeko xedez, inkestatuei galdetu diegu zer pertzepzio duten aurretiaz Aholkularitza Taldeak identifikatutako eta dokumentu honetako esparru teorikoan azaldutako zenbait indarkeriari buruz.

Pertsona horiek sexuaren araberako lan-banaketa berrekoizten dela ikusi dute fikziozko telesailatan. Hala, **inkestatuen % 87,2k pentsatzen du fikziozko telesailatan familian bizitzen ageri diren emakumeek zaintzaile-rola hartu ohi dutela**. Azterketan jaso diren profilen artean, nabarmendu behar da indarkeria-mota horri buruz kontzientzia-mailarik handiena dutenak, gehienbat, hauen artean daudela:

- Emakumeen artean, % 89k baiezko erantzuna eman baitu galdera honetan, eta gizonen kasuan, aldiz, % 84k.
- 36 urtetik 50 urtera bitartekoen artean (% 89k baiezko erantzuna eman du).

→ Baliabide gutxieneko pertsonen artean (% 92). Interesgarria da nola jaisten den, baliabide ekonomikoek gora egin ahala, genero-rolak berrekoiztearen inguruko kontzientzia, orduan ere handia bada ere: baliabide-maila ertaina dutenen % 89k eta baliabide-maila handikoen % 84k baiezko erantzuna eman dute galdera honetan.

4. GRAFIKOA FAMILIAN BIZI DIRENEAN, TELESAILTAKO EMAKUMEAK ARDURATZEN DIRA ETXEKO LANEZ EDO FAMILIAREN ZAINTZAZ



Azterketan aurrera eginik, ikusten da % **70,3k** ikusten duela telesailek gutxitan edo inoiz ez dutela erakusten berdintasunezko egoera bat gizonen eta emakumeen artean. Kasu honetan ere emakumeak dira kritikoagoak, haietatik % 74k erantzun baitu ildo horretan, eta gizonen artean, aldiz, % 64k. Aurreko galderan bezala, baliabide gutxiagoko pertsonak identifikatzen dute gehienbat arazo hori: % 76k eman baitu horrelako erantzuna, eta baliabide ekonomiko gehiago dituztela adierazitakoetatik, ordea, % 66k.


Balorazio horrek bi hausnarketa egitera eramán gaitzake. Batetik, telesailek oraindik matxistak diren errealitate batzuk erakusten dituztelako kontzientzia, gure gizarteak hala izaten jarraitzen duen bezala. Eta bestetik, telesailek gizartean dagoena berrekoizten dutela, eta “aitzindari” izan beharrean eta eredu alternatiboak proposatu beharrean, aukera hori baztertu, eta ez dutela aniztasunezko iruditeria kolektiborik eraikitzen.

5. GRAFIKOA NIRE IRITZIZ, TELESAILEK GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNEZKO ERREALITATE BAT ERAKUSTEN DUTE



% 72k uste du telesailek gizonen nagusitasun edo pribilegiozko egoera bat erakusten dutela, emakumeen aldean. Emakumeek, 50 urtetik gorakoek eta zailtasun handieneko egoera ekonomiko batean daudenek adierazten dute adostasun handiagoa baieztapen horrekin.


6. GRAFIKOA ORO HAR, TELESAILEK GIZONEN NAGUSITASUN EDO PRIBILEGIOZKO EGOERA BAT ERAKUSTEN DUTE, EMAKUMEEN ALDEAN



Interes berezikoak dira telesailetan **eraso sexistei ematen zaien tratamenduaren** inguruko pertzepzioak. Halakoak gertatzen direnean, % **55en aburuz, modu kritikoan islatzen dira**; ehuneko hori % 59ra iristen da emakumeen kasuan, eta % 48ra jaisten da gizonen artean. Pertzepzio bera dute gehienek, gainera, hala 36 urtetik beherakoen artean nola baliabide ekonomiko gutxiagokoen artean.

Inkestaturen erdiek baino gehiagok eraso sexisten tratamendu kritikoa egiten dela onartzea, halakoak gertatzen direnean, fikziozko telesailak indarkeria irudikatzeke era berri batzuetara bilakatu izanaren seinalea izan daiteke, izaera feministako telesailen ekoiztearen ondorioz, batik bat, halakoek, entretenitzeaz gain, agenda feministaren arazo zentralak mahaigainean jarri nahi baitituzte, hala

7. GRAFIKOA TELESAILATAN EMAKUMEEN AURKAKO ERASOAK GERTATZEN DIRENEAN, MODU KRITIKOAN ISLATZEN DIRA



nola indarkeria matxisten agerpen guztiak eta haietaz egiten den tratamendua. Daitekeena da datu horrek aditzera ematea, era berean, populazioak argiago antzematen diela eraso sexistei eta kritikoa dela haien tratamenduaren inguruan, #MeToo mugimenduaren ondorioz, beharbada; izan ere, mugimendu hori Ameriketako Estatu Batuetako zinema-industrian gertatu zen.

Elkarrizketatutako pertsonen % 33,7k dio mindua sentitu dela telesailen batean genero-indarkeria, gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeria edo LGTBI+ kolektiboaren errealitatea tratatzeko moduagatik. Ehuneko hori % 35,8ra iristen da inkestatutako emakumeen artean, eta % 29,8ra jaisten da gizonen kasuan.


Datu horiek arreta bi gaitan jartzera garamatzate: gai bat feminismoak mugimendu sozial gisa izandako lorpenei dagokie, eta bestea fikziozko telesailtako indarkeriak duen rolari lotuta dago.

Lehen gaiari dagokionez, hipotesizat aurrera liteke ikusleen aldetik kontzientzia feminista nahiz LGTBI+ pertsonen eskubideen kontzientzia gero eta handiagoa dela telesailek helarazten diguten mezu-motaren inguruan. Kontzientzia-mota hori lot liteke Euskadiko errealitate sozialean feminismoa zein sexu- eta genero-aniztasuna gero eta presenteago egotearekin, salaketen eta aldarrikapenen aldetik mugimendu feminista bera, LGTBI+ mugimendua eta kideko mugimenduak aurrera eramaten ari diren lanari esker, hirugarren sektoreko erakundeen eta askotariko kolektiboen lanarekin batera.

Bestalde, genero-desberdinkeriaz egiten den tratamenduagatik hiru pertsonatik bat mindua sentitzeak galdera bat egitera garamatza, ea nola erabiltzen den indarkeria ikus-entzunezko ekoizpenaren eremuan. Esparru teorikoan aipatu dugunez, indarkeriaren erabilera erakargarri bat baino ez da, ekoiztetxeei gehiago saltzen eta kontsumitzaile-kopurua gehitzen laguntzen diena. Gainera, indarkeriaren irudikapenak maskulinitateari lotu ohi zaizkio, eta horrexegatik dira gizonak erasotzaileak hezurramitzen dituzten pertsonaia gehienak. Aitzitik, emakumeak indarkeriazko ekintzaren biktimatzat irudikatu ohi dira, eta, gainera, hori gertatzen denean, gizona koek erreskatatu ohi dituzte.

Bestela esanda, gizonak erasotzailearen eta salbatzailearen rol bikoitzaren bidez gainirudikatzean, emakumeen protagonismoa **biktimizazio bikoitzera** baztertuta geratzen da: indarkeria jasaten dute emakumeak izate hutsagatik, eta gizon baten beharra dute salbatzeko, beren ustezko ahultasunagatik.

8. GRAFIKOA MINDUA SENTITU ZARA INOIZ TELESAILEN BATEAN GENERO-INDARKERIA, GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO DESBERDINKERIA ETA ANTZEKO GAIAK TRATATZEKO MODUAGATIK EDO HOMOSEXUALITATEAREN ETA TRANSEXUALITATEAREN TRATAMENDUAGATIK?



INDARKERIA SINBOLIKOA



11. TAULA LABURPEN-KOADROA: INDARKERIA SINBOLIKOA FIKZIOZKO TELESAILEN ESPARRUAN


INDARKERIA SINBOLIKOA FIKZIOZKO TELESAILATAN

- ✓ Pertsonaiaren batekin identifikatu direnen artean, % 70k gizonezkoak aipatu ditu.
- ✓ % 56,9k indarkeria-mota bat deritzo, gizonen aldean, emakumeek bigarren mailako rolak izateko joerari.
- ✓ Elkarrizketatutako pertsonen artean, % 92,2k uste du emakumeen aurkako indarkeria dela emakumeen gorputza erakargarriztat erabiltzea.
- ✓ Elkarrizketatutako pertsonen artean, % 89,9k uste du emakumeen aurkako indarkeria dela edertasun-kanon bakarra inposatzea.
- ✓ % 66,2k pentsatzen du, LGTBI+ pertsonaiak ageri direnean, gainerakoak baino komikoagoak edo graziosoagoak izaten direla; emakumeen artean, ehuneko hori % 69ra iristen da.

Telesailatan gertatzen diren indarkeria sinbolikoak identifikatzeko xedez, lehenik eta behin, inkestatuei galdetu zaie ea identifikatuak sentitu diren pertsonaia jakinen batekin.

Analizatu diren datuen arabera, % 7k esan du pertsonaiaren batekin identifikatua sentitzen dela. Eta hori hala da adina, generoa edo egoera sozioekonomikoa gorabehera.

9. GRAFIKOA BEREZIKI IDENTIFIKATUA SENTITZEN ZARA TELESAILTAKO PERTSONAIAREN BATEKIN?



Dena dela, **fikziozko pertsonaiaren batekin identifikatuak sentitzen direla esan dutenei zein pertsonaiarekin identifikatzen diren galdetzean, % 70ek gizonezkoak aipatu dituzte**. Horrez gain, pertsonaia horiengan gehien balioesten dituzten ezaugarriak hauek dira:

- Emakumeen aldetik, independentzia, pazientzia, umorea, lana eta dirua.
- Gizonen aldetik, kemena, borrokatzeko gaitasuna, zintzotasuna, pazientzia eta dirua.

Oro har, identifikatzen diren pertsonaiak indartsuak, ahaldunduak eta autonomoak dira, horiek izanik haien ezaugarri balioetsienak (emakumeenak zein gizonenak), hau da, tradizioz maskulinoak diren arrakasta-elementu batzuk, eta haiekin bai emakumeak bai gizonak identifikatzen dira. Baliteke datu horiek aditzera ematea baietz, fikziozko telesailen bidez indartu egiten direla genero-rolak eta maskulinitateari eta feminitateari buruz sozialki onarturiko sinboloak, bai eta haien hierarkia ere, eta telesailok sinbolo

horietaz baliatzen direla genero-desberdinkeriak indartzen laguntzen duten narratiba eta pertsonaia batzuk sortzeko.

Hurren, pertsonaiaren batekin identifikatuak sentitzea adierazitako inkestatuek aipatu dituzten pertsonaiak zein haiengan gehien balioesten dituzten ezaugarriak aurkezten ditugu xehetasunez:


12. TAULA ESADAZU PERTSONAIAREN IZENA, TELESAILA ETA PERTSONA / ZER DU PERTSONAIA HORREK ZUK IZAN NAHIKO ZENUKEENA?

PERTSONAIA	PERTSONAIA	TELESAILA	ZUK IZAN NAHIKO ZENUKEENA
Ed/Edu	Emakumea	Grey's Anatomy	Haren lana
Eimy Santiago	Emakumea	Brooklyn Nine-Nine	Haren umorea
Kate	Emakumea	Castle	Haren erabakitasuna
Nanno	Emakumea	Girl From Nowhere	Bere buruarengan duen segurtasuna
Ed/Edu	Gizona	CSI	Analisirako gaitasuna
Alabetako bat	Emakumea	Cuéntame	Ezer ez, baina identifikatzen da
Merche	Emakumea	Cuéntame	Haren pazientzia
Antonio Alcántara	Gizona	Cuéntame	Ezer ez, baina identifikatzen da
Imanol Arias	Gizona	Cuéntame	Nola lan egiten duen gustatzen zait
Carlitos	Gizona	Cuéntame	Ezer ez, baina identifikatzen da
Charlie Harper	Gizona	Two and a Half Men	Haren dirua
Quim Gutierrez	Gizona	El accidente	Haren pazientzia
Señora Dolores	Emakumea	El secreto de Puente Viejo	Haren umorea
Ed/Edu	Gizona	Élite	Haren enpatia
Melinda	Gizona	Ghost Whisperer	Espirituak ikusten ditu
Pietro	Gizona	Gomorra	Kemena eta ausardia
Protagonista	Hombre	Sons of Anarchy	Haren askatasuna

Protagonista ez den pertsonaia bat	Gizona	Sons of Anarchy	Haren izaera
Doctor House	Gizona	House	Kemena eta ausardia
Jessica Jones	Emakumea	Jessica Jones	Superheroia da, independentea, ahaldundua
Jon Snow	Gizona	Game of Thrones	Gainditzen dituen zailtasunak
Antonio Recio	Gizona	La que se avecina	Pentsatzen duena esaten du
Judith	Emakumea	La que se avecina	Urduria da, baina izaera hobetu nahi du
Judith	Emakumea	La que se avecina	Haren dirua
Ed/Edu	Gizona	Los enanos	Haren dirua
Homer Simpson	Gizona	The Simpsons	Lotsagabea, haren eromena
Emilio Aragón	Gizona	Médico de familia	Haren onberatasuna
Ed/Edu	Gizona	Mindhunter	Kriminologoak gara
Alonso de Entre Ríos	Gizona	Ministerio del tiempo	Kemena eta ausardia
Ed/Edu	Gizona	Modern Family	Haren umorea
Gloria	Emakumea	Modern Family	Ezer ez, baina identifikatzen da
Phil	Gizona	Modern Family	Xaloa da, teknologia gustatzen zaio
Jon Kortajarena eta José Coronado	Gizona	Ns/Nc	Nola lan egiten duen gustatzen zait
Jorge Javier Vazquez	Gizona	Ns/Nc	Gozotasuna, edukazioa, zintzotasuna
Will Smith	Gizona	The Fresh Prince of Bel-Air	Haren umorea
Ed/Edu	Gizona	Resident	Borrokalaria bat da
Ed/Edu	Gizona	The Big Bang Theory	Ezer ez, baina identifikatzen da
Sheldon	Gizona	The Big Bang Theory	Pentsatzen duena esaten du
Sheldon	Gizona	The Big Bang Theory	Haren adimena
Leonard	Gizona	The Big Bang Theory	Haren nortasuna
Leonard	Gizona	The Big Bang Theory	Ezer ez, baina identifikatzen da
James Macmon	Gizona	The Millers Roo	Bizkortasuna, zirt edo zartekoa


Telesailetan berrekoizten diren indarkeria sinbolikoen analisisan aurrera eginik, ikusten dugu, inkestatuen % **56,9k indarkeria-mota bat deritzola, gizonen aldean, emakumeek bigarren mailako rolak izateko joerari**. Pertzepzio hori antzekoa da emakumeen zein gizonen artean, eta ez du lotura berezirik adinarekin. Hilabete-amaierara heltzeko zailtasun handiagoa dutenak dira kritikoak, eta, beste baieztapen batzuetan ikusi den bezala, ongizate-mailak gora egin ahala, indarkeria horiei antzemateko pertzepzio-mailak behera egiten du.

10. GRAFIKOA ZURE USTEZ, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA-MOTA BAT DA... GIZONEN ALDEAN, EMAKUMEK BIGARREN MAILAKO ROLAK IZATEA (BAIEZKO ERANTZUNEN %)




Ildo berean, **gehiengoaren sentsibilitate bat dago emakumearen gorputza erakargarriztat erabiltzearen inguruan, eta indarkeria-motatzat ere definitzen da (zailagoa izaten da hori ikusgai ez diren indarkeria-motez ari garenean)**. Hala, elkarrizketatutako pertsonen % 92,2k praktika hori emakumeen aurkako indarkeria-motatzat jotzen dute. Berriz ere, emakumeek agertu dute gai horren inguruko kontzientzia handiagoa, haietatik % 94,5ek eman baitu baiezkoko erantzuna galdera horretan, eta gizonen kasuan, aldiz, % 87,8k.

11. GRAFIKOA ZURE USTEZ, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA-MOTA BAT DA... EMAKUMEAREN GORPUTZA IKUSLE GEHIAGO IZATEKO ERAKARGARRITZAT ERABILTZEA (BAIEZKO ERANTZUNEN %)




Era berean, **elkarrizketatutako pertsonen artean, % 89,9k uste du emakumeen aurkako indarkeria-mota bat dela edertasun-kanon bakarra inposatzea**. Kasu honetan, ez dago alde adierazgarririk emakumeen eta gizonen artean, ez eta adin-taldean edo egoera ekonomikoen artean ere.

12. GRAFIKOA ZURE USTEZ, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA-MOTA BAT DA... EDERTASUN-KANON IA BAKARTZAT EMAKUME GAZTE, MEHE ETA APAINARENA ERAKUSTEA (BAIEZKO ERANTZUNEN %)



% 66,2k pentsatzen du, LGTBI+ pertsoniak ageri direnean, gainerakoak baino komikoagoak edo graziosoagoak izaten direla, eta emakumeen artean, ehuneko hori % 69ra iristen da. 35 urtetik beherakoek eta zailtasun handieneko egoera ekonomiko batean daudenek, emakumeekin batera, neurri handiagoan antzematen diote horrelako indarkeriari.

13. GRAFIKOA ORO HAR, PERTSONAIA HOMOSEXUAL EDO TRANSEXUALAK AGERI DIRENEAN, GAINERAKOAK BAINO KOMIKOAGOAK EDO GRAZIOSOAGOAK IZATEN DIRA





TEKNOLOGIA-ESPARRUA

TELEFONIA MUGIKORRA

EMAITZA KUALITATIBOAK

EGITURAZKO INDARKERIA



13. TAULA LABURPEN-KOADROA: EGITURAZKO INDARKERIAK GAILU MUGIKORREN KONTSUMOAREN ESPARRUAN

EGITURAZKO INDARKERIA

- ✓ Teknologia berriekin ohituta ez dauden pertsonen bazterketa soziala sustatzen du, edo aukera pertsonal gisa, besterik gabe, gailu hori ez edukitzea erabaki dutenena. Arrisku handieneko profilen artean, adin handieneko emakumeak.
- ✓ Beharrian, betebehar eta kontrol-mota berriak sortzen ditu, balio kapitalista eta heteropatriarkaletan oinarritzen direnak eta genero-rolak indartzen dituztenak.
- ✓ Mugikorraren bidez sorturiko beharrian eta betebehar berriek ekoizpeneko eta berrekoizpeneko lanetarako nahiz aisialdirako erabiltzen diren denborak malgutzea eta gainjartzea eragiten dute, eta horrek zuzeneko inpaktua du emakumeen lan-kargaren gehikuntzan.
- ✓ Komunikazio azkar eta oldarkor bat sustatzen dute, zaintzaren ikuspegitik pertsonak txikitu eta ikusezin bihurtzen dituenak.

Esparru teorikoan aditzera eman dugunez, ikuspegi kritiko feministatik, gailu mugikorren kontsumoak galdera asko sortzen eta erantzun gutxi ematen ditu: gailuok pertsonen bizitzan inpaktu handia dute, kapitalismoak sinestarazten digulako inklusioak, irisgarritasunak eta komunikazioak bizitza errazten digutela. Hala ere, kapitalismoaren eta heteropatriarkatuaren berezko balioetan oinarritzen den gizarte-eredu bat eraikitzen dute. Gailu mugikorren kontsumoari loturiko egiturazko indarkerietan sakontzeko helburuz, adituek aditzera ematen dute, lehenik eta behin, halako produktuen kontsumoak nola dakarren berekin beharrian berriak sortzea, eta, azken horien artean, etengabeko konexio digitala aipatu dute. Horren inguruan, zehaztu dute

daitekeena dela gailu mugikor bat edo etengabeko konexio digital bat ez izateak **teknologia berriekin ohituta ez dauden pertsonen bazterketa soziala ere eragitea, edo aukera pertsonal gisa, besterik gabe, gailu hori ez edukitzea erabaki dutenena**. Bereziki LGTBI+ kolektiboak aipatzen dira, baina baliabide ekonomiko gutxiko pertsonak eta adin handieneko emakumeak ere bai, gehienbat arriskuan dauden profiltzat:

Nabarmendu behar da askotariko iritziak ikusi direla adituaren artean, gailu hau indarkeria-sortzailatzat jotzeko garaian, batzuek uste baitute mugikorraren erabilerak gizartearen badoen indarkeria-maila berrekoizten duela. Iritzi horrez gain, aditu batek zehaztu du **teknologia ez dela neutroa generoarekiko eta, hortaz, indarkeria matxistak sortzeko gai dela**⁴³:

"Kasu honetan, adin jakin batzuetatik gorako emakumeak telefono mugikorraren erabileratik baztertuta daude"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Nire ikuspuntutik, termino teknologiko gehiegi jartzen zaizkie teknologiei (ziberjazarpena, ziberbullyinga, sextinga, sextortsioa...). Nire ustez, arretagunea teknologietan jartzeak ikustea eragozten digu, egiatan, bizi ditugun intolerantzia sozialekin eta arazo sozialekin lotutako indarkeria-motak direla. Teknologia demonizatzen ari gara. Teknologia tresna da, baina arazoa da daukagun gizarteak, esaterako, neska nerabeak sexualizatzen dituela, emakumeak balioz gabetzen, kosifikatzen dituela, eta abar"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Kontrola sortzen du eta indarkeriazko jarrerak bultzatzen ditu. Azalpen asko eman beharra ere sor dezake, eredu patriarkal tradizionalari lotutako kontrol-eredu bat sortzen du"

Aditu bati egindako elkarrizketa

⁴³. Begirada feministatik teknologia erabiltzeko aukeraz eta haren erabileraz landu den literatura handiaz gain, aipatu behar dira, haien interesa dela-eta, aparatu teknologikoen diseinua genero-ikuspegitik aztertu duten azterlanak. Arlo horretan, nabarmendu behar da Inmaculada Perdomo Reyesek 2010ean La Lagunako Unibertsitatearentzat egindakoa: Género y Tecnologías. La relevancia del diseño centrado en el usuario desde el punto de vista de género. Hemen eskuragarri: <http://igualdad.iturbrok.com/documentos/2651/g%C3%A9nero-y-tecnolog%C3%ADas.-la-relevancia-del-dise%C3%B1o-centrado-en-el-usuario-desde-el-punto-de-vista-de-g%C3%A9nero/YjowOw==/155/>

"Publizitate kapitalista guztia da diskriminatzailea, behar ez duzun zerbaiten beharra eta mendekotasuna sortzen dizu; hori indarkeria da"

Aditu bati egindako elkarrizketa

Hausnarketa beraren ildotik, azaltzen da mugikorraren erabilerak sortutako beharrian berriek **ekoizpeneko eta berrekoizpeneko lanetarako nahiz aisialdirako erabiltzen diren denborak malgutzea eta gainjartzea eragiten dutela eta horrek zuzeneko inpaktua duela emakumeen lan-kargaren gehikuntzan**, oraindik emakumeak arduratzen baitira gehienbat zaintzako lanaz:

"(Mugikorrek) bai, emakume batzuen kargak areagotu ditzakete zaintzaren arloan, hiperkonexioa dela medio"

Aditu bati egindako elkarrizketa

Emakumeen lan-karga gehitzeaz gain, adituek aipatu dute bat-bateko mezularitzako aplikazioen berehalakotasunak eta azkartasunak (WhatsApp, Telegram, etab.) **komunikazio oldarkorragoa eta zuzenagoa, testuingururik gabekoa, sor dezaketela**. Zaintzaren ikuspegitik, horrelako komunikazioa pertsona bat txikitu eta ikusezin bihurtzen du.

"Mezularitza bidezko komunikazioa lehorra, azkarra da, eta ez du aukerarik ematen pertsona nola dagoen jakiteko, nor ari den idazten, nola ari den idazten, zein unetan dagoen pertsona hori. Komunikazio horrek ikusezintasun handia ematen dio pertsonari zaintzaren ikuspegitik. Pertsona ongi ala gaizki dagoen jakin gabe, haren aurpegiari begiratu gabe mezu bat idazten dudanean, komunikazioa askoz oldarkorragoa suertatu daiteke"

Aditu bati egindako elkarrizketa

INDARKERIA SINBOLIKOA



14. TAULA LABURPEN-KOADROA: INDARKERIA SINBOLIKOAK GAILU MUGIKORREN KONTSUMOAREN ESPARRUAN

INDARKERIA SINBOLIKOA

- ✓ Gizarte ultranartzisista bat sustatzen dute, balio kapitalista eta heteropatriarkalak oinarritzat dituena, genero-mandatuak naturalizatzen eta desberdinkeriak sustatzen dituzten balio batzuk, hain zuzen.
- ✓ Emakumeek eta gizonek adierazitako iritziak desberdin tratatzea: maskulinoaren nagusigoa.
- ✓ Irudiak eta edukiak zabaltzea emakumeen gorputza sexu-objektutzat hartuta.
- ✓ Desberdina dela irizten zaiona barregarri utzi eta ikusezin atxikitzea. Arrisku handieneko profilen artean, pertsona transak.

Elkarrizketaturiko aditu zein kontsumitzaileek gailu mugikorren kontsumoari lotutako zenbait indarkeria-mota aipatu dituzte indarkeria sinbolikoen arloan. Lehenik eta behin, aditzera ematen da mugikorraren bidez erabiltzen ditugun aplikazioak (Instagram, Facebook, WhatsApp, etab.) gizarte ultranartzisista bat sustatzen ari direla, oinarrian balio kapitalista eta heteropatriarkal batzuk dituena, hala nola itxuraren eta gorputz perfektuaren gurtza, eta horrek neurrigabeko zorionean, kontsumismoan, azalkean eta indibidualismoan –besteak beste– oinarrituriko bizi-eredu batzuk zabaltzea bultzatzen duela. **Argazki, irudi, bideo, testu eta abarren bidez zabaltzen diren balio eta bizimodu horiek, batetik, alegiazko perfekzio bat lortzeko autoeskakizuna areagotzen dute eta, bestetik, genero-ikuspegitik, inpaktu desberdina dute emakumeen gain, gizonen gain eta heteroarauari buru egiten dion beste edozein subjektuen gain.** Emakumeen kasuan, balio horiek presio soziala areagotzen dute gizartean agertu behar duten moduaren inguruan, genero-mandatuak naturalizatzen dituzte, eta dauden desberdinkeriak berrekoizten dituzte:

"Ez dut argi zergatik egon behar dudan beti aldarte onean, eta jendea gauzak egitera bultzatzen; kanpotiko betebeharrak bat dago beti bikain eta zoragarri egoteko. Atentziora ematen dit, neure buruari gehiegi eskatzen hasten naizelako, eta ez dut horren beharrik"

Emakume zis heterosexual eta gutxi kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

Aurrekoari loturik, **txat batean iritzi desberdinak daudenean emakumeei eta gizonei ematen zaien tratu desberdina ere jotzen da indarkeria sinbolikotzat**. Azaltzen denez, emakumeak gurasokeria handiagoz tratatu ohi dira, hau da, pertsona batek bestearen aldean duen ustezko nagusitasuna ostentzeko adeitasun bortxatu batez. Zehazki, genero maskulinoaren nagusitasuna –haren iritziak onarpen sozial eta balio handiagoak izatearekin lotuta– telefonia mugikorraren bidez aurrera eramaten diren komunikazioetan azaleratzen da, emakumeen iritziak gehiago barreagarritzea sustatzen baitute:

Emakumeen gorputza sexu-objektutzat hartzen duten irudiak zabaltzea da elkarrizketatuek aipatu duten beste indarkeria sinboliko bat. Kasu honetan, emakumeen kosifikazioak, fikziozko telesailen

esparruan lehen ere identifikatu dugunez, badu inpaktu argi bat indarkeriaren aldetik, ikuspegi bikoitz batetik: batetik, iruditeria kolektiboan emakumeen gorputz-ideala kontsumo-gai gisa, –beste kontsumo-gai batzuen artekoa– ikustea areagotzen du; eta, bestetik, emakumeen artean frustrazio-maila handia sor dadin sustatzen du, ezin lortuzko estandar estetiko batzuk ez betetzeagatik.

"Maila pertsonalean, txat batean, iritzia emakume batek ematen duenean eta norbait ados ez dagoenean, gurasokeria handiagoz tratatzen da, gizon bat denean baino. Gizonak baino, emakumeak barreagarri uzten dituzten askoz eduki gehiago mugitzen dira"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Oso ohikoa da konnotazio sexualak dituzten irudiak eta bideoak biralizatzea emakumeak sexu-objektu hustzat hartuta"

Emakume zis lesbiana nagusi eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

"Nori ez zaio iritsi WhatsApeko talderen batera emakume baten irudia, klik egin, eta 'sorpresa' edukitzea?"

Gizon transexual heterosexual nagusi eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

Azterketan aurrera eginik, elkarrizketatutako kontsumitzaileek indarkeria sinbolikotzat aipatu dute **sozialki desberdina dela irizten zaion guztia ikusezin atxikitzea edo umore antzean kritikatzeko**. Sarritan, halako txisteeek sozialki onarturik ez dauden kolektiboak, pertsona transak kasu, barregarri uzten dituzte eta haien inguruko estereotipoak areagotzen dituzte:

"Desberdina denari erasotzen zaio beti, diferenteari erasotzeko ausardia izaten da; kolektibo transexuala da beti erasoena. Zakila gizon eta bulba emakume denean, oso zaila da hain heziketa hertsia aldatzea. Emakumeen kolektiboa ere okerrago suertatzen da, lehen isildu egiten zirelako eta orain ez"

Gizon transexual heterosexual nagusi eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

UMOREAREN ERABILERA, HIRU EDUKI-MOTAREN ZABALKUNDEARI LOTZEN ZAIO:

- Umorea emakumeen eta LGTBI+ kolektiboen aurkako indarkeria-egoerak ezkutatzeko edo minimizatzeko baliabidetzat erabiltzen duen edukia.
- Normalizatutzat transmititzen den indarkeriaz betetako edukia, testuan zein irudian.
- Indarkeriazko jokabideen edo erakustaldien aurrean salaketa edo zentsura sozial gutxi agertzen duten edukiak euskarri grafikoetan, sare sozialetan edo WhatsApeko taldeetan.

ZUZENEKO INDARKERIA



15. TAULA LABURPEN-KOADROA: ZUZENEKO INDARKERIAK GAILU MUGIKORREN KONTSUMOAREN ESPARRUAN

ZUZENEKO INDARKERIAK

- ✓ Bikotearen barruko kontrola eta ziberjazarpena.
- ✓ Edukiak baimenik gabe partekatzea, izaera sexualekoak gehienetan, emakumeak barregarri utzi eta umiliatzeko.
- ✓ Mugikorrek dakartzan beharizan eta betebeharrak sorturiko estresa, emakumeen lan-kargaren gehikuntzari loturikoa.
- ✓ Irudiak eta edukiak zabaltzea emakumeen gorputza sexu-objektutzat hartuta.
- ✓ Sozialki onartuta ez dagoenari buruzko eduki diskriminatzaile eta sexisten ugaritzeak eragindako umiliazioa eta jendeak, oro har, erreakziorik ez agertzea kontrola, umiliazioa edo bestelako mehatxuren bat gertatzen diren egoeren aurrean.

Elkarrizketetan, mugikorraren erabilerak gure eguneroko bizitzan duen inpaktuari buruz galdetu genuenean, zuzeneko indarkeriatzat sailkatu ditugun zenbait indarkeria aipatu zituzten galdetutako pertsonak. **Batetik, esaten da mugikorraren erabilerak bikotearen barruko kontrola areago dezakeela, mezuak eta deiak baimenik gabe begiratzuz edo kontrolatu nahi den pertsonaren kokapena jakitea ahalbidetzen duten aplikazioak erabiliz**⁴⁴. Gogoarazten dugu kontrolak eta jelsiak harremanak bizitzeko modu jakin batekin dutela zerikusia: heteroarauzko maitasun erromantikoarekin; jakina denez, azken horrek zuzeneko lotura du gizonak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka gauzatzen duen indarkeriarekin, eta hura, aro digitalean, fenomeno berri batzuetan zertzen da, ziberjazarpenean, besteak beste:

⁴⁴. Kontrol-ekintzak gauzatzeko balio duten aplikazio mugikorrei buruzko artikula El Paisen, 2019ko abuztuaren 5koa: https://elpais.com/tecnologia/2019/07/30/actualidad/1564504146_617610.html

"Senarrak, mutil-lagunak zure telefonoa begiratzea, zure intimitatea inbaditzea, hori indarkeria da"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Gaur egun telefonia mugikorrek norberaren bizitza jendaurrean jartze horrekin guztiarekin, indarkeriak bultzatzen dira. Indarkeriaren susperraldia gertatu da teknologiagatik. Lehen, mutil batek susmoa zuen bikotekideaz, baina orain errazagoa da kontrol-maila areagotzea"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Ziberjazarpenaren kasuan, batez ere emakumeei eragiten die. Nerabezaroan mutil-lagunak kontrolatzen dituzten emakumeak ere aipatzen dira, baina askotan galdetu behar da kontrol horren zergatiaz, nondik datorren, kontrol... maitasun erromantikoa da; nerabeek maitasun erromantikoaren ikuskera oker bat dute"

Emakume zis heterosexual gazte eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

Elkarrizketatuek aipatu duten beste zuzeneko indarkeria-mota bat **mugikorraren bidez partekatzen diren edukien kontrol-galeraren** ingurukoa da. Horri dagokionez, pertsona baten irudi publikoa konprometitzeko moduko argazki edo bideo batzuk hamaika foro, txat edo webgunetan argitara eta kopia litezke. Izaera sexualeko edukiak izaten dira bereziki, eta emakumeak izaten dira biktimak nagusiki⁴⁵:

"Eduki sexualeko zure argazki bat bidalita ere, ez duzu argitaratzeko baimenik ematen, esaterako. Delitu-figura berriak dira, Zigor Kodean jaso direnak, baina azpian dagoen arazoa errotikoa da. Arazoa matxismoa da, irudietan nahiz kontrola eta eskakizunak egiteko jokabide horietan bideratuta"

Emakume zis heterosexual gazte eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

⁴⁵. Ikerketa hau egiten ari ginela, Iveco enpresako emakume batek bere buruaz beste egin zuen, haren bideo sexual bat biralizatu zelako. Bikote ohiak zabaldu zuen bideo hori, eta lankideek biralizatu zuten, hainbat aldiz birbidaltzean. Hona hemen El Mundo egunkariko albistea, 2019ko maiatzaren 29koa: <https://www.elmundo.es/madrid/2019/05/28/5ced493efdddfb0758b48fb.html>

Mugikorrak dakartzan beharizan eta betebeharrak berriek sorturiko estresa, egiturazko indarkeriari buruzko atalean ere aipatua, beste zuzeneko indarkeria-moten artean sailkatzen da. Kasu honetan ere, emakumeei eragiten die nagusiki, estresa eta frustrazioa handiagotzea teknologiarekin areagotu egiten diren zaintza-arloko betebeharrak eta ardura batzuk betetzeko ezintasunarekin lotzen baitira:

“Telefonoaren kontu horrek guztiak estresa sortu du. Edo WhatsAppen sartzen nintzen sozialki baztertuta ez geratzeko, edo iloben hazieraren inguruko gauzak galtzen nituen. Arlo sozialean, gatazkak sortzen ditu, guztirako denbora desberdinak daudelako”

Emakume zis lesbiana nagusi eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

Azkenik, sozialki desberdina dela irizten zaionari buruz txisteak eta umorezko irudiak zabaltzea askotan iraintzat eta umiliaziotzat bizi izaten dute “txantxagai” hartzen diren kolektiboek. Kasu honetan, elkarrizketatutako lesbiana batek adierazi zuen umiliazioa sortzen dela, ez txisteagatik beragatik, baizik eta txantxa horren inguruan egiten diren iruzkinengatik. Ikuspegi horretatik, **kritikatzen da jendeak, oro har, erreakziorik ez agertzea kontrola, umiliazioa edo bestelako mehatxuren bat gertatzen diren egoeren aurrean.** Aipatzen da pertsona edo talde jakin batzuek –heteroarazko patrioiak betetzen dituztenek, normalean– beren botere-egongunetik eta eragin sozialerako ahalmenetik gauzatzen duten jokoa, arauari buru egiten dutenen aurka, azken horiek izanik gehienbat horrelako indarkeriaren arriskupean egoten direnak.

EMAITZA KUANTITATIBOAK

EGITURAZKO INDARKERIA:



16. TAULA LABURPEN-KOADROA: EGITURAZKO INDARKERIAK GAILU MUGIKORREN KONTSUMOAREN ESPARRUAN

EGITURAZKO INDARKERIA

- ✓ Mugikorrek desberdin erabiltzea: emakumeek gehiago erabiltzen dute mugikorra sare sozialetan edukiak argitaratzeko, eta, hori dela-eta, neurri handiagoan egon daitezke analisi kualitatiboan atzeman diren indarkeria matxisten arriskupean.
- ✓ Genero-estereotipoak berrekoiztea: emakumeek gehiago erabiltzen dute mugikorra etxeko eta zaintzako lanak kontrolatzeko eta egiteko, nahiz eta estatistika aldetik aldeak adierazgarriak ez diren.

Eskuratu diren datuen arabera, telefono mugikorra komunikatzeko balio duen tresna bat da, familiaren ingurunean batik bat. Emakumeek zertxobait gehiago erabiltzen dute mugikorra, gizonak baino, sare sozialetan edukiak argitaratzeko, eta beste pertsona batzuek sare horietara igotzen dutena ikusteko. Aldeak, txikiak izan arren, badira adierazgarriak estatistikaren aldetik, eta baliteke horrek aditzera ematea, hain zuzen ere, baietz, gailu horiek sorturiko beharrizan (etengabeko konexioa) eta betebeharrak (jendaurrean egotea) berriek badutela inpaktu handiago bat emakumeen gain.

Badaude aldeak, orobat, adierazgarriak ez izan arren, mugikorrek etxeko lanak kontrolatzeko bidetzat erabiltzean, edo seme-alaben ikastetxeko lanak kontrolatzeko, umeak dituztenen kasuan. Etxeko eta zaintzako lanari lotutako eginkizun horiek neurri handiagoan emakumeek hartzen dituzte beren gain, eta daitekeena da horrek aditzera ematea **genero-estereotipoek badutela eragina emakumeek eta gizonak gailu mugikorrek erabiltzen ditugun moduan.**

17. TAULA ZERTARAKO ERABILTZEN DUZU TELEFONO MUGIKORRA? (ERANTZUN ASKOKOA)

	GUZTIRA	SEXUA KUOTARAKO		ADINA			NOLA HELTZEN ZARA HILABETE-AMAIERARA?			
		EMAKUMEA	GIZONA	18-35 URTE	36-50 URTE	50 EDO GEHIAGO	ZAILTASUNEZ	HAINBESTEAN	EROSOTASUNEZ	ED/EDE
Familiakoekin harremanetan egoteko	% 92,5	% 93,4	% 91,1	% 91,5	% 92,7	% 93,2	% 92,1	% 91,3	% 93,7	% 100
Familiakoak ez diren pertsonekin harremanetan egoteko	% 85,4	% 86,4	% 83,6	% 85,9	% 85,5	% 84,7	% 82,2	% 85	% 87	% 81,3
Interneten informazioa kontsultatzeko	% 42,1	% 43,3	% 40	% 42,7	% 47,9	% 33,6	% 31,7	% 42,5	% 45	% 43,8
Sare sozialetan edukiak argitaratzeko	% 23,4	% 26,3	% 18,6	% 43,2	% 22,1	% 8,5	% 16,8	% 25,1	% 22,3	% 50
Posta elektronikoa erabiltzeko	% 16	% 18,3	% 12,1	% 15,1	% 21,1	% 9,8	% 12,9	% 17,7	% 15	% 18,8
Lanerako	% 14,4	% 13	% 16,8	% 14,6	% 17,4	% 10,2	% 10,9	% 14,7	% 15,7	% 6,3
Beste batzuek sare sozialetara igotzen dutena ikusteko	% 14	% 18,5	% 6,4	% 29,1	% 10,1	% 6,4	% 6,9	% 16,5	% 13	% 25
Argazkiak egiteko	% 10,3	% 11,5	% 8,2	% 9	% 11,7	% 9,4	% 7,9	% 9,9	% 11,3	% 12,5
Bideoak ikusteko	% 9,3	% 9,1	% 9,6	% 14,6	% 10,1	% 3,8	% 7,9	% 9,6	% 9,3	% 12,5
Nire gestioak egiteko (erosketak, kontsultak...)	% 8,1	% 8,9	% 6,8	% 9,5	% 9,1	% 5,5	% 8,9	% 7,5	% 8,3	% 12,5
Kamera erabiltzeko	% 6,7	% 7	% 6,1	% 7,5	% 7,9	% 4,3	% 6,9	% 7,5	% 5,3	% 12,5
Jolasteko	% 6,4	% 7	% 5,4	% 7,5	% 6,6	% 5,1	% 5,9	% 6,3	% 7	
Musika entzuteko	% 6,3	% 6,8	% 5,4	% 10,1	% 5,4	% 4,3	% 3	% 6,3	% 7,3	% 6,3
Tresnak erabiltzeko	% 3,5	% 3,8	% 2,9	% 1	% 5,4	% 3	% 2	% 3,9	% 3,7	
Guztirako	% 2,7	% 2,1	% 3,6	% 3	% 2,5	% 2,6	% 4	% 1,8	% 3,3	
Nire hitzorduetarako agenda edo egutegia erabiltzeko	% 1,7	% 1,5	% 2,1	% 0,5	% 2,5	% 1,7		% 0,6	% 3,7	
Gai profesionaletarako agenda edo egutegia erabiltzeko	% 1,5	% 0,8	% 2,5	% 1	% 2,2	% 0,9	% 1	% 1,5	% 1,7	
GPS	% 1,2	% 0,8	% 1,8	% 1,5	% 1,3	% 0,9		% 0,6	% 2,3	
Familiako besteen gestioak egiteko	% 1,1	% 1,1	% 1,1		% 1,9	% 0,9	% 2	% 0,9	% 1	
Etxeko lanen kontrola eramateko	% 0,8	% 1,1	% 0,4	% 0,5	% 0,6	% 1,3		% 1,2	% 0,7	
Familiako besteen hitzorduetarako agenda edo egutegia erabiltzeko	% 0,7	% 0,4	% 1,1		% 0,9	% 0,9		% 0,3	% 1,3	
Kirol-aplikazioak erabiltzeko	% 0,7	% 0,2	% 1,4		% 1,3	% 0,4		% 0,9	% 0,7	
Seme-alaben ikastetxeko pertsonekin harremanetan egoteko	% 0,5	% 0,8			% 1,3		% 2		% 0,7	

Azterketa emakumeengan zentraturik, desberdintasun batzuk ikusten ditugu erabileraren aldetik, adinaren edo egoera ekonomikoaren arabera:

- Emakume gazteenek gehiago erabiltzen dute telefonoa beste pertsona batzuekin deien edo mezu laburren bidez harremanetan egotea ez diren beste gautza batzuetarako (informazioa bilatu, sare sozialak, musika...). **Hau da, gailua gehiago erabiltzean, emaitza kualitatiboen atalean adierazitako indarkeria matxistak jasateko arrisku handiagoan daude.**
- **Zailtasun ekonomiko handiagoan dauden emakumeek, oro har, gutxiago erabiltzen dute telefono mugikorra, deiak egiteko edo mezuak bidaltzeko izan ezik; horrek baliteke aditzera ematea diskriminazio handiago bat jasateko arrisku handiagoa dutela, beste erabilera batzuei lotuta, erakundeekin izapideak egiteko garaian, adibidez.** Erakundeekin egiten diren izapide horiek aipatzen ditugunean, onlineko izapideei buruz ari gara, teknologia deiak egitea edo mezuak idaztea gainditzen duen maila batean erabili behar denean: errolda ziurtagiri elektronikoak, Gizarte Segurantzari edo Ogasunari lotutako izapideak, etab.

18. TAULA ZERTARAKO ERABILTZEN DUZU TELEFONO MUGIKORRA?

EMAKUMEEN IRITZIA ADIN-TALDEAREN ETA EGOERA EKONOMIKOAREN ARABERA

	GUZTIRA	ADINA			NOLA HELTZEN ZARA HILABETE-AMAIERARA?			
		18-35 URTE	36-50 URTE	50 EDO GEHIAGO	ZAILTASUNEZ	HAINBESTEAN	EROSOTASUNEZ	ED/EDE
Familiakoekin harremanetan egoteko	% 93,4	% 90,3	% 94,8	% 94,7	% 94,5	% 91,8	% 94,4	% 100
Familiakoak ez diren pertsonekin harremanetan egoteko	% 86,4	% 85,5	% 89,6	% 82,7	% 86,3	% 85,5	% 88,1	% 78,6
Interneten informazioa kontsultatzeko	% 43,3	% 45,5	% 48,2	% 33,8	% 31,5	% 44	% 47,5	% 42,9
Sare sozialetan edukiak argitaratzeko	% 26,3	% 45,5	% 22,3	% 11,3	% 6,4	% 27,1	% 27,1	% 57,1
Posta elektronikoa erabiltzeko	% 18,5	% 35,2	% 12,4	% 9	% 9,6	% 21,7	% 17,5	% 28,6
Lanerako	% 18,3	% 17,2	% 23,8	% 11,3	% 12,3	% 19,3	% 19,2	% 21,4
Beste batzuek sare sozialetara igotzen dutena ikusteko	% 13	% 13,1	% 15,5	% 9	% 6,8	% 15,5	% 13	% 7,1
Argazkiak egiteko	% 11,5	% 10,3	% 11,4	% 12,8	% 9,6	% 11,1	% 12,4	% 14,3
Bideoak ikusteko	% 9,1	% 13,1	% 8,8	% 5,3	% 9,6	% 9,2	% 8,5	% 14,3
Nire gestioak egiteko	% 8,9	% 11	% 10,9	% 3,8	% 9,6	% 6,3	% 11,3	% 14,3
Kamera erabiltzeko	% 7	% 7,6	% 8,3	% 4,5	% 8,2	% 7,2	% 5,6	% 14,3
Jolasteko	% 7	% 6,9	% 7,3	% 6,8	% 5,5	% 8,7	% 6,2	% 0,0
Musika entzuteko	% 6,8	% 10,3	% 4,7	% 6	% 2,7	% 6,8	% 8,5	% 7,1
Tresnak erabiltzeko	% 3,8	% 0,7	% 5,7	% 4,5	% 2,7	% 3,9	% 4,5	% 0,0
Guztirako	% 2,1	% 3,4	% 1	% 2,3	% 4,1	% 1	% 2,8	% 0,0
Nire hitzorduetarako agenda edo egutegia erabiltzeko	% 1,5	% 0,0	% 2,1	% 2,3	% 0,0	% 0,0	% 4	% 0,0
Familiako besteen gestioak egiteko	% 1,1	% 0,0	% 1,6	% 1,5%	% 1,4	% 1	% 1,1	% 0,0
Etxeko lanen kontrola eramateko	% 1,1	% 0,7	% 0,5	% 2,3	% 0,0	% 1,4	% 1,1	% 0,0
Gai profesionaletarako agenda edo egutegia erabiltzeko	% 0,8	% 1,4	% 1	% 0,0	% 0,0	% 1	% 1,1	% 0,0
Seme-alaben ikastetxeko pertsonekin harremanetan egoteko	% 0,8	% 0,0	% 2,1	% 0,0	% 2,7	% 0,0	% 1,1	% 0,0
GPS	% 0,8	% 1,4	% 0,5	% 0,8	% 0,0	% 0,5	% 1,1	% 0,0
Familiako besteen hitzorduetarako agenda edo egutegia erabiltzeko	% 0,4	% 0,0	% 0,5	% 0,8	% 0,0	% 0,0	% 1,1	% 0,0
Kirol-aplikazioak erabiltzeko	% 0,2	% 0,0	% 0,5	% 0,0	% 0,0	% 0,5	% 0,0	% 0,0

INDARKERIA SINBOLIKOA

Gailu mugikorren erabileran genero-estereotipoak berrekoizten direla inkestatuen pertzepzioan berresten da, emakumeek eta gizonek trukutzen ditugun eduki-mota identifikatzeko garaian. Hain zuzen, **inkestatuen % 41,5ek uste du emakumeek eta gizonek trukutzen ditugun edukiak bestelakoak direla. Pertzepzio hori sendoagoa da emakumeen artean (% 48,4), gizonen artean baino (% 29,3)**. Inkesta egin zaien emakumeen profilean sakontzen badugu, horren pertzepzio handiagoa dago gazteagoen artean nahiz egoera ekonomiko hobea dutenen artean.

Datu horri indarkeria sinboliko mota bat dela iritzi ezin bazaio ere, esan dugunez, inkestatuen artean dagoen pertzepzio baten berri ematen digu, genero-erolez edo estereotipo batzuen nagusitasunaz, mugikorraren bidez trukutzen dugun eduki-motari loturik.

ZUZENEKO INDARKERIA



19. TAULA LABURPEN-KOADROA: ZUZENEKO INDARKERIAK GAILU MUGIKORREN KONTSUMOAREN ESPARRUAN

ZUZENEKO INDARKERIA

- ✓ Emakumeen % 16,1ek –eta, aldiz, gizonen % 12,5ek– maiz sentitzen du ezin duela genero-desberdinkeriez hitz egin sare sozialetan eta WhatsAppeko taldeetan, liskarrei aurre egiteko arriskurik gabe.
- ✓ Emakumeen % 1,3k dio mugikorraren bidez kontrolatua sentitzen dela.
- ✓ Mugikorraren bidez mehatxatuta sentitu direla, edo erasozko mezuak jaso dituztela, esan duten pertsonen artean, guztiak emakumeak dira.

Inkestatuen % 14,8k sentitzen du maiz ezin duela genero-desberdinkeriez hitz egin sare sozialetan eta WhatsAppeko taldeetan, liskarrei aurre egiteko arriskurik gabe. Hori maizago gertatzen da emakumeen artean (% 16,1), gizonen artean baino (% 12,5). **Datu horrek aditzera ematen digu mugikorraren bidez gauzatzen den komunikazioa egiatan oldarkorragoa eta testuingururik gabekoagoa dela eta emakumeek neurri handiagoan aurre egin behar dietela umiliazio- eta eraso-egoerei, beren iritziak adierazteko garaian eta, bereziki, iritzi horiek genero-desberdinkerien ingurukoak direnean.**

Bestalde, emakumeen % 1,3k adierazi du norbaitek haren mugikorra maiz erabiltzen duela haren egoeraren berri jakiteko. Horrez gain, inkestatuen % 0,5ek jakinarazi du beste norbait maiz saiatu dela mugikorraren bidez lotsarazten edo mintzen. Gutxiengo bati eragin arren, fenomeno hori ia emakumeek baino ez dute aipatzen (% 0,8), erasozko mezuak (emakumeen % 0,2) eta mehatxuak (emakumeen % 0,4) jaso diren kasuetan bezala.

Datu horiek aditzera ematen dute emakumeek egiatan dutela gailu mugikorren erabileraren bidez zuzeneko indarkeriak jasateko arrisku handiago bat, bai eta zaugarritasun-maila handiago bat ere azterlan honetan atzemaniko eraso-moten aurrean.

20. TAULA ZEIN NEURRITAN SENTITZEN DUZU...?

MAIZ ERANTZUN DUTEN PERTSONEN %	GUZTIRA	SEXUA KUOTARAKO		ADINA			NOLA HELTZEN ZARA HILABETE-AMAIERARA?			
		EMAKUMEA	GIZONA	18-35 URTE	36-50 URTE	50 EDO GEHIAGO	ZAILTASUNEZ	HAINBESTEAN	EROSOTASUNEZ	ED/EDE
Emakumeek WhatsAppen partekatzen dituzten edukiak gizonenak ez bezalakoak dira	% 41,3	% 48,4	% 29,3	% 53,8	% 41,3	% 30,6	% 36,6	% 40,4	% 44	% 37,5
Sentitzen duzu WhatsAppeko taldeetan, edo sare sozialetan, ezin duzula genero-desberdinkeriez edo indarkeria matxistaz hitz egin, norbaiten liskarrei aurre egiteko arriskurik gabe	% 14,8	% 16,1	% 12,5	% 23,1	% 15,1	% 7,2	% 18,8	% 15,6	% 13,3	% 0,0
Norbaitek aurpegiatu dizu haren mezuei berehala erantzun ez izana	% 7,5	% 8,7	% 5,4	% 10,6	% 7,9	% 4,3	% 8,9	% 8,7	% 5,7	% 6,3
Gizonak eta emakumeak dauden WhatsAppeko taldeetan, batzuetan deseroso sentiarazten zaituzten gai sexual batzuk tratatzen dira	% 7,3	% 7,9	% 6,4	% 7,5	% 9,1	% 4,7	% 6,9	% 6	% 9	% 6,3
Emakumeentzat, edo pertsona homosexual edo transexualentzat, iraingarriak diren edukiak bidali dizkizute	% 6	% 4,5	% 8,6	% 8	% 6,6	% 3,4	% 7,9	% 4,5	% 7	% 6,3
Laneko nagusien mezu edo eskaerak jasotzen dituzu desorduetan	% 2,8	% 1,9	% 4,3	% 4,5	% 2,8	% 1,3	% 2	% 3,9	% 1,7	% 6,3
Desorduetan jasotako mezu horiei erantzutera behartuta sentitzen zara	% 28,7	% 25,5	% 31,9	% 32,4	% 32,6	% 11,8	50%	% 27,1	% 26,3	% 50
Sentitzen duzu mugikorrek betebeharrak berriak sortzen dizkizula arlo pertsonal edo familiarrean emakumea izate hutsagatik	% 2,8	% 2,8	% 0,0	% 4,8	% 2,1	% 1,5	% 4,1	% 3,4	% 1,7	% 0,0
Mugikor edo osagarriak erosteko beharra duzu, zeure taldean nabarmentzen edo integratua sentitzen laguntzeko	% 2,7	% 2,5	% 2,9	% 4,5	% 1,9	% 2,1	% 3	% 1,2	% 4	% 6,3
Norbaitek zure mugikorra erabili du (dei, mezu edo kokapenaren bidez) non zauden kontrolatzeko	% 1,2	% 1,3	% 1,1	% 1	% 1,6	% 0,9	% 2	% 0,6	% 1,7	% 0,0
Norbaitek zure mugikorra erabili du norekin egoten zaren harremanetan jakiteko	% 0,7	% 0,8	% 0,4	% 1	% 0,9	% 0,0	% 1	% 0,6	% 0,7	% 0,0
Norbait beste pertsona batzuen aurrean zu lotsarazten edo mintzen saiatu da mugikorra, WhatsAppeko taldeak, sare sozialak edo halakoak erabiliz	% 0,5	% 0,8	% 0,0	% 1	% 0,6	% 0,0	% 1	% 0,6	% 0,3	% 0,0
Talde batetik kanpo uzten zaituztela sentitu duzu, baztertzera zaituztela	% 0,3	% 0,2	% 0,4	% 0,0	% 0,3	% 0,4	% 1	% 0,0	% 0,3	% 0,0
Norbait mehatxu, irain edo eraso egin dizu beste pertsona batekin telefonoz harremanetan zaudela dakielako edo susmatzen duelako	% 0,3	% 0,4	% 0,0	% 0,0	% 0,6	% 0,0	% 2	% 0,0	% 0,0	% 0,0
Erasozko edo mehatxuzko mezuak bidali dizkizute	% 0,1	% 0,2	% 0,0	% 0,0	% 0,3	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,3	% 0,0

21. TAULA ZEIN NEURRITAN SENTITZEN DUZU...?

EMAKUMEEN IRITZIA ADIN-TALDEAREN ETA EGOERA EKONOMIKOAREN ARABERA

MAIZ ERANTZUN DUTEN EMAKUMEAK SOILIK	GUZTIRA	ADINA			NOLA HELTZEN ZARA HILABETE-AMAIERARA?			
		18-35 URTE	36-50 URTE	50 EDO GEHIAGO	ZAILTASUNEZ	HAINBESTEA	EROSOTASUNEZ	ED/EDE
Emakumeek WhatsAppen partekatzen dituzten edukia gizonenak ez bezalakoak dira	% 48,4	% 57,9	% 49,7	% 36,1	% 37	% 48,3	% 53,7	% 42,9
Erantzutera behartuta sentitzen zara	% 25,5	% 30	% 30	% 0,0	% 66,7	% 15,8	% 29,2	% 0,0
Sentitzen duzu WhatsAppeko taldeetan, edo sare sozialetan, ezin duzula genero-desberdinkeriez edo indarkeria matxistaz hitz egin, norbaiten liskarrei aurre egiteko arriskurik gabe	% 16,1	% 22,8	% 16,6	% 8,3	% 16,4	% 17,4	% 15,8	% 0,0
Norbait aurpegiatu dizu haren mezuei berehala erantzun ez izana	% 8,7	% 10,3	% 10,4	% 4,5	% 12,3	% 10,1	% 6,2	% 0,0
Gizonak eta emakumeak dauden WhatsAppeko taldeetan, batzuetan deseroso sentiarazten zaituzten gai sexual batzuk tratatzen dira	% 7,9	% 8,3	% 10,4	% 3,8	% 8,2	% 6,3	% 9,6	% 7,1
Emakumeentzat, edo pertsona homosexual edo transexualentzat, iraingarriak diren edukia bidali dizkizute	% 4,5	% 6,2	% 5,7	% 0,8	% 5,5	% 2,9	% 5,6	% 7,1
Sentitzen duzu mugikorrek betebeharrak berriak sortzen dizkizula arlo pertsonal edo familiarrean emakumea izate hutsagatik	% 2,8	% 4,8	% 2,1	% 1,5	% 4,1	% 3,4	% 1,7	% 0,0
Mugikor edo osagarriak erosteko beharra duzu, zeure taldean nabarmentzen edo integratua sentitzen laguntzeko	% 2,5	% 4,8	% 1,6	% 1,5	% 2,7	% 0,5	% 4,5	% 7,1
Laneko nagusien mezu edo eskaerak jasotzen dituzu desorduetan	% 1,9	% 2,8	% 2,1	% 0,8	% 1,4	% 2,4	% 1,7	% 0,0
Norbait zure mugikorra erabili du (dei, mezu edo kokapenaren bidez) non zauden kontrolatzeko	% 1,3	% 1,4	% 1	% 1,5	% 2,7	% 0,5	% 1,7	% 0,0
Norbait zure mugikorra erabili du norekin egoten zaren harremanetan jakiteko	% 0,8	% 1,4	% 1	% 0,0	% 1,4	% 1	% 0,6	% 0,0
Norbait beste pertsona batzuen aurrean zu lotsarazten edo mintzen saiatu da mugikorra, WhatsAppeko taldeak, sare sozialak edo halakoak erabiliz	% 0,8	% 1,4	% 1	% 0,0	% 1,4	% 1	% 0,6	% 0,0
Norbait mehatxu, irain edo eraso egin dizu beste pertsona batekin telefonoz harremanetan zaudela dakielako edo susmatzen duelako	% 0,4	% 0,0	% 1	% 0,0	% 2,7	% 0,0	% 0,0	% 0,0
Talde batetik kanpo uzten zaituztela sentitu duzu, baztertzeko zaituztela	% 0,2	% 0,0	% 0,0	% 0,8	% 1,4	% 0,0	% 0,0	% 0,0
Erasozko edo mehatxuzko mezuak bidali dizkizute	% 0,2	% 0,0	% 0,5	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,6	% 0,0



ETXEA

ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOA

Kontsumo kapitalistaren eta indarkeria matxisten lotura aztertzeke hautatu dugun hirugarren esparrua etxeetako energia-kontsumoa da. Esparru teorikoan aipatu dugunez, pobrezia energetikoan sakondu nahi izan dugu, eta, arlo hori genero-ikuspegitik luze eta zabal azertu dela jakitun, indarkeria matxistatzat sailkatzeke irizpideak ematean zentratu gara.

Lortutako datuak eta indarkeria matxistekin duten lotura azaldu aurretik, zehaztu nahi dugu, gure ikuspuntutik, pobrezia energetikoa berez egiturazko indarkeria bat dela, etxeetan energia izateke eta erabiltzeke dauden desberdinkeriei lotuta dagoena eta pertsona guztiek baldintza duinetan bizitzeke duten giza eskubidea urratzen duena.

Premisa hori abiapuntu, egin dugun landa-lana pobrezia energetikoari lotutako indarkeria matxistaren agerpen sinbolikoak zein zuzeneko agerpenak ikusaraztera eta izendatzera bideratu da; bai eta egiturazkoagoak diren indarkerietan sakontzera ere, alegia, indarkeria sortzen duten egitura ekonomiko eta sozialen, etxebizitza-arloko egituren nahiz natura-baliabideez jabetzeke egituren multzoan.

EMAITZA KUALITATIBOAK

EGITURAZKO INDARKERIA



22. TAULA LABURPEN-KOADROA: EGITURAZKO INDARKERIAK ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOAREN ESPARRUAN

EGITURAZKO INDARKERIA

- ✓ Pobrezia energetikoaren feminizazioa. Arriskuko kolektiboen artean, aipatu behar dira sozialki onartutako rolei ez egokitzeagatik bazterketa sozialean geratzeko arriskuan dauden pertsonak, hala nola pertsona transexualak.
- ✓ Pobrezia energetikoaren ondorioek (argia, teknologia, berokuntza eta elektrizitatea behar duen guztia mugatuta edukitzea edo faltatzea) badute inpaktu bat bazterketa sozialaren aldetik, aurrerapen teknologikoak gero eta gehiago ezaugarritzen duen gizarte batean.
- ✓ Gizona/emakumea binomioaren berrekoizpena, pobrezia energetikoan eragina duten faktoreen artean.
- ✓ Pobrezia energetikoa desagerrarazteko neurriak, hala nola bonu soziala, desberdinkeria handikoak dira; ez dituzte kontuan izaten genero-baldintzapen eta -mandatuak.

Energia-kontsumoaren esparruan gertatzen diren egiturazko indarkerietan sakontzeko helburuz, adituei galdetu diegu ea zein diren, haien iritziz, pobrezia energetikoaren kausak. **Emandako erantzunetan adostasuna aurkitzen da pobrezia energetikoa sistema heteropatriarkalaren eta kapitalistaren elkargunea den arazotzat definitzean.** Ildo horretan, aditzera ematen da, batetik, pobrezia energetikoa enpresa gutxi batzuk natura-baliabideez jabetzearekin lotuta dagoela; enpresa horiek energia kapital-metaketa ereduaren arabera banatzen dute, eta horrek, kontsumitzaileentzat kostuak merkatu gabe, igo egiten ditu, eta energia herritar guztiek ezin eskura dezaketen kontsumo-gai bat bihurtzen du.

"Energia-enpresek oso patriarkala eta kapitalista den eredu batean dihardute; izan ere, energia bizitzaren eta etxearen zaintzaren erdigunean dagoela aintzat hartu ordez, eredu horrek energia merkantilizatu egiten du. Eskubidean oinarrituz erabili ordez, bizitzaren zaintzan eta beharrea oinarrituz, merkantilizatu egiten da, eta lapurretan eta harrapaketan oinarrituz jarduten da"

Aditu bati egindako elkarrizketa

Bestalde, sexuaren araberako lan-banaketaren, estereotipoen eta genero-rolen ondorioz, emakumeak zaintzaren eta etxeke lanen arduradun nagusiak bilakatzen dira, eta horrek eragiten du haiexek, hain zuzen, neurri handiagoan jaso dezaten arazo horren inpaktua.

Hain zuzen, aditu batek **"pobrezia energetikoaren feminizazioa"** kontzeptua ere erabiltzen du, azaltzeko nola eragiten dien gehienbat arazo horrek honako hauei:

- Emakumeak buru diren familia gurasobakarrak.
- Erretiroko adinean dauden emakume bakarrak.
- Bereziki feminizatu eta prekarizaturik dauden sektoreetan lan egiten duten emakumeak, hala nola etxeke eta zaintzako lanean (etxeke langileak).
- Diskriminazio soziala dakarren egoera batean dagoen beste edozein kolektibo edo pertsona, dela kultura-/jatorri-aniztasunari lotuta (pertsona migratuak), dela sexu- eta genero-aniztasunari lotuta (transexualak, transgeneroak, etab.).

Horri dagokionez, adituak honako hau zehazten du:

"Zapalkuntza-sistema gizon- eta emakume-rolen binomioan islatzen da: horregatik eragiten die pobrezia energetikoak ahultasun-egoeran dauden kolektiboak, non emakumea gizonaren mende geratzen den"

Aditu bati egindako elkarrizketa

Horrez gain, kontsumitzaileen aldetik berriz ere geratzen da argi pobrezia energetikoak LGTBI+ kolektiboari eragiten diola, pertsona transexualei bereziki; haiek, lan-merkatutzeko zailtasun handiagoak dituztenez, prekaritate handiagoan bizi izaten baitira:

"Pobrezia-arazoek, jakina, neurri handiagoan eragiten diete zenbait kolektibori, lan-merkatuan sartzeko aukera gutxiago dutelako; adibidez, trans kolektiboaren % 90-95 langabezia dago"

Emakume zis lesbiana gazte eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

Pobrezia energetikoaren ondorioez galdetzean, adituek argia, teknologia, berokuntza eta elektrizitatea behar duen guztia mugatuta edukitzea edo faltatzea aipatzen dute, **eta horrek badu inpaktu bat bazterketa sozialaren aldetik, aurrerapen teknologikoak gero eta gehiago ezaugarritzen duen gizarte batean**. Horren inguruan, zehazten da energiarik gabe geratzeak, ongizaterako gutxieneko eta oinarritzko beharrian batzuk ez estaltzea ez ezik, komunikazio digitaletik, informaziorako irispidetik eta pertsonarteko harremanetatik bazterturik geratzea ere badakarrela berekin. Genioenez, **emakumeek, oro har, aukera okerragoak izaten dituzte ekoizpen-arlo guztietan, eta balio-sistema kapitalista eta heteropatriarkalak neurri handiagoan diskriminatzen ditu; hala, bada, ez da harritzekoa pobrezia energetikoak eragiten duen bazterketa sozialak errealitate hori islatzea:**

"Pobrezia energetikoan bizitzeak oso ondorio larriak ditu, erabat suertatzen baitzara bazterketa sozialaren arriskupean, ez bakarrik erosotasunaren edo laguntza humanoaren aldetik, absentsia teknologikoaren eta konektatuta badauden besteekiko harremanaren aldetik ere bai"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Ikasi nahi duten baliabiderik gabeko pertsona batzuek kandela bat erabiltzen dute ikasteko, argirik ez dutelako; baina gutxi dira horiek, gehienetan amore ematea erabakitzen dute"

Aditu bati egindako elkarrizketa

Azterketan aurrera eginik, kontsumitzaileek indarkeriatzat jotzen dute, esparru honetan, **energiaren merkatuak –oro har– eta pobrezia energetikoak –bereziki– ikusezin geratzeko joera izatea iruditeria kolektiboan.** Egia da kolektibo sozialek gero eta gehiago salatzen eta aztertzen dutela desberdinkeriaren aldetik dagoen inpaktua, egungo energia-merkatuaren ondorioz, baina “beste alde batera begiratzea” izaten da ia joera orokorra. Nahiz eta aipatu berri duguna egiturazko indarkeria kapitalista bat den, hurrengo paragrafoan azaltzen denez, ikusezin atxikitze horren ondorioak badute inpaktua indarkeria matxistei dagokienez.

Arazo sozial honen ikusezintasunaren adibide bat **pobrezia energetikoak eragindako pertsonen tasa murrizteko baliatzen diren neurriekin dago lotuta, bonu sozialarekin kasu.** Kotsultatutako adituak bat datoz ez dela konponbide eraginkorra, bonu hori lortzea zaila delako, eta desberdinkeriazkoa, arrazoi hauek direla eta: i) eskuratzeko baldintzak ez dira ekitatiboak; ii) ez da aintzat hartzen gehienbat eragindako pertsonen profila; iii) etxe-mota jakin batzuen egoerari ematen zaio lehentasuna; eta, azkenik, iv) ez da berariazko neurririk taxutzen eta ezartzen bazterketa sozialean geratzeko arriskurik handiena duten kolektiboentzat:

“Pertsonen oinarrizko ongizateak botere publikoen larrialdiko, lehentasunezko ardura izan beharko luke, eta, ordea, hori ez da hala, eta gero eta gutxiago da hala. Hotzak egoten diren pertsonak ere pentsatzen dute arriskutsua dela multinazionalak eta haien oligopolioa ‘molestatzea’. Geure buruari gezur bat kontatzen ari gara, hura asmatu duenari onura dakarkiona, eta haien ikuspegia normala balitz bezala onartzen ari gara”

Emakume transexual nagusi eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketaren oharra

“Ez da bidezkoa bizikidetza-unitate ugarietara ematea haien egoera sozioekonomikoari buruzko informaziorik eskatu gabe eta beste bizikidetza-unitate batzuentzat hain zaila izatea”

Aditu bati egindako elkarrizketa

Lehen aipatu dugun bezala, pobrezia energetikoak gehienbat eragiten dietenak emakumeak (bakarrak, adinekoak, etab.) eta bazterketa sozialaren arriskupean dauden pertsonak (migratuak, transexualak, etab.) baldin badira, orduan **bonu soziala eta antzeko neurriek –haien prekaritatean eragina duten baldintzapenak kontuan hartuz, haien egoera zehatza hobetzeko balio ez izateaz gain– biktimizazio bikoitza sustatzen dute: pobretuta egoteagatik eta aintzat hartzen ez dituen sistema baten aurrean babesik gabe egoteagatik.**

INDARKERIA SINBOLIKOA



23. TAULA LABURPEN-KOADROA: INDARKERIA SINBOLIKOA ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOAREN ESPARRUAN

INDARKERIA SINBOLIKOA

- ✓ Pobrezia energetikoa arazo indibidualtzat jotzea, arazo sistemikotzat jo beharrean.
- ✓ Errudunestea, sozialki inposaturiko genero-mandatuei ez erantzuteagatik.

Ikerketa-prozesuan eskuratutako datuetan oinarriturik, esan dezakegu **badagoela lotura argi bat pobrezia energetikoa murrizteko erabiltzen diren neurrien eta gizartean arazo horri buruz dagoen iritziaren artean**. Ildo horretan, Aholkularitza Taldean gehien eztabaidatu ditugun gaietako bat izan da iruditeria kolektiboan pobrezia energetikoa arazo indibiduala delako iritzia egotea, hau da, energia-horniduraren gastuari aurre egiteak dakartzan muga ekonomikoei lotutako arazo bat. Bestela esanda, pertsona batek ezin badu faktura ordaindu, hori ordaintzeko dirurik ez duelako da, besterik gabe.

Hala ere, esan dugunez, egiturazko arazo bat dugu aurrean, energia-enpresa gutxi batzuei onura ematen diena eta haien interesak babesten dituen, gutxieneko ongizatea bermatuko duten baldintza duinetan bizitzeko eskubidea urratuta. **Azterlan honetan kontsultatutako pertsonak aldarrikatzen dute pobrezia energetikoari erronka kolektibo gisa aurre egin behar zaiola, eta nabarmentzen dute energia oinarritzko eskubidetzat hartu behar dela, eta ez merkatuko ondasuntzat; azken horrek, sistema kapitalista heteropatriarkal baten balioen azpian, bazterketa soziala sortzen du, bai eta inpaktu sakona ere hainbat mailatan, arazo horrek zeharkatzen dituen pertsonen gain**. Sistema horrek, hortaz, ez du babesten, eta pertsonen kalteberatasuna areagotzen du:

"Botere ekonomikoa dutenek pobrezia energetikoa arazo indibidual gisa aurkeztu nahi dute. Baina ez da banakako kontua, ez da faktura ordaindu ezin duen pertsona baten erruz gertatzen den zerbait, hainbat kolektibori eragiten dien sistema baten ondorioa baizik"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Arazo kolektibo bat da, egoera jakin baten mende eta harekin lotuta dagoelako; maila sozialeko huts batez ari gara, beraz"

Aditu bati egindako elkarrizketa

"Argindarra mozteari planteamendu sistemiko baten ikuspegitik begiratu beharko litzaioke, kontua baldin bada gizonak eta emakumeak berdintasunean bizitzea"

Aditu bati egindako elkarrizketa

Pobrezia energetikoari banakako ikuspegi batetik heltzeak, hura sortzen duten egituren multzoa ikusezin bihurtu ez ezik, halakoa pairatzen duten pertsonak errudunetsi ere egiten ditu. Emakumeen kasuan, gogorarazten dugu **erruduntasuna barneratzea emakumeon ahultasun soziala areagotzen duten eta etxeko esparrura baztertzen dituzten genero-mandatu batzuei dagokiela. Gorpil zoro bat aurkitzen da, beraz: emakumeek pobrezia energetikoa pairatzeko arrisku handiagoa dute, berrekoizpeneko rolera baztertzen dituzten genero-mandatu batzuk direla medio;** eta genero-mandatu horiek dira, hain zuzen ere, sozialki errudunetsiak izatea eragiten dutenak, haiengandik espero dena ez betetzeagatik; kasu honetan, gutxieneko erosotasun eta ongizate batzuk bermatuko dituen etxe bat mantentzeko ezintasunagatik.

ZUZENEKO INDARKERIA



24. TAULA LABURPEN-KOADROA: ZUZENEKO INDARKERIAK ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOAREN ESPARRUAN

ZUZENEKO INDARKERIA

- ✓ Gaixotasun fisikoak eta kalte emozionalak (lotsa, bakartze soziala), hotsunaren nahiz hezetanaren ondorioz.

Elkarrizketatutako pertsonen artean, pobrezia energetikoak jotakoek edo arazo hori pairatzen duten pertsonak ezagutzen dituztenek pobrezia-mota horrek osasun fisiko eta emozionalean duen inpaktua azaldu dute. Zehazki, hotzaren eta hezetanaren ondoriozko gaixotasun fisikoak aipatu dira, bai eta izaera psikologikoagoa dutenak ere:

“Etxea ez dago ongi egokituta (...) ez duelako berokuntzarik. Asmari erasaten dio (...), aldarlean beheraldi bat ere izan dezakezu”

Emakume zis lesbiana gazte eta oso kontzientziatu bati egindako elkarrizketa

Pobrezia energetikoak gogo-aldartean duen inpaktuari loturik, etxean tenperatura egokia ez izateak sortzen duen lotsazko sentimendua ere aipatzen da, eta, sarritan, horren ondorioa izaten da beste pertsona batzuen bisitak saihestea eta, horrela, arazo hori pairatzen duten pertsonen bakartze soziala areagotzea.

EMAITZA KUANTITATIBOAK

EGITURAZKO INDARKERIA



25. TAULA LABURPEN-KOADROA: EGITURAZKO INDARKERIAK ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOAREN ESPARRUAN

EGITURAZKO INDARKERIA

- ✓ Inkestatuen diskonfort termikoaren arrazoiak desberdinak dira sexuaren arabera. Emakumeen artean, pobrezia-maila handiago batekin lotuta daude, eta haien inpaktua handiagoa da, etxean gehiago egoten direlako.


Pobrezia energetikoa pairatzen duten pertsonen bizitzan eta osasunean gertatzen diren inpaktuetan sakontzeko helburuz, inkestatuei galdetu diegu ea etxean tenperatura eroso izaten duten.

Lortutako datuen arabera, esan behar dugu % 92,3k adierazi duela etxean konfort termikoa duela, emakumeen eta gizonen artean alde adierazgarririk egon gabe. Alde handienak adinaren eta egoera ekonomikoaren aldetik agertzen dira. **Hala, gazteagoen artean, konfort termikoko egoera ezin lor dezaketenen ehunekoa % 12,6ra iristen da, eta % 12,9ra baliabide ekonomiko gutxiagokoen artean.**

Bestalde, etxean tenperatura atsegirik ez izatea adierazitako pertsonak sakonago aztertzen baditugu, lehenik ikusten da diskonfort termikoak neurri handiagoan gizonei eragiten diela: halakoak % 8,9 dira, eta egoera berean daudela esandako emakumeak, aldiz, % 7. Aholkularitza Talde gisa, onartu behar dugu datu hori nahasgarria dela, pobrezia energetikoari lotutako diskonfort termikoari dagokionez, egin zen galdera oso zabala izan baitzen: “Eroso sentitzeko moduko tenperatura bat izaten duzu, udan zein neguan?”. Hain zuzen, galdera horrek udan beroa zein neguan hotza pasatzen duten pertsonak barne hartzen ditu, eta azken horretan da pobrezia energetikoa gehienik nabaritzen den garaia. Izan ere, diskonfort termikoaren arrazoi

artean “berokuntza zentrala itzali ezin izateagatik beroak egotea” aipatzen zen, eta erantzun hori ehuneko handiagoan eman zuten gizonek, emakumeek baino. Horregatik, pobrezia energetikoa zehatzago adierazten ziguten inkestako erantzunetan zentratu behar izan genuen, aurrerako ikusiko dugunez.

14. GRAFIKOA ETXEAN, EROSO SENTITZEKO MODUKO TEMPERATURA BAT IZATEN DUZU, UDAN ZEIN NEGUAN?




Dena dela, interesekoa da nabarmentzea diskonfort termikoak gehienbat bakarrik bizi diren pertsonei eragiten diela. **Kasu horietan, tenperatura egokia izaten ez dutela adierazitako emakumeen ehunekoa % 7tik % 8ra igozten da; eta gizonen kasuan, % 8,9tik % 8ra jaisten da.**

Sakonago aztertuta, tenperatura egokia ez izatea adierazitako inkestatuei (% 7,7) arrazoiez galdetzean, **alde adierazgarriak ikusten dira emakumeek eta gizonen emandako erantzunen artean:**


- Emakumeen % 52,5ek –gizonen artean, % 42,1ek– adierazten du ezin duela ordaindu horren gastu ekonomikoa.
- Emakumeen % 12,1ek –gizonen artean % 5,3k– jakinarazten du ez duela ez berokuntzarik ez aire giroturirik.
- Emakumeen % 3k galdara hondatuta daukala dio.

46. Nahiz eta Euskadin pobrezia energetikoa hotzarekin lotu ohi den, azken bero-boladak zein klima-aldaketari lotutako beste efektu batzuk direla medio, pobrezia energetikoaren ikuspegian hotzari zein beroari, etxeen isolamenduari, konfort termikorako metodoei, eta abarri begira sakondu behar da.



Diskonfortaren arrazoiek ordena bera dute adin-talde guztietan, eta lehen arrazoiak faktura izaten da, hau da, etxean tenperatura egokia izateak dakarren gastu ekonomikoa ordaindu ezin izatea.

16. GRAFIKOA DISKONFORT TERMIKOAREN ARRAZOI NAGUSITZAT FAKTURA ORDAINDU EZIN IZATEA EMAN DUTEN PERTSONAK, ADIN-TALDEAREN ARABERA



Faktore horren errepikapena handia da gazteen artean (% 44) eta 36 urtetik 50 urtera bitartekoen artean (% 50era iristen da), baina, hala ere, nabarmendu behar da faktura ordaindu ezin izateak 51 urtetik gorakoek % 57ri eragiten diola.

Orain arte azaldutako datuetatik ondoriozta dezakegu energia-horniduraren faktura ordaindu ezin izateari, etxeko isolamendu eskasari edo aparatuen matxurei (galdarak, etab.) lotutako arazoiek gehienbat emakumeei eragiten dietela. Hortaz, esan dezakegu **arazo horrek emakumeen gain duen inpaktua askoz sakonagoa dela eta baduela lotura, lehen ere aipatu dugunez, etxean gehiago egotearekin, neurri handiagoan egokitzen zaizkielako berrekoizpeneko lanak: zaintza eta etxeko lanak.**

INDARKERIA SINBOLIKOA




26. TAULA LABURPEN-KOADROA: INDARKERIA SINBOLIKOA ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOAREN ESPARRUAN

INDARKERIA SINBOLIKOA

- ✓ Adin handiagoko emakumeek erantzukizuna pertsonari egozteko joera handiagoa dute (% 40,6), eta datu hori genero-mandatuen ondorioz errua barneratu izanaren adierazletzat har genezake, baina egia da ezin izan dugula ikerketan zehar kausa horietan sakondu.

Inkestatuei kontsultatzen zaienean –etxeko tenperatura erregulatzeko zailtasunak izan zein ez– ea zeinena den erantzukizuna pertsona batek tenperatura atsegin bat mantendu ezin izateko, erantzunak hiru multzo handitan banatzen dira: heren baten ustez, banakako arazo bat da, alegia, pertsonak ezin dituela bere gain hartu energia-kontsumoaren ondoriozko kostuak; beste heren baten arabera, erakundeen arazo bat da, konponbide egokirik eskaintzen ez dutelako; eta azken herenak dio oligopolioak eragindako arazo bat dela.

17. GRAFIKOA IRAKURRIKO DIZKIZUDAN AUKEREN ARTEAN, ZEIN LITZATEKE, ZURE USTEZ, PERTSONA BATEK ETXEAN TENPERATURA ATSEGINIK MANTENDU EZIN IZATEKO ARAZOA?



Azterketaren arreta emakumeen iritzian jarrita, honako hau ikusten da argi:

- Adin handieneko emakumeek erantzukizuna banakako pertsonari egozteko joera handiagoa dute (% 40,6). Gauza bera gertatzen da egoera ekonomiko oneneko emakumeen kasuan (% 31,1).
- Emakume gazteenak, aldiz, kritikoago agertzen dira energia-enpresekin (% 31,7).

Datu horiek bi alderdi interesgarri ematen dute aditzera. Lehenik eta behin, **adin handiagoko emakumeek banakako problema dela uste izatea indarkeria sinbolikoaren adierazletzat interpreta liteke, gorago aipatu dugunez, errua barneratzeari loturik**, eta horrek haiei berariaz zuzendutako genero-mandatu batzuk betetzeko ezintasunari erantzungo lioke, hala nola etxea baldintza egokietan mantentzeko betebeharra.

Bigarrenik, nabarmendu behar da ia inkestatuen % 60k ez duela arazo indibidualtzat jotzen, eta baliteke hori aditzera ematea euskal gizartean barneratuz doala energia-eredua aldatzeko lan egiten duten kolektibo ugari nahiz banakako hainbat pertsona egiten ari diren informazio, salaketa eta ikerketako lana. Horren ondorioa litzateke, hain zuzen, pobrezia energetikoa arazo kolektibo bat delako iritzi soziala zabalagoa izatea, gizarte guztiak elkarrekin aurre egin beharreko arazo bat. Baina oraindik % 30 bat geratzen da errua pertsoneri egozten diena, beren argindar-hornidura ordaindu ezin izateagatik, banakako arazoa dela uste baitu.

ZUZENEKO INDARKERIA




27. TAULA LABURPEN-KOADROA: ZUZENEKO INDARKERIAK ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOAREN ESPARRUAN

ZUZENEKO INDARKERIA

- ✓ Gaixotasunek etxean temperatura eroso ez duten emakumeen % 50i erasaten diote, haien baliabide ekonomikoak gorabehera; gizonen artean, aldiz, % 22ri.
- ✓ Diskonfort termikoa duten emakumeen % 34,5ek – eta, aldiz, gizonen % 16,7k– tristezia sentitzen du, eta sentimendu horrek bakartze soziala, antsietate eta abar ekar ditzake berekin. Horrez gain, tristeziak neurri handiagoan eragiten die baliabide ekonomiko gutxiko emakumeei: halakoak % 50 dira, eta egoera bereko gizonak, aldiz, % 25.
- ✓ Emakumeen % 13,8k –eta, aldiz, gizonen % 5,6k– bakartzeko joera dute, beste pertsona batzuk etxera bisitan etortzea saihestuta.
- ✓ Emakumeen % 6,9k (gizonen artean, % 0) lotsa sentitzen du bisiten aurrean, diskonfort termikoaren ondorioz.

Temperatura egokia mantendu ezin izatea adierazitako inkestatuei (erosotasuna ez mantentzeko hainbat arrazoi eta egoera dituzten pertsonak sartzen dira multzo horretan) galdetu diegunean ea **zer ondorio duen horrek haien eguneroko bizitzan, egoera horretan dauden emakumeen % 44,8k aditzera eman du bera edo bere etxeko norbait gaixotu dela**. Gizonen kasuan, zifra hori % 22,2ra jaisten da. Adinaren arabera, gazteenak dira gehien gaixotzen direnak: % 53,3k dio temperatura egokia mantendu ezin izateak bera edo berarekin bizi den norbait gaixotu duela. **Hala, inkestek emandako datuen arabera, esan daiteke gaixotasunek pobrezia energetikoa pairatzen duten emakumeen erdiei erasaten dietela, gutxi gorabehera, haien baliabide ekonomikoak edozein izanik ere.**


18. GRAFIKOA ZEURE ETXEAN TENPERATURA EROSOA MANTENDU EZIN IZATEAK INOIZ ERAGIN DIZU...?



Etxean temperatura egokia mantendu ezinaren beste inpaktu negatibo bat da egoera horretan dauden pertsonen % 22,4 triste sentitzen dela. **Ezin badugu ere tristezia indarkeria matxistatzat hartu, uste dugu daitekeela dela sentimendu horrek inpaktua izatea, bakartze sozialaren edo antsietatearen aldetik, halakoa sentitzen duten pertsonen gain**. Horretan ere emakumeak dira gehien eragindakook: emakumeen % 34,5; eta gizonetan, aldiz, % 16,7. Gainera, tristeziak neurri handiagoan eragiten die baliabide ekonomiko gutxiko emakumeei, baliabide ekonomiko gutxi dituztela adierazitako emakumeen % 50en kasua baita, eta gizonen artean, aldiz, % 25ena.

Ikusten dugu, beraz, pobrezia energetikoa pairatzen duten pertsonen osasunaren gaineko inpaktua handiagoa dela emakumeen artean. Horrez gain, kontuan izan behar da –osasunari eta genero-ikuspegiari buruzko zenbait azterlanek egiaztatzen dutenez⁴⁷ – gaixotasunek ez dietela berdin eragiten emakumei eta gizonei. **Emakumeek gaixotzeko arrisku handiagoa dute sexuaren araberako lan-banaketak eragindako egiturazko faktoreak, lanaldi hirukoitz edo bikoitza edo zaintzako ardurak direla medio;** bai eta sinbolikoagoak diren beste alderdi batzuk direla medio ere, genero-mandatuekin eta emakumeen gain, emakumeak izate hutsagatik, egiten diren presio sozialekin loturik.

19. GRAFIKOA ZEURE ETXEAN TENPERATURA EROSOA MANTENDU EZIN IZATEAK INOIZ ERAGIN DIZU...?




Etxean tenperatura egokia ezin izan dezaketen emakumeen % 13,8k bakartzeko joera izaten du –gizonetan, aldiz, % 5,6ek–, beste pertsona batzuek etxera bisita egitea saihestuz.

Berriz ere, ikuspuntu emozionaletik, diskonfort termikoaren eragina emakumeen gain da handiagoa: egoera horretan dauden % 6,9k lotsa sentitzen du horregatik. Lagineko gizon batek ere ez du egoera hori onartu. Pentsatzen dugu hori genero-mandatuekin loturik dagoela eta, beraz, indarkeria sinbolikoarekin; mandatu horiek dira, hain zuzen ere, sozialki lotsa daitezen eragiten dutenak, haiengandik espero dena ez betetzeagatik; kasu honetan, gutxieneko erosotasun eta ongizate batzuk bermatzeko moduko etxe bat mantentzeko ezintasunagatik.

⁴⁷. Adibidez, honako hau: Gonzalez, Pijuan, I. (2016): Desigualdad de género y pobreza energética. Un factor de riesgo olvidado. ISE

4

Ondorioak



1 | INDARKERIA MATXISTAK FIKZIOZKO TELESAILEN KONTSUMOAN



IKUS-ENTZUNEZKO AISIA
FIKZIOZKO TELESAILAK

EGITURAZKO INDARKERIA

Fikziozko telesailak sistema kapitalistaren tresnatzat har ditzakegu; tresna horrek gizarte-eredu heteropatriarkal bat berrekoizten du, eta, horretarako, genero-estereotipoak nahiz sexuaren arabeko lan-banaketa berrekoizten ditu.

Proposatzen dituzten edukiek genero-desberdinkeriak indartzen dituzte, eta emakumeak ikusezin atxikitzen dituzte, bai eta heteroarauz kanpoko beste edozein subjektu ere. Ildo horretan, **sistema kapitalistak bultzatutako itsumustuko kontsumoa genero-estereotipoetan oinarritzen da, hain zuzen.** Izan ere, inkestatuen % 82k uste du **fikziozko telesailetan ageri diren emakumeek zaintzaile-rola hartu ohi dutela**; % 70,3k ikusten du telesailak gutxitan edo inoiz ez dutela erakusten berdintasunezko egoera bat gizonen eta emakumeen artean, ehuneko hori % 74ra iristen dela emakumeen kasuan; eta % 72k uste du **telesailak gizonen nagusitasun edo pribilegiozko egoera bat erakusten dutela, emakumeen aldean.**

Kontsumismoan, oparotasun ekonomikoan eta materialismoan oinarrituriko bizitza batzuen idearioak kontatzen dituzten edukiak nagusi direla atzeman da. Horrek berekin dakar arazo sozialak ezkutuan geratzea, pobrezia kasu, alde batera utzita gehienbat emakumeei eragiten dieten errealitate batzuk.

Bestalde, **elkarrizketatutakoen % 33,7k dio (emakumeen artean, % 35,8) mindua sentitu dela telesailen batean genero-indarkeriaren, gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeria edo LGTBI+ kolektiboaren errealitatea tratatzeko moduagatik.** Datu horrek aditzera ematen digu, batetik, ikusleen aldetik kontzientzia feminista gero eta handiagoa dela, telesailek helarazten diguten mezu-motaren inguruan, salaketen eta aldarrikapenen arloan mugimendu feminista, LGTBI+ mugimendua nahiz kideko beste mugimendu batzuk aurrera eramaten ari diren lanari esker. Beste batetik, **galdera bat egitera garamatza, ea nola erabiltzen den indarkeria ikus-entzunezko ekoizpenaren eremuan;** izan ere, gai horren inguruko zenbait azterlanetan egiaztatu denez⁴⁸, indarkeria “erakargarri” bat baino ez da, ekoiztetxei gehiago saltzen eta kontsumitzaile-kopurua gehitzen laguntzen diena.

Halaber, gero eta zinema-genero berri gehiago eskaintzea –“emakumeentzako zinema” edo “LGTBI+ zinema” tartean– sistema kapitalista eta heteropatriarkala borroka eta aldarrikapen sozialez jabetzeko era bat da, merkatu-nitxo berriak sortzearen. **Fenomeno hori pinkwashinga edo purplewashinga deitutakoa da.**

Azkenik, datu itxaropentsu gisa, nabarmendu behar da **inkestatuen % 55ek uste duela, eraso sexistak gertatzen direnean, modu kritikoan islatzen direla** (% 59 emakumeen artean, eta % 48 gizonen artean). Fikziozko telesailak indarkeria irudikatzeko era berri batzuetara bilakatu izanaren seinalea izan liteke azken datu hori, izaera feministako telesailen ekoiztearen ondorioz, batik bat, halakoek, entretentzeaz gain, agenda feministaren arazo zentralak mahaigainean jarri nahi baitituzte, hala nola indarkeria matxisten agerpen guztiak eta haietaz egiten den tratamendua.

INDARKERIA SINBLIKOA

Fikziozko telesailak genero-estereotipoen baliatzen dira balioak eta sinboloak zabaltzeko, honako hauek erakusten baitira:

- **Maitasun erromantiko, heteroarauzko eta monogamoan oinarrituriko harremanak.**
- **Profil maskulino argia duen emakume profesional eta independentearen ikuspegiak gizonen eta emakumeen rolen arteko desberdintasunak azpimarratzeko balio du.** Izan ere, ez da harritzekoa, populazioari oro har eginiko inkestan, fikziozko pertsonaiaren batekin identifikatuak sentitzen direla esan dutenen artean **% 70ek gizonen artean aipatu izana, eta ezaugarri balioetsienak indartsua, ahaldundua eta autonomoa izateari lotutakoak dira,** hau da, tradizioz maskulinoak diren arrakasta-elementu batzuk, haiekin bai emakumeak bai gizonak identifikatzen direla.

⁴⁸. *Horietako bat da, adibidez, La representación de la violencia en las series juveniles españolas, Sara González Fernándezek egina, 2011ko irailean, Sevillako Unibertsitateko Komunikazio Fakultatearentzat. Hemen eskuragarri: <http://www.inmujer.gob.es/publicacioneselectronicas/documentacion/Documentos/DE1142.pdf>*

- **Dena ahal duen eta lortzen duen emakume superheroia**ren irudiak kalte egiten dio emakumeen errealitateari, langilea, ama, bikotekidea, emakume eder eta presta izateko “estandarrek” betetzeko ezintasuna dela eta.
- Genero-estereotipoei loturik, nabarmendu behar da **inkestatuen % 56,9k indarkeria-mota bat deritzola fikziozko telesailetan, gizonen aldean, emakumeek bigarren mailako rolak izateko joerari**. Datu horrek aditzera ematen du Euskadin pertzepzio handi samarra dagoela genero-estereotipoek emakumeen eta gizonen aukeretan duten eraginaz.

Aurrekoari loturik, ikusi dugu fikziozko telesailen bidez **ikuspegi androzentriko, arrazista eta heteroarauzko bat** areagotzen laguntzen duen balio-multzo bat zabaltzen dela. Esaterako, beste jatorri geografiko bat duten pertsonak karikaturizaturik ageri dira, eta, emakume migratuei dagokienez, garrantzi gutxiko rolak jokatzeko irudikatzen dira, eta haiek pairatutako diskriminazio-baldintzak indartzen dituzten egoera batzuetan. Horrek guztiak migrazio-fenomenoaz, haren kausez eta beste fenomeno global batzuekin duen loturaz ematen duen azalpena testuinguruz kanpoko da, baina, gainera, emakume horien egoera okerragotzen du, aurreiritzien eta diskriminazioaren aldetik, balioa kentzen baitie subjektu aktibo gisa duten rolari nahiz giza bizitzaren zaintzara egiten duten ekarpenari. Sexu- eta genero-aniztasuna ere karikaturizaturik ageri da, eta sozialki onartzen denaren eta onartzen ez denaren arteko irudikapen hierarkiko baten bidez aurkeztu ohi da.

Indarkeriaren erabilera erakusten duen ikus-entzunezko edukiaren zati handi bat emakumeen kosifikazioan zentratzen da; sexu-objektu hustzat aurkezten ditu, haien ezaugarri eta trebetasun intelektualak edo itxuraz kanpoko ezaugarriak alde batera utzirik. Populazioari oro har egindako inkestan ere identifikatu da hori; hala, inkestatuen % 92,2k uste du emakumeen aurkako indarkeria dela emakumeen gorputza erakargarritzat erabiltzea, eta % 89,9k emakumeen aurkako indarkeria-motatzat ikusten du edertasun-kanon bakarra inposatzea.

Ikusi da, halaber, **fikziozko telesailetan umoreaz baliatzen dela indarkeria era sotilean gauzatzeko “normaltzat” hartzen ez denaren gain**. Umorearen bidezko indarkeria “txistez” mozorrotzen da, eta harengandik defendatzea oso zail suertatzen da; horrek babesgabetasun- eta zaurgarritasun-sentsazioa areagotu egiten die arauz kanpokoak izateagatik burlen jopuntuan egoten diren kolektiboak, esaterako, LGTBI+ pertsonen kolektiboak. Horri dagokionez, nabarmendu behar da inkestatuen % 66,2k pentsatzen duela, LGTBI+ pertsonak ageri direnean, gainerakoak baino komikoagoak edo graziosoagoak izaten direla; emakumeen artean, ehuneko hori % 69ra iristen da.

ZUZENKO INDARKERIA

Orain arte aipatu ditugun egiturazko indarkeriek eta indarkeria sinbolikoek badute inpaktu bat ikusleen osasun psikologikoan, fikziozko telesailetan transmititzen diren idealak lortzen zailak direla ohartzean. Antsietatea eta frustrazioa ager liteke, ezin lortuzko zerbait nahi izateagatik.

Horrez gain, kontuan izaten badugu zer desberdinkeria dauden eta nola genero-mandatuek batez ere emakumeei eragiten dieten, esleitu zaien rola dela medio, ez da zentzugabea esatea **ideal horien inpakturik handiena emakumeen gain, hain zuzen, gertatzen dela**; emakumeek lanaldi bikoitza edo hirukoitza daramaten testuinguru batean, non gorputz perfektua, betiko gaztetasuna eta “guztiz arduratzeko gai izatea” lortzeko presioa haiei berariaz zuzentzen baitzaie.

2 | INDARKERIA MATXISTAK GAILU MUGIKORREN KONTSUMOAN



TEKNOLOGIA-ESPARRUA
TELEFONIA MUGIKORRA

EGITURAZKO INDARKERIA

Kapitalismoak sinestarazten digu telefonia mugikorra erabiltzeak inklusioa, irisgarritasuna eta komunikazioa bultzatzen dituela eta bizitza errazten digula. Haatik, **mugikorren kontsumoak teknologia berriein ohituta ez dauden pertsonen bazterketa soziala sustatzen du**, edo aukera pertsonal gisa, besterik gabe, gailu hori ez edukitzea erabaki dutenena. Arrisku handieneko profilen artean, adin handieneko emakumeak daude.

Gainera, **beharrizan, betebehar eta kontrol-mota berriak sortzen dituzte, balio kapitalista eta heteropatriarkaletan oinarritzen direnak eta genero-rolak indartzen dituztenak**. Beharrizan eta betebehar berri horiek **ekoizpeneko eta berrekoizpeneko lanetarako nahiz aisialdirako erabiltzen diren denborak malgutzea eta gainjartzea eragiten dute, eta horrek zuzeneko inpaktua du emakumeen lan-kargaren gehikuntzan**. Hain zuzen ere, populazioari oro har eginiko inkestaren emaitzei begiraturik –sexuen arteko aldeak txikiak izanik ere, estatistika aldetik adierazgarriak direla–, esan dezakegu emakumeek gehiago erabiltzen dutela mugikorra etxeko eta zaintzako lanak kontrolatzeko eta egiteko: emakumeen % 1,1ek –eta gizonen artean, aldiz, % 0,4k– erabiltzen du mugikorra etxeko lanen kontrola eramateko. Genero-estereotipoek, beraz, badute eragina emakumeek eta gizonek gailu mugikorrak erabiltzen ditugun moduan.

Bestalde, gailu mugikorrek komunikazio azkar eta oldarkorra bultzatzen dute bat-bateko mezularitzako aplikazioen bidez (WhatsApp, Telegram, etab.); ondorioz, **pertsonak txikitu eta ikusezin bihurtzen dituzte, pertsoneri errespetua galduz edo balioa kenduz, zaintzaren ikuspegitik zaindu beharrean.**

Populazioari oro har eginiko inkestan **atzeman da emakumeek eta gizonek mugikorrek desberdin erabiltzen dituztela**: emakumeek gehiago erabiltzen dute mugikorra sare sozialetan edukiak argitaratzeko –% 26,3k emakumeen artean, eta % 18,6k gizonen kasuan–, eta, hori dela-eta, neurri handiagoan egon daitezke orain arte aipatu ditugun indarkeria matxista-moten arriskupean.

INDARKERIA SINBOLIKOA

Mugikorraren bidez erabiltzen ditugun aplikazioak (Instagram, Facebook, WhatsApp, etab.) gizarte ultranartzisista bat sustatzen ari dira, oinarrian itxuraren eta gorputz perfektuaren gurtza duena, eta horrek neurrigabeko zorionean, kontsumismoan, azalkerian eta indibidualismoan –besteak beste– oinarrituriko bizi-eredu batzuk zabaltzea bultzatzen du. **Argi eta garbi kapitalista eta heteropatriarkalak diren balio horiek genero-mandatuak naturalizatzen eta desberdinkeriak sustatzen dituzte.**

Gainera, atzeman da bat-bateko mezularitzako aplikazioen bidez ezartzen den komunikazioak bide ematen duela emakumeek eta gizonek adierazitako iritziak desberdin tratatzeko: **azpian genero maskulinoaren nagusitasuna datza, haren iritziak onarpen sozial eta balio handiagoak izatearekin lotuta, eta joera handiagoa dago, aldiz, emakumeen iritziak barregarri uzteko.**

Bestalde, **emakumeen gorputza sexu-objektutzat hartzen dituzten irudiak eta edukiak zabaltzeak**, batetik, iruditeria kolektiboan emakumeen gorputz-ideala kontsumo-gai gisa, beste kontsumo-gai batzuen artekoa, ikustea areagotzen du; eta, bestetik, emakumeen artean frustrazio-maila handia sor dadin sustatzen du, ezin lortuzko estandar estetiko batzuk ez betetzeagatik.

Era berean, ikusi da badagoela **nolabaiteko joera, aplikazio mugikorren bidez, sozialki desberdina dela irizten zaion guztia ikusezin atxikitze edo umore antzean kritikatzeko**. Sarritan, halako txisteek sozialki onarturik ez dauden kolektiboak, pertsona transak kasu, barregarri uzten dituzte eta haien inguruko estereotipoak areagotzen dituzte.

ZUZENeko INDARKERIA

Mugikorraren erabilerak bikotearen barruko kontrola eta ziberjazarpena susta ditzake, mezuak eta deiak baimenik gabe begiratzuz edo kontrolatu nahi den pertsonaren kokapena jakitea ahalbidetzen duten aplikazioak erabiliz. Izan ere, populazioari oro har eginiko inkestaren datuek erakusten dute nola emakumeen % 1,3k esan duen mugikorraren bidez kontrolatua sentitzen dela.

Halaber, **mugikorraren bidez partekatzen diren edukien kontrol-galera atzeman da**, bereziki emakumeak barregarri uzteko bide ematen dutenei dagokienez; gorputza sexu-objektutzat hartzen dituzten edukiak lirateke horietakoak.

Mugikorrak dakartzan beharizan eta betebeharrak berriek –lehen aipatu dugunez– emakumeen lan-karga gehitzen dute, eta **inpaktua sortzen dute osasun fisiko eta emozionalean, hala nola estresa eta antsietatea**.

Sozialki onartuta ez dagoenari buruzko eduki diskriminatzaile eta sexisten ugaritzeak eta jendeak, oro har, kontrola eta bestelako mehatxuren bat gertatzen den egoeren aurrean erreakziorik ez agertzeak **umiliazioa eta frustrazioa sortzen ditu**. Horren inguruan, nabarmendu behar da, **mugikorraren bidez mehatxatuta sentitu direla (inkestaren % 0,5) edo erasozko mezuak jaso dituztela esan duten pertsonen artean, guztiak emakumeak direla**.

Azkenik, inkestan erantzun duten emakumeen % 16,1ek –eta, gizonen % 12,5ek– maiz sentitzen du sare sozialetan eta WhatsAppeko taldeetan **ezin duela genero-desberdinkeriaz hitz egin, liskarrei aurre egiteko arriskurik gabe**.

3 | INDARKERIA MATXISTAK ETXEETAKO ENERGIA- KONTSUMOAN



ETXEA
ETXEETAKO ENERGIA-KONTSUMOA

EGITURAZKO INDARKERIA

Pobrezia energetikoa sistema heteropatriarkalaren eta kapitalistaren elkargunea den arazotzat har dezakegu; izan ere, i) enpresa gutxi batzuk natura-baliabideez jabetzarekin lotuta dago, eta horrek energiaren kostuak igotzen ditu eta merkatuko ondasun bihurtzen du; eta ii) sexuaren araberako lan-banaketaren, estereotipoen eta genero-rolen ondorioz, emakumeak dira etxean gehien egoten direnak, eta horrek eragiten du haiexek, hain zuzen, neurri handiagoan jaso dezaten arazo horren inpaktua. Hain zuzen, inkestaren emaitzetan, tenperatura egokia ez izatea adierazitako emakumeen eta gizonen ehunekoetan sexuaren araberako alde adierazgarriak agertu ez den arren (beharbada, galdetzeko era zabalagatik, berokuntza zentralaren ondorioz beroa pasatzetik etxea berotu ezinagatik hotzak egoteraino barne hartzen baitu), **diskonfort termikoaren arrazoietan, ordea, bai, desberdintasunak aurkitu dira sexuaren arabera. Emakumeen artean, pobrezia-maila handiago batekin lotuta daude, eta haien inpaktua handiagoa da, etxean gehiago egoten direlako.** Emakumeen % 54,5ek –gizonen artean, % 42,1ek– adierazten du ezin duela ordaindu horren gastu ekonomikoa; emakumeen % 12,1ek –gizonen artean % 5,3k– jakinarazten du ez duela ez berokuntzarik ez aire giroturirik; eta, azkenik, emakumeen % 3k galdara hondatuta daukala dio.

Aurrekoarekin loturik, nabarmendu behar da **“pobrezia energetikoaren feminizazioa”** kontzeptua ere erabili dela, azaltzeko nola eragiten dien gehienbat arazo horrek honako hauei: erretiroko adinean dauden emakume bakarrei, eta diskriminazio soziala dakarren egoera batean dagoen beste

edozein kolektibo edo pertsonari, dela kultura-/jatorri-aniztasunari lotuta (pertsone migratuak), dela sexu- eta genero-aniztasunari lotuta (transexualak, transgeneroak, etab.), edo bereziki feminizatu eta prekarizaturik dauden sektoreetan lan egiten dutenei.

Garrantzizko beste alderdi bat da pobrezia energetikoak bazterketa eta bakartze soziala sortzen duela arazo horrek eragindako kolektibo eta pertsonen artean, energiari gabe geratzeak, ongizaterako gutxieneko eta oinarritzko beharrian batzuk ez estaltzea ez ezik, komunikazio digitaletik, informaziorako irispidetik eta pertsonarteko harremanetatik bazterturik geratzea ere baitakar berekin. Berriz ere, emakumeek jasotzen dute inpakturik handiena, arazo hori gehien pairatzen dutenak izateaz gain, aukera okerragoak izaten dituztelako ekoizpen-arlo guztietan, eta prekaritate-maila handiagoa, ondorioz.

Azkenik, ikusi da energiaren merkatuak –oro har– eta pobrezia energetikoak –bereziki– ikusezin geratzeko joera izaten dutela iruditeria kolektiboan. Horren adibide dugu pobrezia energetikoa desagerrarazteko neurriak, hala nola bonu soziala, desberdinkeria handikoak izatea, gehienbat eragindako pertsonen profila eta genero-mandatuak ez baitituzte kontuan izaten.

INDARKERIA SINBOLIKOA

Ezin badugu ere pobrezia energetikoa indarkeria matxistatzat hartu, azterlanaren lehen emaitzetako batek badu zerikusia pobrezia energetikoa arazo indibiduala delako iritzi soziala egotearekin, alegia, pertsona batek energia-hornidurari aurre egiteko duen ezintasunari lotuta dagoela, egiturazko arazo bat izan beharrean, babesten ez duen eta pertsonen kalteberatasuna areagotzen duen sistema batek eragindakoa.

Dena dela, bai har daitekeela indarkeria matxista sinbolikotzat pobrezia energetikoa arazo indibidualtzat jotzea, hura sortzen duten egituren multzoa ikusezin bihurtu ez ezik, halakoa pairatzen duten pertsonak errudunetsi ere egiten baititu. Emakumeen kasuan, **gogorarazten dugu erruduntasuna barneratzea emakumeon ahultasun soziala areagotzen duten eta etxeko esparrura baztertzen dituzten genero-mandatu batzuei dagokiela.** Gurpil zoro bat aurkitzen da, beraz: emakumeek pobrezia energetikoa pairatzeko arrisku handiagoa dute, berrekoizpeneko rolera baztertzen dituzten genero-mandatu batzuk direla medio; eta genero-mandatu horiek dira, hain zuzen ere, sozialki errudunetsiak izatea eragiten dutenak, haiengandik espero dena ez betetzeagatik; kasu honetan, gutxieneko konfort termiko eta ongizate batzuk bermatuko dituen etxe bat mantentzeko ezintasunagatik.

Izan ere, inkestek emandako datuen arabera, **adin handieneko emakumeek dute joera nabarmenago bat erantzukizuna banakako pertsonari egozteko (% 40,6)** Esan dugunez, datu hori indarkeria sinbolikoaren adierazletzat interpreta liteke, errua barneratzeari loturik, eta horrek haiei berariaz zuzendutako genero-mandatu batzuk –hala nola etxea baldintza egokietan mantentzeko betebeharra– betetzeko ezintasunari erantzungo lioke.

ZUZENKO INDARKERIA

Pobrezia energetikoak badu inpaktua osasunean, hotzaren ondorioz, eta gaixotasun fisikoak eta psikologikoak eragiten ditu. Inkestaren emaitzen arabera, hain zuzen, esan dezakegu gaixotasunek etxean tenperatura erorosik ez duten emakumeen % 50i erasaten diotela, haien baliabide ekonomikoak gorabehera; gizonen artean, aldiz, % 22ri.

Etxean tenperatura egokirik ez izatea adierazitako emakumeen % 34,5ek – eta, aldiz, gizonen % 16,7k– triste sentitzen dela esan du. Horrez gain, tristeziak neurri handiagoan eragiten die baliabide ekonomiko gutxiko emakumeei: halakoak % 50 dira, eta egoera bereko gizonak, aldiz, % 25.

Gogorarazten dugu, **tristezia zuzeneko indarkeria matxistatzat jo ezin bada ere, sentimendu horrek dakartzan ondorioak, ordea, bai, halakotzat har daitezkeela, bakartze soziala kasu.** Ikuspegi horretatik, emaitza kuantitatibo zein kualitatiboek aditzera ematen dute pobrezia energetikoaren ondorioetako bat bakartze soziala dela, etxean tenperatura erosoak ez izateak sorturiko lotsazko sentimenduagatik; askotan, horren ondorioa izaten da beste pertsona batzuen bisitak saihestea. Hala egiaztatu da populazioari oro har eginiko inkestan, emakumeen % 13,8k –eta, aldiz, gizonen % 5,6k– bakartzeko joera baitute, beste pertsona batzuk etxera bisitan etortzea saihestuta. Azkenik, emakumeen % 6,9k lotsa sentitzen du bisiten aurrean, diskonfort termikoaren ondorioz.



5

Indarkeria
matxistarik
gabeko
kontsumorako
proposamenak

Lehen ere aipatu dugunez, ikerketa honen helburua, indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura aztertzeaz gain, alternatibak proposatzea da, errealitatea kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailetik (KKA) eraldatzearen.

Aholkularitza Taldean egindako analisien ondorioz, egiaztatu dugu kontsumoan badirela azertu eta mahaigainean jarri beharreko egiturazko gai batzuk, sistema kapitalistak dituen interesen eta lortzen dituen mozkinen sarea ulertuko badugu, askotariko indarkeria matxistak sortzen dituen sare bat, dokumentu honetan jada aditzera eman dugunez.

Ikuspegi horretatik, KKAeko eredu baterantz aurrera egiteko, uste dugu garrantzitsua dela ahalean oinarrituz hiru mailatan ekitea:

- Aldaketa pertsonalaren ahala: **pertsonek zer erabaki eta ekintza eraman ditzakegun aurrera arlo pertsonaletik**, era kritikoago, arduratsuago, jasangarriago eta eraldaketarako tresnatzat balio duen batean kontsumitzeko.
- Indar kolektiboaren ahala: **kolektiboki nola antolatzen garen**, pertsonen bizitzarekin eta planetarekin errespetuz jokatzeko duen beste kontsumo-eredu bat sortzeko.
- Joko-arauak aldatzeko ahala: zein diren **erantzukizun politiko eta ekonomikoak**, kontsumo kapitalistak oinarri eta euskarritzat dituen egiturak aldatzeko garaian.

Horretarako, hurren, hainbat proposamen aurkezten ditugu, aztertutako hiru esparruetan indarkeria matxistak berrekoiztuko ez dituen KKAeko eredu bat sustatzeko, goian aipaturiko hiru ahalen ildotik, banan-banan harturik. Aholkularitza Taldeak landu ditu proposamen horiek, azterlanean lortutako emaitzak oinarri hartuz.

1 | FIKZIOZKO TELESAILAK

ALDAKETA PERTSONALAREN AHALA

- Heteroarauz kanpoko telesailen kontsumoa **egitea eta zabaltzea, hau da**, aniztasun handiagokoak, errealagoak eta feministagoak diren gizarte-eta harreman-eredu batzuk sustatzen dituzten telesailen kontsumoa. Erabilera horrek eta haren zabalkundeak aniztasun handiagoko kontsumo baten balioa nabarmentzen du, bai eta aniztasun handiagoko ekoizpen baten beharra ere.
- Kontsumo **orekatu** bat bultzatzea, kontsumitzen dugun horretan askotariko edukiak egotea ez ezik, gure aisiarako balio duen baina, aldi berean, telesail-kontsumo orekatu bat egitea ere sustatzen duena, hau da, gure bizitzaren beste elementu garrantzitsu batzuetarako denborak ere uzten dituen: autozaintza, beste pertsona batzuekiko harremanak, mendekotasuna duten pertsonak zaintzea, etab.
- Egungo telesailak begirada kritiko batetik **ezagutzea**, bai eta zirkuitu komertzialagoetatik kanpoko telesail alternatiboak ere, aniztasun handiagoa erakusten duten gure interesekoen bila (gorputzen, identitateen, egoera ekonomikoen eta abarren aniztasuna), eskuragarriago dauden edo “masa-kontsumokoak” diren horiekin konformatu gabe.

INDAR KOLEKTIBOAREN AHALA

- **Elkarteak eta sareak** sustatzea, eduki sexistak eta heteroarauzkoak salatzeko, eta eduki berriak eraikitzeke: kazetariak, zinemagileak, aktoreak...
- Aliantzako eta jardunbide egokien aldeko **kanpainak** sustatzea, fikziozko telesaileri loturiko hainbat sektoreren eskutik, “No sin mujeres” kanpainaren moduan⁴⁹.
- Heteroarauz kanpoko **eduki** interseksionalak eskatzea. Batetik, errealistagoak izan daitezela, egungo egoeraren antz handiagoa duen ikuspegi bat emanda (gorputzen, identitateen, egoera ekonomikoen eta abarren aniztasuna), errealitatearen begirada zabalago eta kritikoago bat izaten lagunduko duena. Bestetik, telesail askoren fikziozkotasuna aprobetxatzea iruditeria sozial berriak eraikitzeke, non identitate binariorik ez baitago, non erantzunkidetasuna praktikan jartzen baita, non genero-estereotipoak ez baitira arlo guztietan berrekoizten...

⁴⁹. Kanpainari buruz gehiago jakiteko, jo web-orrialde honetara: <https://sites.google.com/view/nosinmujeres>

- **Alerta jotzea** emakumeen, sexu-aniztasunaren edo pertsona arrazializatuen instrumentalizazioaz, “kuota” gisa, merkatu-nitxo berri gisa edo beste helburu politiko batzuekin, eduki feministagoak edo aniztasun handiagokoak lortzeko bilaketatik urrunduta; bai eta sakontasunik gabeko itxuragarbitzeaz ere (emakumeren bat ez da telesail feminista bat; protagonista beltz histrioniko eta komiko bat ez da etnia-aniztasuna...).
- **Ikerketak** sustatzea telesailek jendearen gain duten inpaktuari buruz eta edukien zein kudeaketaren bilakaerari buruz (parte hartzen dutenak: ekoizpena, aktoreak...).
- **Tresnak** garatzea, sektoreko profesionalei laguntzeko: jardunbide egokiei buruzko gidak, 10 gako telesail feministagoak bultzatzeko...

JOKO-ARAUAK ALDATZEKO AHALA

- Salaketa publikoko **kanpainak** sustatzea, #MeToo, #OscarsSoWhite edo ‘Time’s Up’ ekimenak (sexu-tratu txarrei eta emakumeen aurkako abusuari aurre egiteko) bezalakoak.
- **Boikot**-kanpainak ere bai, estereotipoen berrekoizpena eta indarkeria matxistak sustatzen dituzten heteroarauzko telesailen aurka.
- Emakume gehiago eta profil-aniztasun handiagoa eskatzea telesailei lotutako **lantalde profesionaletan**: gidoia, ekoizpena, aktore-lana, etab⁵⁰.
- **Arauen eta administrazioaren** arloko aurrerapenak bultzatzea, telesailetan sexismoa eta gorrotozko edukiak agertzen dituzten enpresak salatu ahal izateko eta erantzukizunak eskatu ahal izateko (telesail sexisten behatokiak, erakunde espezializatu batzuek salaketak jasotzea...).

50. Esate baterako, AEBn egin zen sinadura-bilketa batek lortu zuen ekoiztetxe batek barkamena eska zezan, The Crown telesaileko emakumezko aktore nagusiar ordaindutakoak sortzen zuen soldata-arrakala argiagatik: <https://www.elperiodico.com/es/tele/20180321/productores-the-crown-se-disculpapor-brecha-salarial-6706780>

2 | GAILU MUGIKORRAK

ALDAKETA PERTSONALAREN AHALA

- **Mugikorraren erabilera analizatzea**, gehiegizko erabilera saihestea sustatzeko (denbora gehiago isildua, mendekotasun txikiagoa, konexio-ordu gutxiago...) eta **aplikazioen erabilera kritikoa** egiteko, edozein aurreiritzi-mota berrekoizten dutenak alde batera utzirik.
- **Telefonia mugikor “etikoaren/jasangarriaren”** erosketa eta erabilera sustatzea (fairphone...), bai eta feminismoa eta aniztasuna aintzat hartzen dituzten aplikazioen erabilera ere.
- **Mugikorraren erabilera koherentea, mezuak kritikatzean eta zabalkunderik ez ematean**: ustezko txisteak, iruzkin edo hizkuntza gutxiesgarriak, sexistak, homofobia, transfobia, gorputzen kosifikazioa...
- **Telefonia mugikorraren bidez iristen zaizkigun indarkeriei erantzutea**. Teknologiaren kontrola hartzea, indarkeria matxistak desagerrarazteko, baita eguneroko ekintzak gauzatuz ere, hala nola “Nik ez dut indarkeriarik birbidaltzen”. Argudioak emateko eta ulertarazteko gai ez bagara, espazioetatik alde egitea. Isiltasuna konplizitatea da⁵¹.
- **Iristen zaizkigun hirugarren batzuen informazioa eta irudi pribatuak ez zabaltzea, haien baimena izan gabe**. Salatzea.
- **Emakumeen kosifikazioa salatzea** plataforma digitalen bidez iristen zaizkigun irudietan. Plataformek berek horretarako aukerak ematen dituzte: horiek erabiltzea.
- Gure ingurunean harreman sozial alternatiboak sustatzea, mugikorra eta sare sozialak erabili ordez (berriz txangoak egiten hasi, alde aurretik geratu...), **espazio presentzialei** garrantzia emanaz eta halakoek gure bizitzetan presentzia orekatua izan dezaten eraginez (presentziaren eta onlineko partekatzearen arteko oreka bilatuz).
- Beren zerbitzuak eskaintzen zizkiguten **alternatibetara jotzea**, enpresa handietatik kanpo. Googleren, Facebooken ordezko alternatibak bilatzea, teknologia-arloko prestakuntza jasotzea, oinarrizkoena, babestuago nola egon gaitezkeen ikusteko.
- **Emakumeak teknologiaren mundura hurbil daitezen sustatzea**, nesketatik hasi eta adineko emakumeetaraino.

51. Proposamen-adibidea: https://www.eldiario.es/eldiarioex/sociedad/whatsapp-machismo-complices-comentarios-denigran_0_889611391.html

- **Gehiago erabiltzen ez dugun teknologia dohaintzan ematea;** hondatzen dena **konpontzea**.
- **Erantzunkidetasuna zaintza-espazio birtualetan,** ikastetxeko WhatsAppeko taldeak espazio femeninoa ez izatea.
- Izaera erotikoa duten zeure irudiak bidali nahi badituzu, aske senti zaitez bidaltzeko, baina babestu zeure burua. Bularrak edo genitalak ageri badira, esaterako, ez dadila ikus zure aurpegia. Terrere sexuala ez sustatzea, baina bai onartzea sistema heteropatriarkal batean bizi garela, eta sistema horretan nolabaiteko arriskua dugula.

INDAR KOLEKTIBOAREN AHALA

- **Tresna didaktikoak** prestatzea, mugikorren erabilera arduratsu ez-matxista sustatzeko (dekalogoak, unitate didaktikoak...), hainbat kolektiborentzat egokiturik.
- **Aplikazioak** sortzea, mugikorra salaketa publikoa egiteko eta eredu berriak eraikitzeke erabil dadin sustatzeko, *apptivism!*⁵² Dagoeneko badira asko ikuspegi feminista eta interseksional batetik sortu diren appak, publizitate sexistaren aurka, kaleko jazarpenaren aurka, boikot-ekintzetarako, zereginak banatzeko...
- **Sentsibilizazio**-kanpainak antolatzea, mugikorraren kontrolerako erabilera okerraren inguruan, bikote-harremanen esparruan, eta posible diren beste indarkeria matxista batzuen inguruan: ziberjazarpena, slut-shaminga⁵³, sextortsioa...
- **Erantzun kolektiboak** bultzatzea, geure mugikorren bidez lekuko garen jazarpen edo indarkerien aurka. Ez uztea erasotako pertsona bakarrik sentitzea bizitzen ari denaren aurrean; aitzitik, erantzun kolektibo eta soziala egon dadila.
- **Eztabaidarako eta prestakuntzarako** espazioak sustatzea telefonia mugikorraren erabilerari lotutako indarkeria matxisten inguruan eta haien aurka borrokatzeko estrategien sorreraren inguruan.
- Halako gaiak mugimendu sozialen agendan gehitzea. Egitura handi batzuen biktimak izaten ari garela ulertzea. Aktibismoan jardun dezakegu Googleren tresnak erabiliz?
- **Diskurtsoan, ez bereiztea onlineko indarkeriaren eta indarkeria errearen artean.** Internet bidezko indarkeria ere bada indarkeria.

52. Adibide batzuk: <https://orbita-diversa.wordpress.com/2015/02/23/apps/>

53. *International Feminist Journal of Politics* delakoak honela definitzen du slut shaming hori: «estigma sozial mota bat, bereziki emakumeei ezartzen zaiena, sexu-jokabideen inguruko espektatiba tradizionalak urratzea egozten zaieanean». Emakumeak estigmatizatzen dituzten jokabideen ohiko adibideak lirakeste ustez modu probokatzailan jantzeagatik edo promiskua izateagatik kritikatzeko edo, kasu muturrekoenen artean, bortxaketan biktimak errudunestea.

- **Arrakala digitalaren salaketa gehitzea**, gizonek teknologia erabiltzeko duten aukera bera izatea zailtzen du-eta emakumeontzat; halakoari aurre egitea.
- Aktibismoan jarduteko erabiltzen ditugun teknologia eta aplikazioak sortzean egoten diren **esplotazio-baldintzak salatzea**.
- **Ziberaktibismoa artikulatzea**, oinarri sendo batzuk sortzea.

JOKO-ARAUAK ALDATZEKO AHALA

- Egungo **lege-esparruan** ziberjazarpen matxista sartzea, hura agertu ohi den era guztiak aintzat hartuta, baita bikotekidearekin edo bikotekide ohiarekin zerikusirik ez duenean ere, astungarria duen delitu gisa ikuspegi feminista batetik. Legeak zabaldu egin behar dira, teknologiari loturiko indarkeria matxisten izaera jaso dezaten. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) inguruko delituak tratatzen dituzten legeek genero-desberdintasunak eta -desberdinkeriak aintzat hartu behar dituzte. Arauak xedatzeko prozesuetan, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko politiken alorreko espezialistek parte hartu beharko lukete. Zerbitzuek, halaber, salaketak edo kexak aurkezteko mekanismo eraginkorrak izan beharko lituzkete, abusuak salatzeke eta halakoak geldiarazteko laguntza jasotzeko⁵⁴.
- Plataforma bitartekariari **erantzukizunak eskatzea**.
- **Boikot egitea genero-estereotipoak edo kultura heteropatriarkala sustatzen dituzten enpresei**, iragartzen dituzten hedabideei.
- Kontsumitzaile gisa presio egitea.
- Erakundeei **erantzukizunak eskatzea**.
- Erakundeei tinko eskatzea onlineko indarkeriei lotutako diskurtsoak sar ditzatela beren kanpainetan. Onlineko genero-indarkerien arbuioa sustatzeko kanpaina publikoak egitea, gizonezkoei zuzenduta, erantzukizun handiena duten aldetik.

54. Proposamen hori "Las violencias de género en línea" argitalpenean jasotzen da. Laia Serra Perelló abokatu eta aktibistak eta Pikara Magazinek taxutu zuten, eta 2018ko abenduan argitaratu zen: Hemen eskuragarri: <http://lab.pikaramagazine.com/violenciasdegeneroenlinea/>

3 | ETXEETAKO ENERGIA- KONTSUMOA

ALDAKETA PERTSONALAREN AHALA

- **Pobrezia energetikoaz ditugun usteak kuestionatzea eta haiei buruz hausnarketa egitea:** zein modutan edo zein neurritan botatzen die errua nire pentsaerak pobrezia energetikoa pairatzen duten pertsoneri?; eta, baiezko erantzunaren kasuan, nola eraldatu ideia horiek?
- **Pobrezia energetikoa pairatzen badugu,** dauden alternatibetara jotzea, geure burua pentsaera kapitalista hegemonikotik askatzea, gure errua dela pentsarazten baitigu eta horretaz hitz egitea eta laguntza bilatzea zailtzen baitu.
- **Informazio** egokia bilatzea dauden askotariko enpresei buruz, mota bateko eta besteko erduei eta haien inpaktuei buruz, bai eta pobrezia energetikoari eta haren ondorioei buruz ere.
- Gure etxeetako argindar-hornidura kooperatiba elektriko jasangarriekin **kontratatzea** (Ecovattios, Solabria, Enercoluz, Som Energia, GoiEner, EconActiva, La Corriente, La Solar, Zencer, EnergÉtica, Próxima Energía, Hidroeléctrica El Carmen Energía, Nosa Enerxia, etab.), **eta generoaren zein LGTBI+ pertsonen aldetik berdintasunezko eta ekitatezko irizpideak betetzen dituztenak aukeratzea.**
- **Eguneroko energia era kritiko eta jasangarrian erabiltzea etxeetan.**
- Energia-erabilera jasangarria **sustatzea** gure auzokide-erkidegoetan: berokuntza zentrolean tenperatura jaistea, hotzetik eta berotik isolatzea, eguzki-panelak jartzea, teilatuetan ura berotzeko panelak instalatzea...
- Jasangarriagoak diren kooperatiba elektrikoen existentzia nahiz kontaktua **zabaltzea** gure lantokietan, auzoetan, familietan nahiz lagunartean.

- Kontratazio hori **ikusgai** jartzea: zigilua atean, identifikazioa atarian, postontzian...
- Pobrezia energetikoaren aurkako **mugimendu sozialetan engaiatzea**, edo egungo energia-eredu hegemonikoa aldatzea bilatzen duten mugimenduetan, eredu jasangarriago, bidezkoago, demokratikoago... bat lortzeko.
- **Etxebizitza birgaitzea** energia-eraginkortasunezko irizpideei jarraituz.
- Energia berriztagarri eta arduratsuaren **autoekoizle bihurtzea**, etxean energia berriztagarriak instalatuta.
- **Partizipazioa izatea instalazio fotovoltaiko edo eoliko batean**, inbertsio etiko, konprometitu, arduratsu eta jasangarri gisa.

INDAR KOLEKTIBOAREN AHALA

- **Eztabaida, prestakuntza eta eraikuntza kolektiborako espazioak** sortzea, jendaurreko salaketan eta alternatiben eraikuntzan laguntzeko (adib.: Emakumeen topaketak Generoari eta Energiari buruz, 2018ko otsailean, Bilbon; generoari eta hirigintzari buruzko topaketak...).
- **Kontsumitzaile arduratsuen taldeak** sustatzea, bai eta **energia-ekoizpen jasangarriko** kooperatiben sorrera ere (energia-ekoizpenaren kasuan, halako enpresetan pertsonala kontratatzean, genero-aniztasuna eta genero-ekitate bultzatzea, bai eta energia-sektoreko emakumeen ikusgaitasuna ere).
- **Kide garen antolakundeetan eztabaida hau sartzeari (auzo-elkartek, GKEak, enpresak, guraso-elkartek, mugimendu sozialak, herritar-mugimenduak, etab.)**, antolakunde gisa ildo horretan pausoak emateko (antolakundeok kontsumitzaile diren aldetik nahiz aktibismo bat aurrera daramaten aldetik, salaketan, informazio eta komunikazioan, eta abarretan).
- Baliabide guztien pribatizazioaren gorakada **salatzea** (energia, lurraldea, zerbitzu publikoak...), energia eta ingurumenaren zein gure bizitzen gaineko inpaktuak barne.
- **Pobrezia energetikoak emakumeen gain eta LGTBI+ kolektiboen gain** dituen berariazko inpaktuak salatzea, begirada intersektional batekin, ezezaguna den errealitate bat agerian jartzeko.
- **Oligopolioek jokatzen duten rola salatzea**, energia-horniduraren merkantilizazioari nahiz ahultasun handieneko pertsonen hornidura hori eteteari dagokionez.

- Oligopolio elektrikoaren *greenwashinga* **arbuia** eta salatzea, bai eta salaketaren, protestaren eta borrokaren kriminalizazioa ere.
- Aniztasunezko **bizikidetz**-eredu feministak sustatzea eta halakoetan parte hartzea, aldi berean eguneroko bizitzaren energia-inpaktuak murrizten dituzten horietan bereziki (cohousing delakoa eta etxebizitza komunitarioko, kolektiboko... proiektuak, ekoherrixkak, zaintza kolektiboa, laguntza-sareak, etab.).
- Energia-enpresek **kaltetutako pertsonen sareak** sustatzea eta haietan parte hartzea, informazioa partekatzeko eta salaketa publikoko kanpaina bateratuak sortzeko. Bereziki, emakumeen eta LGTBI+ pertsonen ikusgaitasuna bultzatzea. Antolakunde, elkarte eta kolektibo gisa, halako sareekin aliantzak sortzea.
- **Auzokideekin batera antolatzea** gure eraikinetan energia fotovoltai-koa autoekoizteko, autokontsumo kolektiboa bultzaturik.
- Pobrezia energetikoa pairatzen duten pertsonak **ikusaraztea, sostengatzea eta ez errudunestea**.
- **Erakundeei eskatzea** energia eskubidetzat har dadila, bizitzarako gutxieneko energia-kontsumo bat zehaztuta eskubide gisa, tarifak eta zergak igota gutxieneko hori gaindituz gero.
- Pobrezia energetikoa eta pertsonen bizitzetan dituen ondorioak –emakumeen eta LGTBI+ pertsonen gain, bereziki– **ikertzen eta agerian jartzen dituzten ikerketak, manifestazioak, adierazpenak eta abar egitea eta babestea**.

JOKO-ARAUAK ALDATZEKO AHALA

- **Salaketa publikoko kanpainak** sustatzea energia-multinazionalen inpaktuei buruz, emakumeen eta LGTBI+ taldeen gainekoei buruz bereziki.
- Zerga-arloko eskumenak dituzten erakundeek **isunak** sortzea eta ezartzea jasangarritasunaren eta berdintasun-irizpideen aldetik gutxieneko baldintza batzuk betetzen ez dituzten enpresei.
- Gobernuek **zerbitzu publiko guztietan energiaren kontratazio arduratsua** bultzatzea eta aurrera eramatea, feminismoaren nahiz ingurumen-jasangarritasunaren arloko irizpide batzuen arabera eredugarriak diren enpresak soilik kontratatuz esaterako (energia-horniduraren arloan ez ezik, etxebizitzaren eraikuntzan, azpiegitura jasangarrietan, eta abarretan ere bai).

- **Legezko neurriak** ezartzea, nahitaezkoa izan dadin etxebizitza eta azpiegitura jasangarriak eraikitzea (isolamendua, eguzki-panelak...).
- **Energiaren bonu soziala** berraztertzea, beharra duten pertsona guztiek eskuratzeko benetako aukera izan dezaten, ahultasun-egoeran dauden emakume eta LGTBI+ pertsonen bereziki.
- **Energia-enpresa eta -kooperatiben aniztasuna** sustatzea, merkatuan baldintza-berdintasunean egotea zailtzen duten oligopolioak hautsita.
- Administrazio publikoek energia-enpresa guztiei nahitaezko betebeharrak ezartzea, **pertsona guztiei bizitzarako gutxieneko energia bat** berma diezaieten, pertsonen osasun fisiko eta emozionala arriskuan jartzen duten egoeretara ez iristeko.
- **Ate birakariak kentzea**: kargu publikoetatik energia-enpresen administrazio-kontseiluetako eserlekuetara.
- **Udalak energia berriztagarrien autoekoizle bihurtzea**, bai eta elektrizitate-merkatuzaille ere.
- **Energia-birgaitzerako neurriak bultzatu eta finantzatzea**, klimalarrialdiaren eta pobrezia energetikoaren aurrean.
- **Estatuak nazioarteko akordioak betetzea**, eta ez uztea transnazionalak diren **Euskadiko edo Espainiako** enpresek beste lurralde batzuetan harrapaketa ibil daitezen eta lurraren zein giza eskubideen alde borrokatzen direnen aurkako indarkeriaren konplize izan daitezen.
- Erakunde publiko gisa, **eredugarria izatea** energiaren arloan emakumeei eta LGTBI+ pertsonen dagokienez, energia-sektore publikoan benetako berdintasuna eta ekitatea sustatuz

BIBLIOGRAFIA

- ✓ Agenjo Calderón, A. (2016): *Repensando la economía feminista desde las propuestas de(s)coloniales*. Revista de económica crítica, 22. alea.
- ✓ Altamira Basterretxea, F. (2017): *Bailando con el deseo. Algunas claves para incorporar la diversidad sexual y de género en las ONGD*. Cuadernos de investigación en procesos de desarrollo, 19. alea.
- ✓ Amnistía Internacional (2018): *Informe sobre la situación de los Derechos Humanos en el mundo*. Hemen eskuragarri: <https://www.ehu.es/documents/1734204/9225412/Informe-2017-2018-Amnistia-Internacional.pdf/9f408650-4141-1cfc-f218-b1818d0a040b>
- ✓ Arenas, M. (2011) *Brecha digital de género*.
- ✓ AWID (2004): *Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica* in Revista Derechos de las mujeres y cambio económico, 9. alea.
- ✓ Calderón, C. (2009): *La teoría del conflicto de Johan Galtung*. Revista de Paz y Conflictos, 2. alea.
- ✓ Espainiako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua (2017): *Nuevos hábitos de consumo, cambios sociales tecnológicos*. Hemen eskuragarri: <http://www.ces.es/documents/10180/3557409/Inf0416.pdf>
- ✓ *Encuesta de hábitos y prácticas culturales en España 2014-2015. Síntesis de resultados*. Hemen eskuragarri: <https://www.mecd.gob.es/dam/jcr:a185d7f5-0331-4f8c-90be-52b6d4991040/encuesta-de-habitos-y-practicas-culturales-2014-2015-sintesis-de-resultados.pdf>
- ✓ *Consumo televisivo, series e Internet. Un estudio sobre la población adolescente de Madrid*, Caja social de Madrid.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundia (2014): *Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria*. Donostia.

- ✓ Eusko Jaurlaritza (2016): *Lesbofobia, homofobia eta transfobia hezkuntza-sisteman. Hurbilketa kualitatiboa*. Hemen eskuragarri: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/28junio_diainternacional/eu_documento/adjuntos/LGTBfobia_TXOSTENA_EU.pdf
- ✓ González Pijuan, I. (2016): *Desigualdad de género y pobreza energética. Un factor de riesgo olvidado*. ISF.
- ✓ León, C. (2012): *Imagen, medios y telecolonialidad: hacia una crítica decolonial de los estudios*.
- ✓ Visuales. Instituto de Estética - Pontificia Universidad Católica de Chile.
- ✓ Menéndez, I. (2014): *Mujeres y hombres en la ficción televisiva norteamericana hoy*. Universidad de Medellín.
- ✓ Barne Ministerioa (2016): *Evolución de los Incidentes relacionados con los delitos de odio*. Hemen eskuragarri: <http://www.interior.gob.es/documentos/10180/5791067/ESTUDIO+INCIDENTES+DELITOS+DE+ODIO+2016.pdf/c5ef4121-ae02-4368-ac1b-ce5cc7e731c2>
- ✓ Mugarik Gabe (2017): *Asfalto arteko loreak. Indarkeria matxisten kausak eta eraginak biziraun duten emakume biktimen bizitzetan*. Hemen eskuragarri: <https://www.mugarikgabe.org/wp-content/uploads/2019/03/Asfalto-arteko-loreak.pdf>
- ✓ Mugarik Gabe (2016): *Construyendo en colectivo de Euskal Herria análisis y reivindicaciones para la construcción de una sociedad justa y equitativa basada en estilos de vida sostenibles*.
- ✓ Muñoz, P. (2011): *Violencias Interseccionales. Debates Feministas y Marcos Teóricos en el tema de Pobreza y Violencia contra las Mujeres en Latinoamérica*. Central America Women's Network (CAWN).
- ✓ Nahia (2013): *Los deseos olvidados. Género eta sexu aniztasun ikuspegia Garapenerako Kooperazioan, Hiritartasun Globalerako Hezkuntzan eta etorkinek eta errefuxiatuek dituzten GGEEen sustapenean eta babesean*. Bizkaiko Foru Aldundia.
- ✓ LGBTfobiaren aurkako Espainiako Behatokia (2017): *Informe de Incidentes de Odio en la Cobertura Mediática en España en 2017*. Hemen eskuragarri: <http://www.stoplgbtfobia.org/wp-content/uploads/2018/05/INFORME-INCIDENTES-DE-ODIO-ESPA%C3%91A-2017.pdf>

- ✓ Rubin, G. (1989): Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad [en cursiva] in Placer y peligro: explorando la sexualidad femenina [sin cursiva]. S. Vance, C. (biltzailea). Hablan las mujeres.
- ✓ Sabater, C. y Binger, J. (2015): *No, sin mi móvil. Diferencias de género y uso de las nuevas tecnologías*. Icono14, 13. alea, 208-246.
- ✓ Salgado, J. (2006): *Género y derechos humanos*. FORO. Quito. Hemen eskuragarri: <http://repositorio.uasb.edu.ec/bitstream/10644/1715/1/RF-05-AV-Salgado.pdf>
- ✓ Serra Perelló, L. (2018): *Las violencias de género en línea*. Hemen eskuragarri: <http://lab.pikaramagazine.com/violenciasdegeneroenlinea/>
- ✓ SETEM Hego Haizea (2015): *Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa*. Esparru teorikoa. 34-66. Hemen eskuragarri: http://www.setem.org/setem_ftp/euskadi/consumimosviolencia_estudio_eusk.pdf
- ✓ Xarxa per la soberanía energética: *Energía y género: miradas ecofeministas sobre la energía*. Le Fede.

Setem

www.setem.org/euskadi

 SetemHegoHaizea

 @SetemHegoHaizea